

PONENTZIA

NAZIO BATZORDEAK
ONARTUA




**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025-6-2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

PONENTZIA

NAZIO BATZORDEAK
ONARTUA



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025-6-2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

0 >>>

SARRERA.....	7
---------------------	----------

1 >>>

NEOLIBERALISMO ERREAKZIONARIOAREN AITZINARATZEA	
DIMENTSIO ANITZEKO KRISI SISTEMIKO BATEAN	8

1.1. Sistemaren hainbat krisi.....	8
1.2. Euskal neoliberalismoa eta bere ondorioak: aberastasunaren banaketa okerragoa eta prekaritatearen hedapena	13
1.3. Konfrontazioari uko egiten dion ezker politikoa	14

2 >>>

GIZARTE EKITATIBO, IRAUNKOR, FEMINISTA, ANITZ ETA DEMOKRATIKO BATEN ALDE.....	16
--	-----------

2.1. Kontrabotereko sindikalismo soziopolitiko gehiago	16
2.2. Aberastasunaren banaketa, soldata handiagoa eta lanaldi laburragoa	18
2.3. Lan eta pentsio erreformen murrizketak indargabetzea.....	19
2.4. Aurrekontu eta zerga-politikak aldatzeko presioa egin	20
2.5. Kalitatezko zerbitzu publikoen alde borrokatzea.....	21
2.6. Sindikalismo feminista eta zaintza sistema publiko bat, gizarte ekitatibo baterako.....	23
2.7. Pertsona guztientzako etxebizitza	24
2.8. Trantsizio ekologikoa herritar xumeentzat	26
2.9. Sindikalismo inklusiboa, arrazakeriari aurre egiteko.....	28
2.10. Faxismoari eta militarismoari aurre egin	30
2.11. Burujabetza teknologikoa eta digitalizazio demokratikoa helburu.....	30
2.12. Irrikatzen dugun gizartea eraiki.....	32

3 >>>

BURUJABETZA SOZIALA ERAIKI, GUZTIOK GUZTIA GUZTIONTZAT ERABAKIZ.....	33
---	-----------

3.1. Espainiar Estatua berlegitimazio prozesuan	33
3.2. Krisia Frantziar Estatuan	34
3.3. Gatazka politikoak eta zapalkuntzak bere horretan jarraitzen du.....	35
3.4. Euskal instituzioen erantzun ahula	36
3.5. Mugimendu subiranistaren zailtasunak eta estrategia falta	37
3.6. Burujabetza soziala indartu.....	38
3.7. Euskararekin konprometituak.....	39
3.8. konfrontazioa beharrezkoa da Zapalkuntza egoeratik askatzeko.....	40
3.9. Eztabaida instituzionalak guztiona behar du izan, ez soilik eliteena.....	41
3.10. Gure lurralde bokazioa osatzen jarraitu	42
3.11. Burujabetzak eraikitzen dituzten alternatibak babestu	43

3.12. Giza eskubideekin konprometituak.....	44
3.13. Herritarren errepublikarantz, guztiok guztia erabakiz	45

4 >>>

ABERASTASUNAREN BANAKETA BORROKATU, PREKARIOEN DAUDENEN ETA EMAKUMEEN INTERESAK ERDIGUNEAN JARRIZ 46

4.1. Hego Euskal Herria, salbuespen sindikala	46
4.2. Negoziazio kolektibo are indartsuagoa pobretzeari aurre egiteko eta lan- zein bizi-baldintzak hobetzeko	47
4.3. Enplegu prekaritatea borrokatu	50
4.4. Negoziazio kolektibo feministan sakondu	54
4.5. Parte-hartzea eta planifikazioa indartu emaitzak hobetzeko.....	55
4.6. Mobilizazio eta greba gehiago eduki anbiziotsuagoak lortzeko	57

5 >>>

LAN SINDIKALA HOBETU, MILITANTZIA SENDOTU ETA LAN-ZENTROAK ANTOLATU LAN- ETA BIZI-BALDINTZAK BORROKATZEKO 62

5.1. Afiliazioa eta ordezkaritza hobetu, oinarria eta zilegitasuna handitzeko.....	62
5.2. Langileak lan-zentro bakoitzean hobeto antolatu, hobeto konfrontatzeko	65
5.3. Ahaldundutako militantzia gehiago esparru guztietan konfrontatzeko.....	67
5.4. Sindikatua eraldatzen genero ekitaterako	68
5.5. Planifikazio ona helburuak lortzeko	70
5.6. Defentsa juridikoa, ekintza sindikalerako funtsezkoa.....	71
5.7. Sindikatu euskaldunagoa langileak euskarara ekartzeko.....	73
5.8. Militantzia indartzeko eta erronkei aurre egiteko trebakuntza	73
5.9. Lan munduaren aldaketetara egokitzen den sindikalismoa.....	74

6 >>>

KONTRABOTERE SINDIKALISMOAREN ETA ERALDAKETA SOZIALERAKO ALIAINTZEN BEHARRA..... 76

6.1. ELA eta LAB bide ezberdinetatik goaz	77
6.2. Ezkerra beharrezkoa da erakundeetan... betiere mugimendu sozial eta sindikalarekin artikulatuta	78
6.3. Aliantza sozialak indar-harremanean eta kontraboterean irabazteko	79
6.4. Europako eta nazioarteko aliantzak	80



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**

MÁS SINDICATO, MÁS VIDA



SARRERA

1. “Langileria antolatu, gizartea eraldatu. Más sindicato. Más vida” da gure kongresuaren goiburua.
2. Goiburuan, sindikatuaren hurrengo lau urteetako erronka nagusiak, estrategia-ildoak eta programaren ardatz nagusiak laburtu ditugu. Programa horren ardatz nagusiak azpimarratu eta garatzea du helburua ponentzia honek. Testu honetan jasotzen ditugu:
 - a) Sindikatuaren kezka nagusi diren gaiak.
 - b) Hurrengo lau urteetarako jartzen ditugun helburu estrategikoak.
 - c) Bereziki zaindu behar ditugun gai kritikoak.
 - d) Egungo eta etorkizuneko eztabaida-gaiak.
3. Ponentzia lan egiteko proposamena izateaz gain, militantzia osoarekin garrantzitsutzat jotzen ditugun gaiez hitz egin, eztabaidatu eta adostasun berrietara iristeko tresna ere bada. Ponentziak hausnarketa kolektibo bat bultzatu nahi du. Kongresuan 736 ordezkariak parte hartuko badute ere, hausnarketa eta eztabaida hau ahalik eta militante gehienengana iristea nahi genuke eta guztion artean bertan proposatzen dena hobetzea. Horretarako aukera ematen dute testuaren gainean proposa daitezkeen zuzenketek.
4. Testu hau idatzi eta proposatzeko ardura duen Nazio Batzordeak sindikatuko militante eta, modu berezian, kongresu honetan ELAren militantzia ordezkatzeko duten kongresukide guztiei eskatzen die, har dezatela beharrezko tarteak, ponentzia hau irakurri, berri buruz gogoeta egin eta eztabaidatzeko. Gure erakundearen etorkizunak eta euskal langileklasearen zoriak merezi dute.



1 >>>

NEOLIBERALISMO ERREAKZIONARIOAREN AITZINARATZEA DIMENTSIO ANITZEKO KRISI SISTEMIKO BATEAN

5. Duela lau urte deskribatzen genuen krisi sistemikoa larriagotu egin da. Sistema kapitalistaren inertziak krisi ekologikoa areagotu du, aberastasunaren pilaketa eta desberdintasun soziala handitu ditu eta demokrazia liberala bera, ere, ezbaian jartzen ari da. Horren adierazle dira eros-ahalmenaren galera eta herritar xumeen pobretzea, oinarritzko eskubiak auzitan jartzea, migrazio krisiak eta arrazismoa areagotzea, negazionismo klimatikoa, estrategia belizistaren hedapena edo eskuin muturraren gorakada eta irtenbide autoritarioak.

6. Bai orokorrean, baita gure testuinguru hurbilenean ere, oso egoera kezkagarrian gaude. Munduak, oro har, eta gure gizarteak, bereziki, ziurgabetasun handia sortzen duten eta egungo sistemaren sostengua ezbaian jartzen duten mehatxu ugariri egin behar die aurre.

1.1. SISTEMAREN HAINBAT KRISI

7. Hauek dira gaur egungo egoera ezaugarritzen duten eta azpimarratu nahi ditugun elementuetako batzuk:

Munduko hegemoniaren lehia eta multipolaritatea

8. Berlingo harresia erori ondoren, Amerikako Estatu Batuek nagusitasun osoa zuten garaiak, beste aktore batzuek ere protagonismoa duten agertoki berri bati eman dio bide. Txina da munduko botere ekonomiko eta politikoa lehiatzen ari den potentzia nagusia. Europa bigarren mailan geratu da, bai garapen teknologikoan, bai industria-ekoizpenean edo ondasunen eta zerbitzuen merkataritzan. Are gehiago, Europak AEBekiko duen menpekotasuna handitu egin da Ukrainako gerraren eta Europar Batasunak hartutako erabakien ondorioz. Orain arte Europaren edo AEBen inguruan ibili diren herrialdeak orbita horretatik urrundu dira eta Txinarekin edo BRICS moduan ezagutzen ditugun beste herrialdeekin harremanak sortzen hasi dira. Hori gero eta nabarmenagoa da Afrikako Sahelako herrialdeen kasuan. Azken finean, munduko taula geopolitikoa aldatzen ari da, eta AEBen hegemonia indar anitzeko beste egoera bati bide ematen ari zaio.

Gerra-estrategiaren hedapena

9. Krisi ugari izan arren, egungo sistema kapitalista neoliberalari eusteko ahaleginak, baliabide natural mugatuak pilatzeko saiakerak, kontrol geopolitikoaren bilaketak, ikuspegi kultural, sozial edo erlijiosoak inposatzeko nahiak eta munduko boterearen lehian posizioak irabazteko asmoak, indarkeria testuinguru gero eta bortitzagora eta estrategia belizisten garapenera garamatza.
10. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko gatazkei, giza eskubideei eta bakearen eraikuntzari buruzko Alerta! txostenak gatazka armatuko 36 testuinguru identifikatu zituen 2023an planeta osoan zehar, azken hamarkadako kopururik handiena. Ukrainako gerra edo Israelgo Estatu herri palestinarraren aurka egiten ari den genozidioa eta, gobernu estatubatuarraren eta Europako eliteen konplizitatearekin, Ekialde Ertain osora zabaltzen ari den gerra dira hedabideetan protagonismo handiena hartzen duten gatazkek. Baina ez dira ahaztu behar arrazoi bera duten beste gatazka asko ere, munduko potentzia nagusien mugimendu geoestrategikoak edota baliabideak eta lehengaiak kontrolatzea helburu dutenak, eta potentzia nagusi hauek lurralde hauetan esku hartu ondoren, bere horretan abandonatzen dituztenak. Hala, identifikaturiko gatazken erdiak Afrikan kokatzen dira, eta ia beste erdiak Ekialde Ertainean eta Asian. Gatazken %64 genero berdintasunean indize baxua duten herrialdeetan gertatzen dira, eta %75 LGTBI populazioaren aurkako legedi edo politika kriminalizatzaileak dituzten herrialdeetan. Emakumeek eta sexu eta genero disidenteeek askoz ere gehiago sufritzen dituzte gatazka armatuen eta gerren ondorioak.
11. Testuinguru horretan, are larriagoa egiten da, militarizaziora, kontsumo ondasunen ekoizpen industria eskala handiko armamentua ekoiztera bideratzera eta gerrarako presatzera deitzen duten ahotsak entzutea, EBko buruzagiak egiten ari diren moduan. Azken hamarkadan, NATOren 32 kideetatik BPGaren %2 baino gehiago gastu militarra bideratzen duten herrialdeak 3tik 23ra pasa dira eta herrialde bakoitzak gutxienez BPGren %3 gastatzeko presioak geroz eta handiagoak dira.
12. Europako Batzordea, COVID-19aren krisiaren ostean ezarritako eta Next Generation funtsei lotutako ustezko agenda berdea alde batera uzten ari da, gastu militarra handitzeko. Aurrez ere, Europako funtsak kritikatzeko bagenituen Europar Batasunaren politika antisozialak inposatzeko baldintza zekartelako eta funts horiek transnazionalak bereganatuko zituztelako, aipaturiko aldaketa horrek are gehiago mugatzen du trantsizio ekologikoan izango duten eragina. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu egungo politika europarrak ez direla berdeak, ez direla sozialak eta ez daudela bakera bideratuta.

Europako Batasuneko austeritate politiken itzulera eta Next Generation EU funtsen tranpa

13. Europako Batzordeak bertan behera utzi zuen "Egonkortasunerako eta Hazkunde-rako Ituna", COVID-19aren pandemian sortutako egoerak behartuta, estatu kideek inbertsio publikoa handitu ahal izan zezaten osasun, gizarte eta ekonomia krisiari aurre egiteko.
14. Batzordeak berak azpimarratu zuenez, salbuespenezko eta aldi baterako arau fiskalen etetea zen. Lau urte geroago, Europako exekutiboak erabaki du 2025ean Europar Batasunak "diziplina fiskala" aplikatuko diela berriro zor publikoa edo defizit handia duten estatu kideei. Horrek esan nahi du gastu arau berriek murrizketa handiak eragingo dituztela estatu horiek egin ditzaketen inbertsio sozialetan, eta saiaturiko direla estatu horiek kontrarreforma sozialak egitera behartzen. Mota horretako neurriak aplikatzeak gizartean, ekonomian eta politikan dituen ondorio larriak agerian geratu ziren 2008ko krisiaren ostean.
15. Komeni da gogoraraztea pandemiak iraun bitartean zor publikoa handitzea izan zela gastu publikoa finantzatzeko mekanismoa, Covid-aren krisiak sortutako hainbat beharri



aurre egiteko; izan ere, gobernuek uko egin baitzioten aberastasunaren metaketa, errenta altuak, kapital-errentak eta enpresa-irabaziak zergapetuz zerga bidezko diru-bilketa handitzeko zerga-erreforma bat egiteari.

16. Ustez, Europako ekonomia aktibatzeke eta trantsizio ekologiko eta digitala ahalbidetzeko sortu ziren Next Generation EU Funtsek, benetan, ez dute balio izan sistema ekonomikoaren eraldaketa estrukturala egiteko, kapitalismo korporatiboan sakontzeko baizik. Tokiko ekonomia suspertu eta eremu estrategikoetan burujabetza handiagoko egiturak eraiki beharrean, funtsen zati handi bat, batez ere, energia, digitalizazioa, automobilgintza, mugikortasuna, osasun eta zaintza, agroindustria edo azpiegituren moduko funtsezko proiektuetara bideratutakoak, enpresa transnazional handiek bereganatu dituzte, eta, funts horien bidez, diru publikoaren kontura, kapitalismoaren fase berri honetarako hobeto egokitu eta kokatu dira.

17. Komeni da gogoratzea estatuek itzuli egin behar dituztela funts horiek, bai zeharka, Europar Batasunaren aurrekontuari egiten dizkioten ekarpenen bidez, bai zor publikoa handituko duten mailegu zuzenen bidez. Bere garaian ohartarazi genuen bezala –eta salatu genuen, gure herrialdeko ia alderdi politiko guztiek, baita ezkerreko alderdiek ere, funts horiei babesa eman zietenean–, funts horiek estatu hartzaileek erreforma ekonomikoak, zerga-sistemaren erreformak, lan-erreformak eta pentsio-sistemaren erreformak ezartzeko baldintzapean daude.

18. Beraz, ondoriozta dezakegu Europar Batasunak pandemiaren ondoren estatu kideek izan dituzten beharrak eta larritasuna baliatu dituela, alde batetik, korporazio handien beharrak finantzatzeko, eta, bestetik, estatuak zorpetzeko eta diziplinatzeko, eta kontu publikoetan, lan-eskubideetan eta pentsio publikoetan murrizketa berriak egitera behartzeko.

19. Premiazkoa da funts horiek zer suposatu duten eta zer suposatuko duten zabaltzeko lana egitea eta ezker politiko, sozial eta sindikalaren mobilizazioa aktibatzea Europa osoan eta Euskal Herrian, ezarri nahi dizkiguten lan eta bizi eskubide eta baldintzak murrizteko neurriei aurre egiteko. Agenda kritiko partekatua, internazionalista eta Europar Batasunaren egungo arkitekturarekin konfrontatzeko eta alternatiba egingarriak bultzatzeko beharra dugu, bai erakundeetatik, baita erakundeetatik kanpo ere. Europako herriek emantzipatu nahi badute, gaur egun Europar Batasunak ordezkatzen duen dominazio eta esplotazio arkitekturari aurre egin behar diote, beldurrik gabe.

Neokolonialismoa, lehengaiez hornitzeko politika

20. Botere ekonomiko eta politikoak kolapsatzen ari den sistema bati eusten dio. Kapitalismoak zailtasun handiak ditu produkzioaren eta kontsumoaren hazkunde esponentzialaren egiturari eusteko. Baliabide mugatuaren eta planetaren muga materialen ondorioz, transnazional handiak herrialde pobretuetako ondasunen erauzketa eta espoliazioa areagotzen ari dira.

21. Europako Oinarrizko Materialei buruzko Lege berriak eta nazioarteko merkataritza-akordioek helburu horri erantzuten diote. Araudi hauek, enpresa transnazional handiak beren jarduerarako funtsezko baliabideez errazago eta merkeago hornitzeko eta, horrela, beren botere ekonomikoari eusteko eta irabaziak handitzeko balio dute. Gutxiengo baten mesederako planetaren baliabideak kontrolatu nahi dituen estrategia neokoloniala da hau, komunitate eta herrialde osoen espoliazioa eta menperatzea betikotuz.

22. Dinamika honetan mundu mailako hegemoniaren alde borrokan ari diren herrialde guztiek hartzen dute parte, AEBk, Txinak, Europar Batasunak edo BRICSen barruan dauden beste herrialde batzuek. Ondasunak eta lehengaiak erauzteko eta kontrolatzeko estrate-

giak desberdinak diren arren, guztiek ondasunen erauzketa eta bereganatzea nagusi diren eskema neokolonial berean parte hartzen dute.

Digitalizazioa eta adimen artifiziala, gizartea kontrolatzeko eta enpresen onurarako

23. Azken hamarkadetan, digitalizazioaren ondorioz, bizitzaren dimentsio asko aldatzen ari dira. Azken urteotan adimen artifizialak izan duen garapena, gure egiteko modua iraultzen ari da, baita pentsatzeko modua ere.
24. Teknologia horien sorreran estatuek, egiturek eta finantzaketa publikoak funtsezko zeregina izan duten arren, kapital handiak eta enpresa teknologiko handiek bereganatu dute horien kontrola eta garapena.
25. Hori dela eta, zenbait salbuespenekin, teknologia hori guztia korporazio handien interesen zerbitzura jartzen ari da. Botere ekonomiko eta politikoa garapen teknologiko itzel hori erabiltzen ari da botere eta aberastasunaren pilaketa azkartzeko, desberdintasunak handitzeko, kontrol soziala areagotzeko eta pertsonen pentsamendua baldintzatzen saiatzeko.
26. Sindikatuaren lan esparruetan ikusten ari gara digitalizazioa eta adimen artifiziala honetarako erabiltzen ari direla:
 - a) Lan-baldintzak prekarizatzeko.
 - b) Langileen gainera presioa areagotzeko, horrek osasun mentalean dakartzan ondorio larriekin.
 - c) Funtsezko zerbitzu publikoak pribatizatzeko, teknologia eta herritarren datuak (administrazio publikoetan, osasun-sisteman, hezkuntzan...) multinazional pribatu handien esku utzita.
 - d) Trantsizio ekososial sakon bat saihesteko, sinestaraziz digitalizazioa ekologikoki neutroa dela eta, gainera, aztarna ekologikoa eta ingurumen-inpaktua nabarmen gutxituko dituela, justu kontrakoa gertatzen denean.
 - e) Kontrol soziala areagotzeko, disidentzia eta protesta soziala kriminalizatzeko eta pertsonak modu indiskriminatuan jazartzeko (pertsona migratzaileekin edo itxura fisiko ez-hegemonikoa dutenekin gertatzen den moduan).
 - f) Eskuin muturra indartzeko, bere diskurtsoa zabalduz eta emakumeen, pertsona migratuen eta LGTBI pertsonen aurkako jazarpena areagotuz.

Eskuin muturraren gorakada eta indartzea, eta feminismoa, ekologismoa eta antirrazismoa zalantzan jartzea

27. Lehen aipatutako krisi sistemikoa agerian uzten ari da sistema ekonomiko-politiko kapitalista neoliberalak ez duela gaitasunik herritar gehienek gutxieneko ongizate-mailei eusteko, ezta herrialde aberastuenetan ere.
28. Desberdintasunen hazkundea, ongizate-estatuaren eta zerbitzu publikoen ahultzea, gizarte eta lan eskubideetan murrizketak, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak, premiazko ondasunen garestitzea eta herritar gehienentzat, batez ere gazteenentzat, zalantza eta kezka beteriko etorkizun baten sentsazioa izaten ari dira, eskuin muturraren ideiak eta posizionamendua indartu eta zabaltzeko haztegia.



29. Egoera honetara eraman gaituzten arduradunak identifikatu beharrean, botere ekonomikoak ongi finantzatutako ideologia kontserbadoreko eta eskuin muturreko talde, erakunde, fundazio edo alderdiak, bulo eta albiste faltsuez elikatutako diskurtsoak sortzen ari dira, erabaki horien ondorioak jasaten ari garen pertsona eta taldeen aurka, hain zuzen ere.
30. Talde eta erakunde horiek ziurgabetasuna eta nolabaiteko krisi kultural eta identitarioa sortzen duten gure gizarteko mutazio eta aldaketa batzuk aprobetxatzen ari dira jarrera atzerakoia eta erantzun autoritarioak bultzatzeko.
31. Gure hiri, herri edo auzoetan gero eta kultur eta pentsamendu aniztasun handiagoa dugu, jatorri anitzeko gero eta pertsona gehiago bizi gara elkarrekin, emakumeen eta sexu eta genero adierazpen hegemonikoetatik aldentzen diren pertsonen eskubideen aitortzan aurrerapauso garrantzitsuak ematen ari gara, gero eta kontzientzia ekologiko handiagoa dugu, gure bizi eta kontsumo ohiturak zalantzan jartzen dituen... Sistemaren krisiak, aldaketa horiek guztiek sortzen duten noraezarekin batera eta ezkerreko indar eta mugimenduek aldaketarako proposamen alternatiborik ez eskaintzeak sortzen dituen hutsuneak, eskuin muturreko erakundeek baliatzen dituzte, komunikazio-talde handien laguntzarekin, gure arazoan, krisi orokorraren eta ziurgabetasun-egoeraren erantzuleak atzeritar jatorriko pertsonak, kultura, pentsamendu edo erlijio desberdinetakoak, emakumeek edo LGTBI pertsonen konkistatutako eskubide eta askatasunak, edo aldarrikapen ekologistak direla ikusarazten saiatzeko.
32. Indar kontserbadore eta atzerakoiek, beraz, egoera honetara ekarri gaituztenen arreta eta erantzukizuna desbideratu nahi dute, herritar xumeak elkarren aurka aritu gaitezen, eta egoera baliatu nahi dute azken hamarkadetan zalantzan jarri eta gainditu diren kosmobi-soiak eta balio tradizionalak berrezartzeko.
33. Egoera horri ordezkaritza politiko instituzionalaren krisia gehitu behar zaio, eta horren erakusgarri dira gero eta abstentzio handiagoa hauteskundeetan, plataforma politiko berrien eta lidergo autoritarioen sorrera, eta bozken aldakortasun handiagoa. Testuinguru horri esker, eskuin muturrak aurrera egin dezake hauteskundeetan eta bere diskurtsoa legitimatu, bereziki aurretik bere eragina mugatzen zuen betoa desagertu ostean.
34. Estrategia horren eta diskurtso horren gorakadaren adierazpena da emakumeen edo sexu eta genero disidenteen eskubideei eraso egiten dien edo indarkeria matxistaren existentzia bera ere ukatzen duen konplexurik gabeko matxismo baten azaleratzea; arrazakeria sozial eta instituzionalean sustraiak dituen pertsona migratuekiko gorroto diskurtsoa; edo kontsumo eta bizi moduen edozein aldaketari uko egin eta militantzia ekologistaz barre egiten duen negazionismo klimatikoa.
35. Hedabide eta sare sozialek sistemaren zerbitzura zabaltzen duten diskurtso hori guztia, gero eta gehiago ari da barneratzen gure gizartean. Horren emaitza da eskuin muturrak Europa osoan eta munduan izan duen gorakada kezkagarria, eta Euskal Herrian ere, proportzio txikiagoan bada ere, eman dena. Baina, larria izan arren, eskuin muturreko indarrek lor ditzaketen botoez eta ordezkaritza politikoaz harago, talde hauek hauspoturiko diskurtsoa, aldarrikapenak eta neurriak esparru ideologiko horretan kokatzen ez diren beste erakunde eta alderdi askotara, ere, zabaltzen ari dira, baita ezkerreko alderdietara ere. Batzuetan, langileen aldeko diskurtsoak planteamendu arrazista, antiekologista, matxista, homofobo, transfobo edo kapazitistekin batzen dira, eta agerian uzten du printzipio aurrera-koi eta demokratikoen aurkako postulatuaren normalizazio arriskutsua.

1.2. EUSKAL NEOLIBERALISMOA ETA BERE ONDORIOAK: ABERASTASUNAREN BANAKETA OKERRAGOA ETA PREKARITATEAREN HEDAPENA

36. Euskal Herrian, dimentsio anitzeko krisi sistemiko hau, errealtate kezkagarria sortu duten hamarkadetako politika neoliberalen aplikazioak ezaugarrituriko testuinguru batean garatu da. Herrialdea gobernatu duten alderdi nagusiek –EAJ, PSE-EE, UPN eta PSN– bultzaturiko politika horiek, gure erakundeak moldatu dituzte eta ondorio sakonak utzi dituzte gizartean.

37. Gobernu desberdinek, bata bestearen atzetik, lan-baldintzen desarautzea sustatu dute, enpresa-gehiegikerien aurrean ez dute neurririk hartu eta ez dituzte langileak babestu. Errenta altuak, kapital errentak eta enpresen irabaziak pixkanaka zergapetzea ere baztertu dute, baita politika birbanatzaile eraginkorrak bultzatzea ere. Gainera, oinarritzko zerbitzu-etan inbertsio publiko eskasa mantendu dute, hala nola, osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan, babes sozialean eta politika industrialean; aldiz, azpikontratazioaren eta pribatizazioaren alde egin dute funtsezko sektoreetan, esaterako, zaintza-lan profesionalizatueta.

38. Testuinguru horretan, euskal korporazio handiek, hala nola Iberdrola, Repsol, BBVA, Kutxabank, Tubacex, Sidenor, Viscofan, Acciona, Mondragon korporazioa eta siderometalurgia, automobilgintza, nekazaritza-elikagaiak, ondasunen eta zerbitzuen banaketa edo zaintza sektoreetako beste enpresa-talde batzuk, paper erabakigarria izan dute eredu neoliberal hori betikotzeko. Enpresa horiek, lobby gisa, gobernuen gainean izan duten eragina baliatu dute, erabaki fiskalak, energetikoak eta lan esparrukoak euren mesedetan moldatuz, euren interes ekonomikoak ongizate kolektiboaren gainetik lehenetsiz.

39. Euskal Herrian, leku gehienetan bezala, enpresen irabaziak izugarri handitu diren bitartean, soldatek eros-ahalmena galdu dute. Hala gertatu da, bai sektore publikoan, baita pribatuan ere. Horren ondorioz, azken urteetan, langile bakoitzak, batez beste, 1.200 eurotik gora galdu ditu aberastasunaren banaketan.

40. Bilakaera hori ez dator bat enpresen mozkinen izan duten gorakada handiarekin. Azken urteotan, elikagaien eta premiazko ondasun eta zerbitzuen prezioak nabarmen igo dira. Baina igoera hori ez da gertatu, bereziki, ekoizpen kostuen igoeragatik, baizik eta enpresa handiek abagunea baliatu dutelako prezioak puzteko eta irabaziak modu eskandalagarrian handitzeko. Gertatutakoaren adibide argia energia-enpresak eta finantza-erakundeak dira. Iberdrolak 4.800 milioi euro baino gehiago irabazi zituen 2023an (2022an baino %10,7 gehiago) eta 2024an irabaziak 5.500 milioira igotzea aurreikusi zuen. Kutxabanke, berriz, 510 milioi euroko irabaziak izan zituen 2023an (2022an baino %54 gehiago), 2024eko kontu itxierak gaudituko duen kopurua, izan ere, urtarritetik irailera 400 milioiko irabaziak izan baitzituen.

41. Kapitalismoak prekaritatea sortzen du, baina prekaritate hau bera ere beharrezkoa du. Azken lan-erreformak behin-behinekotasunaren estatistikak makillatu dituen arren, lan-kontratuen prekaritatea ez da desagertu. Aldizkako lan-kontratu finkoek edo lanaldi partzialeko kontratu finkoek prekaritate handia ezkututzen dute, eta horrek bereziki emakumeei eta migraturiko pertsonei eragiten die. Kontratazio partzialek lan-kontratua duten gizonen %4,9ri eragiten die Nafarroan eta %6,3ri EAEn, emakumeen partzialtasunak, ordea, laukoiztu egiten ditu zifra horiek, hurrenez urren, %20ra eta %24ra iritsiz. Erreformaren ondoren behin-behinekotasun datuen murrizketa nabarmena islatzen zuten estatistika berberak kontrako joera erakusten dute azken hilabeteetan, aldi baterako kontratazioak etengabe gora egin baitu, erregistratzen diren kontratu berrien %80ra iristeraino.

42. Pobrezia eta gizarte-bazterkeria oso zabalduta daude, oraindik, ere gure gizartean. Hazkunde ekonomiko jarraituak ez ditu pobrezia-aren adierazleak hobetzen. Datu makroko-



nomikoen hobekuntza alde batera utzita, azken urteetan sendotu egin da –zertxobait handitu ere bai EAren kasuan, eta neurri handiagoan Nafarroan– pobrezia egoeran edo pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen ehunekoa. “2024ko pobrezia egoerari buruzko txostena”-ren arabera, Hego Euskal Herrian bost pertsonatik bat, 600.000 pertsona baino gehiago, pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan dago, 2008an baino 137.758 pertsona gehiago.

43. Datu orokorrak horiek izanik, komeni da azpimarratzea pobrezia emakume aurpegia duela, emakumeen arteko pobrezia tasa gizonena baino nabarmen handiagoa baita. Era berean, pertsona migratuek gehiago eta intentsitate handiagoz pairatzen dituzte langabezia, prekaritatea, pobrezia eta gizarte-bazterketa. Horren adibide da migratzaileen arteko pobrezia tasa gainerako biztanleriarena baino bederatzi aldiz handiagoa dela. Lehen deskribatutako testuinguruan, gainera, diskriminazio eta gorroto-delitu gehien eta handienak pairatzen dituztenak dira.

1.3. KONFRONTAZIOARI UKO EGITEN DION EZKER POLITIKOA

44. ELAk euskal erakundeetan dauden ezkerreko indarrek, bai gobernuan bai oposizioan, Europako sozialdemokraziek azken hamarkadetan hartu duten moderazio politikoaren ildo berari jarraitzea deitoratzen du. Zenbait neurri kritikatu eta parlamentuan alternatibak edo hobekuntzak proposa baditzakete ere, ELAren ustez ez dira gure herrian urteetan finkatu diren oinarri ideologikoei eta programa neoliberaleari aurre egiten ari. Politika neoliberal horien hegemoniaren pean ezarritako sistema politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala irauli edo zaltzan jarriko duen programa edo ekintza instituzional alternatiborik ere ez dira planteatzen ari. Horren ordez, Iruñeko eta Gasteizko gobernuen ildo estrategikoak aldatzen ez dituzten hobekuntza puntualak proposatzen edo adosten dituzte, batzuetan, baita politika horiek indartzen dituzten murrizketak onartu ere, inposatutako eztabaida markoa beraiena eginez.

45. Ez dago zalantzarik, hainbat akordiotan gehitu diren ezkerreko aldarrikapen batzuek, hein batean bederen, edukia hobetzen laguntzen dutela. Hala ere, akordio horien marko orokorra zaltzan jarri gabe, eta are gehiago, aurrerapen historiko edo herritar xumeentzat onuragarri gisa aurkeztean, dituzten mugak nabarmendu gabe, ezkerreko pedagogiari eta epe ertain eta luzera eraldaketa sakona lortzeko borrokei mesede gutxi egiten zaie.

46. EAJk, UPNk, Geroa Baik, PSE-EEk eta PSNk azken hamarkadetako politika fiskalaren diseinuan, zerbitzu publikoen murrizketan, aurrekontu politika murriztaileetan, osasunean, hezkuntzan, aurrezki kutxen edo Euskaltelen pribatizazioaren aldeko apustuan, sortutako sare klientelarretan eta patronalen interesen aldeko jarreretan duten erantzukizuna alde batera uzteak, eta hortik aurrera, EH Bilduk egiten duen bezala, “akordio zabalak” edo “herri akordioak” justifikatzeak edo errazteak, diagnostiko oker batetik abiatzea eta aldaketa garrantzitsuei uko egitea dakar. Egungo testuinguruan, konfrontazio demokratikoa baztertzeko “lankidetzak” aldarrikatuz edo “oposizio eraikitzaile” bat defendatzea ezkerreko alternatiba argi bat diluituz, EH Bilduko hainbat buruzagik proposatu duten bezala, ELAk partekatzen ez duen estrategia politiko berri bat islatzen du.

47. ELArentzat, estrategia horrek arrisku bat dakar: beste eragile sozial eta kontrabotereko erakunde batzuek ere beren proposamenak erlatibizatzen aunitzea. Honek murriztu egiten du eredu ekonomiko, politiko, sozial eta kulturala ezbaian jartzeko presioa, eta, ondorioz, beste egoera batzuetan nekez onartuko liratekeen markoak onartzen dira. Horrek guztiak aliantza eraldatzaileak eraikitzea ikaragarri zailtzen du.

48. Gizartea aldatzen ari den testuinguru honetan, gero eta desberdintasun handiagoak daudenean, pobrezia hedatzen ari denean, oinarrizko ondasunak eskuratzeko zailtasunak areagotzen ari direnean eta ondoez soziala hazten ari denean, agenda eraldatzailerik ez egoteak eta ezker instituzionala ustezko "zentro" politikora hurbiltzeak, Europako beste lurralde batzuetan gertatzen den bezala, politikarekiko haserrea eta eskuin muturreko ideiak sortzeko eszenatoki egokia bultza dezake.



2 >>>

GIZARTE EKITATIBO, IRAUNKOR, FEMINISTA, ANITZ ETA DEMOKRATIKO BATEN ALDE

2.1. KONTRABOTEREKO SINDIKALISMO SOZIOPOLITIKO GEHIAGO

49. Deskribatutako testuinguruan, ELAk berretsi egiten du sindikalismo soziopolitikoarekiko konpromisoa. Izan ere, kapitalismoaren egungo fasean, langileriaren interesak defendatzeko sindikalismoak konfrontazio eta kontraboterekoa baino ezin du izan. Horregatik, ELA kritikoa da kontzertazio sindikalismoarekin –patronalaren betoa eta gobernuen konplizitatea nagusi diren hiruko organoetan iparra galduta– eta parte hartze instituzionalaren fartsarekin.

50. Era berean, ELA kritikoa da sindikalismo korporatiboarekin. Izan ere, sindikalismo korporatiboak langileen kolektibo jakin baten interesak defendatzea erabaki du, kasu gehienetan, beste kolektibo batzuen interesak kontuan hartu gabe, baita haiei aurre eginez ere, eta gehienetan langile-klase osoaren, are gutxiago, prekaritate handiena pairatzen duten pertsonen premiak aintzat hartu gabe. Sarritan, enpresek edo gobernuek beraiek bultzatzen dute sindikalismo mota hau, otzanagoa eta maneia garriagoa delako, eta erosoagoa, ez dituztelako zalantza jartzen politika fiskalak, aurrekontu politikak, politika sozialak edo langile klasearen interesak jokoan dauden beste gai asko. Nekez izango dute kolektibo jakin baten arazoei konponbiderik, epe ertain eta luzera, langile klase osoaren arazoei eta interesei heltzen ez bazaie, are gutxiago lehia langile klasearen barruan kolektibo ezberdinen artekoa bada.

51. Makina bat aldiz esan dugun bezala, politika publikoek alde batera utzi dituzte langile klasearen eta gehiengo sozialen interesak. Langile klasearentzat funtsezkoak diren gaiak (aberastasunaren banaketa, zerga-sistema, kapitalaren mugimenduak, industria politika, zerbitzu publikoen pribatizazio progresiboa, enpleguaren eta lan harremanen mundua baldintzatzen duen lan eta gizarte legedia, kotizazio eta prestazio sozialak, prekaritatea, genero edo jatorriaren arabeko diskriminazioa, etab.) modu maltzurrian eta azpikeriaz adosten dira, sarritan kontrol publikotik kanpo, kapitalaren eta enpresarien eta unean uneko gobernuen artean, langileen ordezkaritza kontuan hartu gabe.

52. “Elkarriketa soziala” deiturikoa eta instituzioetan parte hartzeko organo gehienak, bai espainiar estatuan, bai EAEn eta Nafarroan, edukirik gabe daude langileriarentzat funtsezkoak diren gaietan, eta lan-osasunari, genero-berdintasunari, ingurumen-erantzukizunari edo lanbide-heziketari buruzko adierazpen orokorretara mugatzen dira, haien baldintzak ezer gutxi hobetuta. Sarritan, lortutako akordioek patronalaren interesei erantzuten diete, eta funtsezko gaiei buruzko eztabaida ezkutatzeak, langileen interesen aurkako politika neoliberalak legitimatzeko eta gizarte desmobilizatzeko soilik balio dute. Foro horietan lortutako lan- eta pentsio-erreformek eta soldata-akordio batzuek atzerapausoak eragin

dituzte eskubideetan, eta herritar xumeak pobretzen lagundu dute. Aitzitik, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren igoera esanguratsuak, lanaldiaren murrizketa edo beste neurri aurrerakoi batzuk foro horietatik kanpo onartu dira, gobernuaren ekimenez, eta agerian utzi dute ez direla baliagarriak eta langileriaren interesei kalte egiten dietela.

53. Izan ere, gobernu ezberdinek “elkarrizketa sozialeko” mahaietara eramaten diren gai gehienen inguruko legeak egin ahal izango lituzkete beren ekimenez, eta, izatez, eskuinak konplexurik gabe egiten du gobernatzen duenean; beraz, praktikan, ustezko “elkarrizketa sozialak” patronalari beto aukera edo edukiak urardotzeko aukera ematea dakar. Patronalek eta beren interesekin bat datozen gobernuak edo politika neoliberalak aplikatu nahi dituztenek eszenifikazio horretan parte hartzea ulergarria izan daiteke, elkarrizketaren eta nolabaiteko parte-hartzearen itxurak egiteko balio baitu, gizarte-eragileen babesa lortzeko eta, horrela, gizartearen erantzuna eta mobilizazioa neutralizatzen saiatzeko. Baina ez da onargarria langile klasearen interesak defendatu nahi dituzten sindikatuek estrategia honi babesa ematea eta joko honetan parte hartzea.

54. Azken kongresutik, “elkarrizketa sozialaren” markoak espainiar estatuan, besteak beste, 2010eko eta 2012ko lan erreformak lehengoratu direnaren itxura egin du, benetako atzerapausoak bideratu gabe, hala nola, hitzarmen probintziales estatuko gainetik behar harko luketen nagusitasuna berrezarri gabe, sinatutako hitzarmenak alde bakarrez aplikatzeari uzteko enpresek duten aukera ezabatu gabe eta kaleratzeen inguruko murrizketak indargabetu gabe. Pentsioen erreforman ere urrats berri bat eman da atzerapauso gehiago ezartzeko, pentsio berrien zenbatekoa murrizteko araua hiru urtean behin berrikusteko betebeharrari lege-maila emanez. Eta enpresari osasun mutualitateak aldi baterako ezintasun-prozesuen kudeaketan sartzen ari dira.

55. Gehiengo sindikalik ez duten EAEko eta Nafarroako “elkarrizketa sozialaren” akordioek, asmo onez eta eszenaratze harroputzez harago, ezin dute inolako balantze esanguratsurik aurkeztu inongo gairen inguruan. Politika antisozialei aurpegia garbitzeko eta gizartearen parte-hartzearen itxura emateko baino ez dute balio izan, finantzaketaren eta funtsezko diru-sarreraren truke, bai patronalentzat, bai sindikatu parte-hartzaileentzat.

56. ELAk eten egin du “parte-hartze sozialeko” organo eta erakunde askotan duen parte hartzea, aurrez azalduko gain, gobernuaren erabakiek, CC.OO. eta UGT sindikatuekin batera, Espainiako sistemaren menpeko lan-eredua sendotzen dutelako.

57. 2006an, ELAk bertan behera utzi zuen Lan Harremanen Kontseiluan zuen parte hartzea, bere jardura sindikala kriminalizatu eta kontseiluak lan gatazketan partzialki jardun zuelako; eta 2007an, LABekin batera, Hobetuz utzi zuen, Madrildik etengabeko prestakuntzaren estatuko eredua inposatu ziotelako, Euskal Herrian aurretik egindako akordio bati muzin eginez. 2008an, EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseilutik erretiratu zen, gaiak zentsuratu, derrigorrez egin beharreko txostenak eragotzi eta kontrako irizpenak mespretxatu zituztelako. Garai bertsuan, Eusko Jaurlaritzaren menpeko organoa den Lehiaren Euskal Auzitegiak, ELA ikertu zuen, igande eta jaiegunetan irekitzearen aurka manifestatzeagatik, askatasun sindikalerako duen eskubidea zalantzan jarritz.

58. 2010ean, ELAk eta LABek Osalan utzi genuen, eta 2018an, ELAk Nafarroako Lan Osasunaren Kontseilua ere utzi zuen, bi erakundeak eraginkortasunik gabeak, burokratikoak eta estatuaren markoaren menpekoak zirela iritzita, lan istripuen egiturazko arrazoiei heltzeko baliabiderik eta borondaterik gabe, eta gobernuaren eta patronalaren interesen zerbitzura. 2011n, ELAk eta LABek bertan behera utzi genuen Lanbiden genuen parte-hartzea, gehiengo sindikala diseinuan baztertuta izan zelako eta benetako eskumenik ez zegoelako, eta 2016an ELAk errefusatu egin zuen Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren berrezaugarritzean parte hartzea, ELAri eta LABi betoa kendu arren, patronalaren eta erregimenaren sindikatuen mesedetan funtzionamendu antidemokratiko, ilun eta klientelarrari eusten ziolako.



59. ELAk kezka ikusten du LAB organo horietako batzuetan berriro parte hartzen hasi izana. Organo horien gehiengo elkarrekin uztera eraman gintuen arrazoi bakar bat ere ez da aldatu; egitura eta funtzionamendua berberak dira oraindik ere. Gure ustez, horietara itzultzeak gizartearen parte-hartze faltua irudikatzen duen eredu legitimatzen du, patronalari beto ahalmena emanez, politika neoliberalak hedatu eta babesten dituen marko instituzional bat sendotuz, eta, aldi berean, organo horietako batzuetan, espainiar estatuko ereduaren menpeko egiturak eta funtzionamenduak onartuz. ELAk uste du kontrabotereko eredu sindikal baten defentsa eta mahai horietan parte hartzea bateraezinak direla. Mahai horiek kritikatzeko eta deslegitimatzeko ezinbesteko baldintza da ELarentzat, konfrontazio ekintza sindikal eta sozial koherente bat garatzeko.

2.2. ABERASTASUNAREN BANAKETA, SOLDATA HANDIAGOA ETA LANALDI LABURRAGOA

60. Lehen esan bezala, azken hamarkadan lan-errentek aberastasunaren banaketan duten pisua murriztu egin da. Pisu galera hori pandemiaren aurretik gertatzen zen, eta horren ostean ere jarraitu du. Errenta eta eros-ahalmenaren galera orokorrak eragin handiagoa izan du erdi mailako eta soldata baxuetan. Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakalak ere indarrean jarraitzen du, nahiz eta azken 5 urteetan %13 murriztu den Nafarroan eta %20 EAEn. 2022an, emakumeen batez besteko soldata gizonena baino %18 txikiagoa izan zen Nafarroan, eta EAEn, berriz, %16 baxuagoa.

61. Aberastasunaren banaketan soldatek pisua etengabe galdu izanak aberastasunaren banaketa bidezkoago baten aldeko borroka ELAren lehentasun bihurtzera eramaten gaitu. Helburua hori izanik, ez dugu soilik borrokatu behar soldatek eros-ahalmena gal ez dezaten, azken urteetan galdutakoa berreskura dezaten baizik. Horretarako, soldata igoerak KPIa baino altuagoak izan behar dira. Bestela, kapitalak aberastasunaren gero eta zati handiagoa pilatzen jarraituko du, lan-errenten kontura.

62. Baina lan-errenten banaketa hori ez da berdina emakumeen eta gizonen artean. Datozen urteetan, sindikatuaren borroka eta aldarrikapenetan (negoiazio kolektiboa, sektore feminizatuak, eremu prekarizatuak, LGS, pentsioak, DSBE edo BE, laguntza sozialak, etab.) arreta berezia jarri behar dugu emakumeak diskriminatzen dituen genero-arrakala horiek identifikatu eta murriztuko dituzten proposamen eta neurrietan.

63. Era berean, gazteek, pertsona migratuek, sexu eta genero disidenteez, dibertsitate funtzionala dutenek, diskriminatutako beste kolektibo batzuek edo eremu prekarizatuak langileek neurri handiagotan pairatzen dute aberastasunaren banaketa bidegabe hori, eta batez bestekoarekiko soldata-arrakala handiagoa dute.

64. Hain zuzen ere, aberastasuna modu justuagoan banatzeko eta soldata baxuenak hobetzeko, aurreko kongresuan Euskal Herrian Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarako erreferentzia propio bat egiteko konpromisoa hartu genuen, horrela, gure errealitate egokituak gutxieneko soldata bidezko diru-sarrerak bermatzeko. ELAk 2024ko irailean egin zuen publiko bere proposamena, eta herrialdeko per capita BPGaren %65 ezarri zuen erreferentzia gisa. Erreferentzia hori 2024rako hilean 1.795 euroren baliokidea zen, 14 ordainsaritan.

65. Baina ez da zenbatekoa garrantzia duen gauza bakarra. Euskal Herrian erabaki ahal izan behar dugu, gure errealitatearen arabera, gure Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata zein izatea nahi dugun. Helburu horrekin, ELAk bultzatuta, beste hainbat sindikaturekin batera, Herri Ekimen Legegile bat erregistratu dugu Iruñeko eta Gasteizko Parlamentuetan, eta 2025ean ahalik eta babes gehien jasoko dugu, Hego Euskal Herriko alderdi politikoek eskaera hori abian jartzeko beharrezko pausoak eman ditzaten.

66. Neurri horrek, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ahalbidetzeaz eta soldatapeko langile klaseari gutxienez berak sortzen duen aberastasunaren bi heren berreskuratzea bermatzeaz gain, bereziki emakumeei, gazteei, migratutako pertsoneri, LGBTBI pertsoneri, aniztasun funtzionala dutenei edo diskriminatutako beste kolektibo batzuei egiten die mesede, haiek baitira, bereziki, sektore prekarizatueta gehien lan egiten dutenak eta soldata txikiena jasotzen dutenak.

67. Soldatez gain, produktibitatearen igoera nabarmena planetaren iraunkortasunaren eta langile klasearen ongizatearen arabera berrikusi behar da. ELAren ustez, soldaten igoerarekin batera, aberastasuna banatzeko, enplegua eta bizitza uztartzeko eta ongizate handiagoa lortzeko ezinbesteko beste neurri bat izan behar du lanaldi murrizketak. Lanaldia murrizteak, pertsonen ongizate fisiko eta mentala hobetzeaz gain, sormenerako, merkantilizatu gabeko lanetarako, norberaren zaintzarako eta giza eta komunitate-harremanetarako denbora askatzen du; genero-berdintasuna ere sustatzen du, beste pertsona batzuk zaintzeko denbora askatzen baitu; enplegua birbanatzeko aukera ematen du, eta aztarna ekologikoa murrizten laguntzen du, gizarte bidezkoagoa, iraunkoragoa eta orekatuagoa sustatuz.

68. ELAk egoki ikusten du Espainiako gobernuak lanaldi murrizketa egiteko izan duen ekimena, nahiz eta CC.OO. eta UGTrekin adosturiko edukia eskasegia dela iritzi eta Euskal Herrian eragin mugatua izango duen. Edozein kasutan, neurria aurrera ateratzeko, Junts eta EAJren babesak beharrezkoak izango dira. ELAk lanaldia berehala 35 ordua murrizteko eskakizuna berresten du, 30 orduko asteko lanaldiaren helbururantz iristeko egin beharreko urrats gisa. Era berean, gaur egun espainiar Estatuak Langileen Estatutuaren bidez arautzen dituen gainerako gaiak bezala, gehienezko lanaldia Euskal Herrian erabaki ahal izatea eskatzen du.

2.3. LAN ETA PENTSIO ERREFORMEN MURRIZKETAK INDARGABETZEA

69. 2009tik hainbat greba orokor eta hainbat mobilizazio deitu ditugu lan eta pentsio erreformen aurka. Aurreko kongresuan ebazpen bat onartu genuen, aurretik onartutako lan erreformak indargabetzea eta euskal alderdiek Pentsioen Lege berria arbuatzea eskatuz. Ebazpenak, alderdi politikoak interpelatzeaz gain, sindikatuko afiliazioari, langile klaseari, eta gizarte osoari dei egiten zien aldarrikapen horiek bere egiteko, eta masiboki kalera ateratzeko.

70. Aurrez ere esan moduan, 2021 amaieran onartutako lan erreformak ez zituen aldatu kaleratzea erraztu eta merkatu duten neurriak, ez zituen kendu hitzarmen kolektiboak ez aplikatzea ahalbidetzen duten klausulak, ezta behin-behinekotasunari lotutako prekaritatea ere, eta eutsi egin zion estatu mailan negoziazio eskusiborako gaiak erreserbatzea ahalbidetzen zuen negoziazio kolektiboaren egiturari, Euskal Herrian negoziatzea eragotziz.

71. Hala ere, azken alderdi horri buelta eman zitzaion azkenean, euskal alderdi politikoen gainean egindako mobilizazioari eta presioari esker Espainiako gobernuak baldintza zezaten Langileen Estatutua aldatzen zuen dekretua sustatzeko, Hego Euskal Herriko hitzarmenek lehentasuna izan dezaten estatuko aurrean.

72. Zentralitatea eman genion borroka horri, mobilizatu ginen, eta lortu dugu 2024an, EAJren eta Espainiako gobernuaren arteko akordio baten bidez, gure hitzarmenei lehentasuna ematea estatuko aldean, eta Hego Euskal Herriko langileok estatuko sindikatuak eta patronalek adosten dituzten hitzarmenak hobetu ahal izatea. Ospatu beharreko garaipen historikoa izan da.



73. Hala ere, esan bezala, lan-erreformen beste alderdi kaltegarri batzuek indarrean jarraitzen dute, bereziki kaleratzea erraztu eta merkatu dutenak. ELAk, alderdi politikoei presioa eginez, ekintza kolektiboaren bidez eta mobilizazioaren bidez, lan erreformaren alderdi negatibo guztiak iraultzeko borrokan jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

74. Pentsioei dagokienez, EAJ eta EH Bildu beharrezkoak izan ziren 2023ko martxoan ELAk atzera botatzea eskatu zuen erreforma onartzeko. Murrizketa berriak onartzeaz gain, 2011ko, 2013ko eta 2021eko erreformen zenbait eduki sendotu ziren de facto, hala nola, erretiro adina 67 urtera arte atzeratzea, kotizazio urteak handitzea, kalkulu aldia handitzea eta pertsona gazteenei zigor handiagoa jartzea, erretiro aurreratua zigortzea, pentsioetan genero arrakala betikotzea, gutxieneko pentsioetan igoera apurrak ezartzea edo hiru urtean behin pentsioak etengabe berrikusteko mekanismoa berrestea, 2025ean hasten dena eta txeki zuri bat ematen diona txandakako gobernuetarako etorkizunean pentsioak murrizteko.

75. Gogoratu behar da, bestalde, 2010etik aurrekontu publikoetan edo administrazio publikoetan ezarritako murrizketa eta muga asko (birjarpen-tasak, soldata-igoerak, etab.) indarrean jarraitzen dutela.

76. ELAk lanean jarraituko du murrizketa horiei buelta emateko eta lan eta gizarte eskubideen hobekuntzan aurrera egiteko.

2.4. AURREKONTU ETA ZERGA-POLITIKAK ALDATZEKO PRESIOA EGIN

77. Duela zenbait hamarkada, ELAk salatu zuen Hego Euskal Herriak defizit estrukturala duela zerga-politikan eta inbertsio publikoan, Europako batez bestekoarekin alderatuta:

- a) Presio fiskala, hau da, diru-kutxa publikoek biltzen duten aberastasunaren zatia (zergen eta gizarte-kotizazioen batura) batez besteko hori baino askoz txikiagoa da. Zerga bidez EAEn sorturiko BPGaren %32,8 biltzen da eta Nafarroan sorturikoaren %33,7, Europako batezbestekoa baino ehuneko 7,4 eta 6,5 puntu gutxiago, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du 8.440 milioi euro biltzeari uzten diogula, errentarik altuenen mesedetan.
- b) Inbertsio publikoa, hau da, aurrekontu bidez oinarritzeko zerbitzu publikoetan egindako inbertsioa, hala nola osasunean, hezkuntzan, gizarte-prestazioetan, etxebizitzan, azpiegiturretan, industria-politikan, nekazaritzan, ingurumenean, segurtasunean, kulturen edo hizkuntza-politiketan, baita zor publikoaren ordainketa ere, askoz txikiagoa da.

78. Bistan denez, lotura argia dago bi parametroen artean. Kapitalaren errentak, errenta altuenak eta enpresen irabaziak gehiago zergapetzeari uko egiteak dakar, batetik, bilketaren pisua lan-errentek eta zeharkako zergek hartzea, eta, bestetik, zerbitzu publikoak hobetzeko eta zabaltzeko erabili beharko liratekeen ehunka milioi biltzeari utzi eta gehien dutenen poltsikoetan geratzea. Hori da azken hamarkadetan gobernatu gaituztenek diseinatu duten politika eta gizarte eredu.

79. Diru-bilketa beharrezkoa da, aberastasuna birbanatu ahal izateko, herritar guztientzako zerbitzu publiko, unibertsal, doako eta eskuragarri gisa. Lehen aipatutakoak bezalako zerbitzu publikoak bermatzeko edo, mugimendu feministarekin batera 2023ko greba feministan, indarrez aldarrikatu genuen zaintza sistema publikoa egikaritu ahal izateko.

80. Beraz, ELAk defendatzen duen gizarte ereduan aurrera egiteko beharrezkoa da diru-sarrera publiko gehiago izatea. ELAren ustez, diru-sarrera horiek bi bidetatik lortu behar dira:

- a) Lanekoak ez diren errenten aitortpenean dagoen iruzur fiskal izugarriaren aurka borrokatuz. ELAk eskatzen du gehienez ere lau urteko epean soldata gabeko errenta guztiak ikuskatzea eta, horretarako, zerga-ikuskarien kopurua nabarmen handitzea.
- b) Kapital-errentengatik, errenta altuengatik eta enpresa etekinengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen handituko dituen erreforma fiskal baten bidez. ELAk eskatzen dituen neurrien artean daude:
 - i) Sozietateen gaineko zerga: enpresaren irabazi kontableen %25eko gutxieneko tasa, inolako salbuespenik gabe.
 - ii) PFEZ: kapitalarentzako eta lan-errententzako tarifa bakarra, kapitalarentzako tarifa berezia kenduta. Eta %66ko gehienezko tasa marjinala berjartzea.
 - iii) Ondarearen gaineko zerga: dagoen tarifa bikoiztu.

81. Era berean, ELAk oinarritzko zerbitzu publikoetara bideratutako aurrekontuak eta inbertsioak handitzea eskatuko die gobernu eta alderdi politikoei, gutxienez Europako herrialdeen batez bestekora iritsi arte.

82. Inbertsio publiko horien barruan, ELAk ezinbestekotzat jotzen du pertsona guztiei gutxienez diru-sarrera batzuk bermatzea, beren bizitza duintasunez garatu ahal izateko, ongizate maila onargarri batean.

83. Hala ere, lehen azaldu dugun bezala, azken urteotan gora egin du pobrezia eta gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen kopuruak. Zaurgarritasun egoerak jasaten ari diren pertsona kopuruaren gorakada hori, hein batean behintzat, diru-sarrerak Bermatzeko Errentan eta Errenta Bermatuan egin diren murrizketek eragin dute. ELAk pertsona bakarra-erentzako DSBE eta EB Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzea eskatzen jarraituko du. Neurri hori, besteak beste, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak sustatutako pobrezia-erentzaren eta bazterketa sozialaren aurkako Herri Ekimen Legegilean planteatu genuen.

84. ELAk sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak eta mobilizazioak egingo ditu gobernuari eta alderdi politikoei presioa egiteko zerga-sisteman, aurrekontu-politikan eta inbertsio publikoan egiturazko aldaketa egin ditzaten.

2.5. KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE BORROKATZEA

85. Gure osasun sistema publikoen gainbehera, bai Osakidetza-erakundearen baita Osasunbidetza-erakundearen ere, egiturazko arrazoien ondorio da. Aurrekontu eskasak, azken hamarkadetan ezarritako murrizketek, langile faltak, behin-behinekotasun izugarriak, zerbitzuen azpikontratazio gero eta handiagoak eta planifikazio faltak sistema krisira eraman zuten, COVID-19aren aurretik ere. Egoeraren adibide batzuk hauek dira: neurrigabeko ratioak, berez luzeak diren eta etengabe hazten ari diren itxaron zerrendak, baliabide eskasak dituen lehen arreta, edo buru-osasun arretaren gabezia nabarmenak. Lehendik ere larriak ziren gabeziak, baina osasun krisiarekin areagotu egin dira.



86. Azken urteotan, Gasteiz eta Iruñeko gobernuek, egiturazko aldaketak bultzatu beharrean, politika horiei eustea erabaki dute. Beraz, egoera larriagotu egin da, eta ez dugu aldaketarako borondate politikorik ikusten.
87. Osasunean egiten den inbertsio publikoa BPGaren %5,5koa da bai Nafarroan, baita EAEn ere; Europan, berriz, %7,6koa da batez bestekoa. Horrek esan nahi du bi gobernuek, hurrenez hurren, 590 eta 2.000 milioi euro gehiago inbertitu beharko lituzketela euren aurrekontuetan, euren inbertsioa Europako batez bestekoarekin parekatzeko.
88. Egoera honen aurrean, bai ELA eta bai gizarte antolatua, askotan mobilizatu gara azken urte hauetan zehar, finantzaketan, osasun arretan, pribatizazioen errebertsioan, plantillaren hazkunde eta egonkortzean, diskriminazioen ezabatzean, lan-baldintzen hobekuntzan edo plantillaren eta zerbitzuaren euskalduntzean funtsezko aldaketak eskatuz.
89. Osasunbidearen eta Osakidetzaren egoera lehengoratzeko eta kalitatezko osasun sistema publikoa defendatzeko funtsezko lan-ildo izango da ELArentzat datozen urteetan ere.
90. Hezkuntzan egiten den inbertsio publikoa ere Europako batez bestekotik oso urrun dago. Nafarroan BPGren %3,3 inbertitzen da eta EAEn, %3,9; Europako batez bestekoa %4,7 da, eta UNESCOren gomendioa BPGaren %6. Europarekiko urteko diferentzial hori 340 milioi eurokoa da Nafarroan, eta 800 milioikoa EAEn.
91. Hezkuntzan inbertsio publikoa nabarmen handitzea funtsezkoa da gure herriak dituen erronkei aurre egiteko. ELAk hiru urteren buruan Europar Batasuneko herrialdeen batez besteko inbertsiora iristea planteatzen du, UNESCOk gomendatutako %6ra iritsi aurretik. Horrek balio behar du ikasgelako ikasle-ratioak txikitzeko, behin-behinekotasuna murrizteko eta hezkuntzako langile guztiak finkatzeko, azpikontratazioak eta pribatizazioak lehengoratzeko eta langile guztien soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko.
92. ELAk apustu argia egiten du hezkuntza sistema propio, euskaldun, publiko, inklusibo eta anitz baten alde. Eusko Legebiltzarrean onartutako Hezkuntza Legeak, ordea, ez dio erantzunik ematen planteamendu horri, eta Nafarroako Gobernuaren politikak ELAk proposatutakotik oso urrun daude. Gure hezkuntza desmerkantilizatu behar dugu, herritarren zerbitzura jartzeko, segregazioa amaitzeko, gure curriculum propioa garatzeko eta ikasle guztiei euskararen ezagutza eta erabilera egokia bermatzeko.
93. ELAren ustez, zerbitzu publikoak eta bertako langileak funtsezkoak dira justizia soziala eta ekitatea bermatzeko, gizartearentzako eta bizitzarako funtsezko zerbitzuak herritar guztiei eskaini ahal izateko inolako diskriminaziorik gabe. Enplegu publikoak lan-baldintza onenekin blindatzea funtsezkoa da interes politiko edo ekonomikoen eragina saihesteko, profesional onenak erakartzeko eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko. Horretan temati jarraituko du sindikatuak. Zerbitzu publikoak indartzea ez da lan kontua bakarrik, ongizate kolektiboarekiko konpromisoa eta gizarte bidezkoago baterako funtsezko urratsa ere bada.
94. Badaude hainbat sektore pertsonen eta gizartearen ongizaterako funtsezkoak direnak, hala nola nekazaritza, elikadura, zaintzak, energia, finantzak, teknologia, telekomunikazioa eta abar, baina indar korrelazio faltagatik, borondate politiko eskasagatik edo politika pribatizatzaileengatik, kapital pribatuaren eta transnazionalen esku geratu direnak. Funtsezko ondasun eta zerbitzu diren esparru horien kudeaketak irabazi itzelak sortzen dizkie enpresa pribatuei herritarrei oinarritzko baliabideetara duten sarbidea mugatzearen kontura, herritar xumeen aberastasuna kapitalari transferituz. Arazo horren adibide dira, besteak beste, zaintza-sektoreetako gatazkak, aurrezki-kutxen edo Euskaltelen pribatizazioa eta Petronorren edota Iberdrolaren milaka milioiko etekinak.

95. ELAk egoera eta praktika horiek salatzen jarraituko du, eta oinarritzko ondasun eta zerbitzu horien gaineko kontrol publiko eta herritarra bermatzen saiatuko da.

2.6. SINDIKALISMO FEMINISTA ETA ZAINZA SISTEMA PUBLIKO BAT, GIZARTE EKITATIBO BATERAKO

96. Heteropatriarkatuaren adierazpide anitzak eta, bereziki, lan-arloko genero-diskriminazioak desagerraraztea da eta izango da ELAren estrategia nagusia; izan ere, egitura sozial, politiko eta kultural horrek desberdintasunak eta indarkeriak sortzen ditu, bai lantokietan, bai haietatik kanpo.

97. Hurrengo urteetan transfeminismoan edo queer kontzeptu eta errealitateetan sakontzen jarraitu beharko dugu, izan ere, heteropatriarkatuak egungo botere eta esplotazio egiturei eusteko ezarritako sexu eta genero kategorio eta identitate bitarrak apurtzera datozen errealitateak dira, nortasunaren eta sexualitatearen kontzepzio anitzagoetara zabaltzeko, identitate eta subjektu ugari dituen feminismo interseksionala aldarrikatuz. Sistema kapitalista heteropatriarkala eraldatu nahi badugu, subjektu eraldatzailea bera zabaltzeko behar dugu, zapalduak edo indarkeria sistemikoak jasaten dituzten pertsona guztiak integratu ahal izateko. Ponentzia honetan eta sindikatuak erabiliko duen terminologian, LGBTI siglak lehenetsiko ditugu sexu edo genero disidenteak aipatzeko, eta queer kontzeptua erabiliko dugu ikuspegi zabalago bati erreferentzia egiteko. Izan ere, azken honek sexu eta genero normatibitateari aurre egiteaz gain, sistemak ezarritako mundu ikuskera eta praktikei aurre egiten dio eta zapalkuntza eta diskriminazio anitzi aurre egiten dietenentzako espazio bizigarriagoa eskaintzen du.

98. Alde horretatik, azpimarratu behar ditugu LGBTI edo sexu eta genero disidente diren pertsonak jasaten dituzten diskriminazioak. Pertsona hauek, eta bereziki trans pertsonak, arazo handiak dituzte enplegu bat lortzeko, eta behin lortzen dutenean, estigmatizatuak izaten jarraitzen dute. Nagusi den heteronormatibitateak urruntzen diren pertsonak ere, gizarteak markatutako estandarrak betetzen ez dituzten pertsonak, alegia, pairatzen dituzte egoera hauek.

99. Era berean, sindikalismotik eskura ditugun baliabide guztiak erabili behar ditugu egunero sexu eta genero disidenteen gorputzei, duintasunari eta nortasunari eragiten dieten indarkeria matxista anitzak desagerrarazteko. ELAn lanean jarraituko dugu indarkeria horiei aurre egiteko espazio seguru gisa sendotzeko, eta arreta berezia jarriko diegu sexu-jazarpenari eta lan-eremuan sexu- edo genero-arrazoiengatik jazarpenari. Askotan ikusezin bihurtzen diren eta oso gutxitan salatzen diren indarkeria mota horiek ELAk agente aktibo gisa jokatzeko eskatzen dute, horiek identifikatu, antzeman eta desagerrarazteko.

100. Azken urteetan, eta bereziki pandemiatik hona, zaintzen balioan jarri du fokua mugimendu feministak. ELAk babestu eta bultzatutako 2023ko azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorra, gure herrian zaintza sistema sakonki eraldatzeko beharra azpimarratu zuen. Pertsona orok zaindua izateko duen eskubide unibertsala aldarrikatzen dugu, zaintza lanaren aitortza eta errebalorizazioa, demokratizazioa eta kolektibizazioa, baita zaintzak esparru pribatutik ateratzeko urgentzia ere, zaintza sistema publiko bat bermatuz.

101. Euskal Herrian, biztanleen %15-18k zaintzak behar dituzte bizimodu normala egiteko, eta gehienak senideek zaintzen dituzte euren etxeetan, nagusiki emakumeek; edo zainduta-ko pertsonak berak edo senideek kontratatutako etxeko langileek eta laguntza-langileek, askotan, egoera irregularrean eta lan eskubiderik gabe dauden pertsona migratuek. Gutxiengo batek bakarrik, %8-15ek, lortzen ditu zerbitzu profesionalak, hala nola, etxez etxeko laguntza edo egoitzak. Honek pribatizazioak eta prekaritateak ezaugarritutako zaintza-egitura isla-



tzen du, non egoitzen %12 baino ez diren kudeaketa publikokoak. Gainerakoak esku pribatuetan daude, sarritan enpresa handiek edo inbertsio funtsek kudeatzen dituzte, eta irabaziak lehenesten dituzte menpekotasuna duten pertsonen ongizatearen eta lan-baldintzen gainetik.

102. Baliabide nahikorik ez izateak, plantilla eskasiak eta ratio desegokiek eragin larria dute zentro publiko zein pribatuetako arretaren kalitatean. Azken horietan egoera are larriagoa da. Gainera, egoitzetako plazen kostua nabarmen igo izanak pertsona askok zerbitzu horiek eskuratu ahal izatea zailtzen du, kasu askotan ezinezko bihurtuz.

103. Horrek guztiak, menpekotasuna duten pertsonentzako arreta egokia eta sektorean lan egiten dutenentzat lan-baldintza duinak bermatzen ez dituen zaintza eredu instituzional bat islatzen du. Behin-behinekotasun handia, derrigorrezko kontratazio partzial asko eta soldata oso baxuak dituen sektorea da. Enplegu bat baino gehiago izatera, aparteko orduak egitera eta enplegua bizitza pertsonalarekin ezin uztartzera kondenatzen ditu langileak.

104. Hego Euskal Herrian, 35.000 etxeko langile inguruk –gehienak emakume migratuak– lan prekarioa eta gutxi aitortua egiten dute. Presio sozialaren ondorioz, 2022ko urriko lege-dekretuak haien lan-eskubideak hobetu zituen: langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zitzaion, enplegatzailea Gizarte Segurantzari kotizazioak ordaintzera behartu zen, bidegabeko kaleratzea ezabatu zen eta kalte-ordainak bermatu ziren. Hala ere, askok oraindik ez dute aurrerapen horien onura bere osotasunean jaso, izan ere, ATH-ELeren arabera, interna moduan diharduten langileen %97k ez baitute LGSa lortzen, nahiz eta astean 60 ordu baino gehiago lan egin, dagokien legezko atsedenik gabe.

105. ELarentzat ezinbestekoa da sektorea Langileen Estatutuan sartzea, baita langile hauen lan-baldintzak arautzeko erreferentziazko erregulazio esparru bat izatea ere, eta hori lortu daiteke sektoreetan indarrean dauden beste hitzarmen batzuk langile hauetara hedatuta, hala nola etxez etxeko laguntza zerbitzuko hitzarmena edo garbiketakoa. ELAk konpromisoa hartzen du sektoreko elkarte eta kolektiboekin batera pertsona horien bizitza eta lana hobetzeko borrokan jarraitzeko.

106. Egoera horri erantzuteko asmoz, egungo eredia eraldatuko duen zaintza sistema publiko, unibertsal, doako, kalitatezko eta erantzunkidearen beharra aldarrikatzen du ELAk. Proposamen horren helburua da pertsona guztiek behar duten arreta jasotzea, zaintza-lana modu bidezkoan banatzea eta lan-baldintza duinak ziurtatzea lan horiek egiten dituztenentzat. Norabide horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa da mobilizatzen jarraitzea eta egoera honen erantzule diren instituzioak –Iruñeko eta Gasteizko gobernuak, foru aldundiak eta Hego Euskal Herriko udalerrietako udalak– interpelatuko dituzten aliantzak ehuntzea beharrezkoa den aldaketa honekiko konpromisoa eskatuz.

2.7. PERTSONA GUZTIENTZAKO ETXEBIZITZA

107. Etxebizitza Euskal Herrian, oinarritzko premia eta eskubidetzat hartu beharrean, merkatuan errentagarritasun handia duen aktibo espekulatibo bihurtu da. Kapitalaren interesarekiko menpekotasunak, gobernuak kapitalaren zerbitzura dauden higiezinaren politikak garatzera eraman ditu, herritarren beharretara begirako etxebizitza politikak garatu beharrean. Higiezinaren sektoreko lobbyek (finantza erakundeak, eraikuntza enpresak, web-atariak...) eragin handia izan dute ikuspegi horretan, eta etxebizitza berriak etengabe eraikitzea eta merkatu librean higiezinak salerostera bideratu dituzte politikak.

108. Kapitalaren mende egotearen ondorioz, etxebizitzaren salerosketaren merkatuko prezioak 2008ko krisiaren aurreko higiezinaren burbuilaren antzeko mailetara iritsi dira. Alokairu

merkatuko egoera are kritikoagoa da: prezioak hilean 1.000 eta 1.200 euro artekoak dira, ahalegin ekonomiko neurrigabea eskatuz, bereziki gazteentzat edo diru-sarrera txikiak dituztenentzat. Egoera horren aurrean, gora egin du gela eta etxebizitza partekatuen alokairu-eskaerak, batez ere hirietan, gelako hilean 250 eta 1.200 euro bitarteko prezioekin.

109. Kalkuluen arabera, pertsonen edo bizikidetza unitateen %18-20k zailtasun handiak dituzte etxebizitza bat eskuratzeko. Arazo horrek eragin handiagoa du gazteengan, pertsona migratuengan eta emakumeengan. Egoera hori are larriagoa da 70.000 etxebizitza baino gehiago hutsik dauden testuinguru batean. Izan ere, etxebizitza horiek eskuragarri jarriko balira, alokairu eskaintza %37 eta %50 artean handituko litzateke. Bitartean, etxebizitza turistikoek kopuruak gora egiten jarraitzen du, batez ere Donostian eta Bilbon, etxebizitzaren beharraren gaineko presioa areagotuz.

110. Egoera horrek azaltzen du zergatik bihurtu den etxebizitza gure herriko langileria kezkatzen eta baldintzatzen duen arazo nagusietako bat. ELAk gero eta garrantzi handiagoa eman dio gai honi azken urteotan, eta datozen lau urteetan gai nagusi gisa jarri nahi dugu gure agendan.

111. Egoera honen aurrean, zenbait hiri eta herri tentsio handiko etxebizitza guneak izendatzen hasi dira, etxebizitza eskuratzeko bereziki zaila den lekuei erreferentzia eginez, espainiar estatuko etxebizitza legean ezarritakoaren arabera. Hala ere, ELAk araudi hori aztertu eta gutxiegitzat jo zuen, ez baitu alokairuen prezioak jaitea bermatzen; eta kasurik onenean, egungo prezio altuak izoztu baino ez baititu egingo. Horregatik, ELAk Iruñeko eta Gasteizko gobernuei etxebizitza arloan dituzten eskumenak erabat erabiltzeko eta prezioak mugatzeko neurri eraginkorrak ezartzeko eskatzen jarraituko du.

112. Era berean, ELAk gure parlamentuei eskatzen die, lege baten bidez behar duten pertsona guztiek alokairu sozialeko etxebizitza bat izateko eskubidea berma dezatela, eta dagozkien administrazioak helburu hori tresna juridiko eta baliabide material nahikoen bidez betetzera behartu ditzatela. ELAren ustez, neurri hori ez da prestazio ekonomikoekin ordezkatu behar, etxebizitza erosteko edo alokatzeko laguntzek prezioen igoera bultzatzen dutela erakutsi baitute, espekulatzen dutenei eta higiezin merkatuarekin aberasten direnei soilik mesede eginez.

113. Hauek dira ELAk etxebizitzaren arazoari aurre egiteko proposatzen dituen neurrietako batzuk, dagoeneko argitaratuta dauden eta datozen urteetan bultzatuko ditugun agirietan jasota daudenak:

- a) Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzea.
- b) Alokairu soziala sustatzea, jabetzaren aurrean alternatiba nagusi gisa.
- c) Euriborrrak hipoteka-kuoten berrikuntzan duen eragina mugatzea eta gazteenei hipotekak eskuratzeko eragozten dieten oztipoak kentzea.
- d) Hutsik dauden etxebizitza guztiak mobilizatu eta alokairura bideratzea.
- e) Arrazoi ekonomikoengatik ordaintzen ez den kasuetan eta bizileku alternatibarik ez daukaten etxegabeteak bertan behera uztea.
- f) Alokairu-prezioei muga eraginkorrak ezartzea.
- g) Turismo-erabilerako etxebizitzak kontrolatzea eta mugatzea.
- h) Pertsona migratu guztien egoera erregularizatzea.



- i) Inbertsio publikoa handitzea, gutxienez BPGaren %2ra arte, etxebizitza politika publikoetara bideratuz.
- j) Etxebizitza-politikak egiteko eta aplikatzeko gizartearen parte-hartze handiagoa bermatzea.

114. Etxebizitza izan da beti sindikatuaren jardunaren lehentasunetako bat. 2023an, kanpaina bat jarri genuen abian, gai hau lehen planoan jartzeko eta gure militantziarekin gai honen garrantziari buruzko eztabaida sakona partekatzeko. Hurrengo urteetan aurrera jarraituko dugu, eta orduan proposatutako eta momentu honetan garatzen eta sendotzen ari garen jarduera-ildo nagusietan sakonduko dugu.

115. Lan horretan, Alda Ipar Euskal Herrian egiten ari den lana hartzen dugu erreferentziatzat. Aldak, besteak beste, EH Bai, Se loger au pays-Herrian Bizi, Bâtir les solidarités-Elkartasunak eraiki eta Bizi! moduko erakundeekin batera etxebizitzaren arazoa lurraldeko eztabaida politiko eta sozialean gai nagusi gisa kokatzea lortu du.

116. Mobilizazio kolektiboak aurrerapauso nabarmenak egin ditu Ipar Euskal Herriko higiezin eta alokairuen merkatuaren erregulazioan. Lorpen horien artean nabarmentzekoak dira alokairuen prezioa mugatzen duen lege bat onartzea, Airbnb bezalako plataformen iragarkiak arautzea, eta Euskal Elkargoan etxebizitza turistikoak mugatzeko konpentsazio lege bat ezartzea. Gainera, legez kanpoko alokairuak birkalifikatu dituzte, Iruzurrezko Alokairuen aurkako Batzordea sortu dute eta legez kanpoko etxegabetzeak eragotzi dituzte. Etxebizitza sozialak trukatzeko poltsa bat sortzea ere bultzatu da. Aurrerapen handia da hori, 3.000 familiak baino gehiagok lurraldean alokairu sozialeko etxebizitza aldatzea eskatzen dutela kontuan hartuta.

117. Higiezinaren espekulazioak eta prekaritate ekonomikoak kaltetutako auzo xumeetan milaka pertsonarengana iristea lortu du Aldak, alokairuarekin, garbitasun eta osasun arazoekin, azpiegiturekin eta gehiegizko kobrantzekin lotutako arazoei aurre egiteko auzo kolektiboak antolatuz, jendearen eguneroko bizitzan hobekuntza nabarmenak lortuz. Gainera, ekintza kolektibo honek auzoak biziberritu ditu lokal komunitarioak berriro irekiz, herritarren ahalduntzea eta politizazioa sustatuz.

118. Aldaren lanarekin batera, Euskal Herrian maizterren elkarte eta sindikatu ezberdinak, baita etxebizitzaren defentsarako eta etxegabetzeen aurkako plataformak ere, egiten ari diren salaketa, aldarrikapen eta antolakuntza kolektibo lan garrantzitsuak ere azpimarratu nahi dugu. Haien konpromisoa funtsezkoa da dauden arazoak ikusarazteko eta pertsona guztientzat etxebizitza duina izateko eskubidearen alde borrokatzeko.

2.8. TRANTSIZIO EKOLOGIKOA HERRITAR XUMEENTZAT

119. Jada gainean dugun eta datozen urteetan larriagotze bidean den energia eta materialen krisiak erantzun ausarta eta koordinatua eskatzen du. Gaur egungo erregai fosiletan oinarrituriko energia-eredua jasanezina da ikuspuntu ekologiko, ekonomiko eta materialetik, eta kanpo-baliabideekiko duen mendekotasunak nabarmen areagotzen du gure zaugarritasuna. Trantsizio energetikoa ezinbestekoa da; aurrea hartu behar dugu, iraunkortasuna eta justizia lehenesten dituzten parametro ekologiko eta sozialen pean gauzatu dadin saiatzeko.

120. Hego Euskal Herriko ekonomia neurri handi batean energia fosilen menpe dago: EAEn kontsumitzen den energiaren %83,14 eta Nafarroan %79,24 iturri horietatik dator. Menpekotasun handi hori, energia berriztagarrien garapenean aurrerapen esanguratsurik ez egotearekin batera, trantsizio energetiko justu eta iraunkor baten beharraren aurrean

dagoen geldotasun politiko kezkarria azaleratzen du. Gainera, ekoizpen industrialean eta garraioan oinarrituriko eredu ekonomikoak, logika globalizatu eta estraktibista indartzen du, erregai fosilak eta lehengaiak inportatu, eraldatu eta ekoizpena esportatzen duelako. Eredu hau jasanezina da, bai ekologikoki, bai sozialki, eta erabateko eraldaketa eskatzen du epe luzera iraunkortasuna eta justizia bermatzeko.

121. Azken kongresutik hona, egoera honi erantzun integrala eman nahi dion marko bat garatu dugu bidezko trantsizio ekosozialerantz aurrera egiteko, izan ere, helburu horretan sakontzeari ezinbestekoa deritzogu. Proposamen horiek funtsezko neurrietan zentratzen dira, hala nola kontsumoaren murrizketan, energia sektorearen berrantolaketa, ekonomia-
ren birlokalizazioan, garraioaren eraldaketan eta oinarritzko zerbitzuen desmerkantiliza-
zioan.

122. Asmo handiko eta modu egokian finantzaturako neurriak behar dira erronka horiei aurre egiteko, trantsizio ekosoziala bultzatzeko, enplegua babesteko, ekonomia birlokali-
zatzeko eta enpresen eta sektore estrategikoen gaineko errotzea eta kontrola bermatzeko. Horregatik, ELAk lege-aldaketa sakonak eta aurrekontuetako diru-hornidura esanguratsuek babestutako konpromiso publikoa eskatzen ditu. COVID-19aren krisiaren testuinguruan sindikatuak egindako proposamenen logikari jarraituz, ELAk Trantsizio Ekosozialerako Funt-
sak sortzea eskatzen die Gasteizko eta Iruñeko gobernuari, 2.500 eta 800 milioi eurokoak, hurrenez hurren. Trantsizio ekosozialaren erronkei aurre egiteko, politika publiko sendoak eta aurrekontu-esleipen garrantzitsuak behar dira. Aurrekontuetako diru-hornidura hori na-
hikoa eta bidezkoa izan dadin, ezinbestekoa da diru-bilketa handituko duen zerga-erreforma sakona egitea, bereziki, errenta altuak, kapitalaren errentak eta enpresa-irabaziak zergapet-
zeko.

123. Neurri eta ekintza politiko orokor horiez gain, gure eguneroko ekintza sindikalean es-
kaera zehatzak txertatzeko erabakia hartu dugu, bidezko trantsizio ekosozialerantz aurrera
egiteko. Ildo horretan, gure negozioazio kolektiboko plataformetan plan espezifikoak sartuko
ditugu, gutxienez 250 enpresatan neurri zehatzak ezartzea eskatzen dutenak, ingurumene-
an duten eragina nabarmen murrizteko eta justizia ekologiko eta soziala sustatzeko. Hauek
dira bultzatuko ditugun proposamenetako batzuk:

- a) Enpresei informazioa eskatzea: berotegi-efektuko gas-isuriei buruzko azken bost urteetako datuak; hondakin mota, kantitatea eta tratamendua; energia fosilen, energia berriztagarrien garapena eta uraren kontsumoa; eta Ingurumen Baimen Integratua (IBI) eta horiek betetzeari buruzko urteko txostenak.
- b) Emisioak, hondakinen kudeaketa, energia fosilen erabilera, energia berriztagarriak eta ur-kontsumoa hobetzeko planak exijitzea, enpresen planak baloratzeko eta asmo handiagoko helburuak eskatzeko.
- c) Enpresan, industrian edo eskualdean mugikortasun-planak exijitzea, garraio kolektiboa erabiltzeko, joan-etorriak murrizteko, eta enpresek edo administrazio publikoek, garraio publikoa areagotuz gero, horren kostua beren gain hartzea.

124. ELAk erabaki du trantsizio ekologikoaren erronkari anbizioz eta langile klasearen interesak kontuan hartuta aurre egitea. Jakin badakigu trantsizio honek sektore eta enpresa ezberdinei modu desberdinean eragingo diela, enpleguan eragin zuzena izanik. Hori dela eta, ekoizpen-erlaketekin batera, aurrerago zehazten diren eta langileen bizi-baldintzak eta ongizatea arriskuan ez jartzea helburu duten ekoizpen-jardura eraldatzeko neurriak hartu behar dira.

125. Ekoizpen ereduaren eraldatzea ezinbestekoa da planetaren iraunkortasuna eta oreka ekologikoa bermatzeko, baita ekoizpen sistema behar sozialak asetzera bideratzeko ere.



Hori lortzeko, gobernuek politika ekonomiko eta industrialak zuzendu behar dute, etikoki zalantzan jar daitezkeen edo planetaren biziraupenerako eta iraunkortasunerako kaltegarriak diren jardueren ordez sozialki onuragarriak diren eta ingurumen-inpaktu txikiagoa duten beste batzuk sustatuz, betiere horietan lan egiten duten pertsonen bizi-baldintzei eta ongizateari eutsiz. Eraldaketa hori bultzatzeko, enpleguari eusteko, baita lanpostu berriak sortzeko ere, oinarritzko zerbitzu publikoak, zaintza lanak, energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea, agroekologia, arrantza iraunkorra, basoen kudeaketa ekologikoa, baliabide naturalen kudeaketa, garraio publikoaren garapena, tokiko merkataritza, ondasunen edo hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta kudeaketa sustatu behar dituzte, besteak beste, erakunde ezberdinek.

126. Beraz, ELArentzat ez dago bidezko trantsizio ekologikorik jendearentzat bizi-baldintza duinak bermatzen ez badira. Ildo horretan, sindikatuak eskatzen du jardueraren eraldaketek kontuan har ditzatela bai ekoizpen ereduen aldaketa, bai langileen ongizatea. Horrek esan nahi du gutxienez hiru aukera hauetako bat ziurtatu behar dela:

- a) Enpresaren ekoizpen-jarduera eraldatzea, plantilla osoa eta lan-baldintzak mantenduta.
- b) Langile guztiak behar bezala trebatu eta Euskal Herriko beste enpresa batean birkokatzeko prozesua.
- c) Diru-sarrera nahikoak bermatzea langile guztientzat.

127. Jarduerak eta enpresak eraldatzeko prozesu honetan, aukerak sor daitezke langileek haien jabetza eta kontrola bereganatzeko. Horri esker, ekoizpen-jarduerak mantendu edo eraldatu ahal izango lirakeke gizarte-onurari egiten dioten ekarpenaren arabera, kudeaketa demokratikoagoa eta behar kolektiboekin lerrotatuta.

128. Zeregin horrek gobernuen eta hainbat erakunde publikoren laguntza izan beharko luke, jarduerak modu kontrolatuan ixtea ahalbidetzeko, azpiegiturak eta ekoizpen-baliabideak mantentzea bermatzeko eta langileak enpresez jabetzea babesteko. Halaber, funtsezkoa da langileei beharrezko trebakuntza ematea eta gaitzea, eta, horrekin batera, sozialki onuragarriak diren ekoizpen-jarduera berriak abian jartzeko behar den bultzada ematea.

129. Ekonomiaren birlokalizazioan aurrera egin nahi dugu, kontrol soziala indartuz eta gizartearen ongizaterako funtsezkoak diren sektoreetan burujabetza maila handiagoak irabaziz.

2.9. SINDIKALISMO INKLUSIBOA, ARRAZAKERIARI AURRE EGITEKO

130. Kultur eta giza aniztasunak aberastu egiten gaitu pertsona, gizarte eta herrialde gisa, gure oraina eta etorkizuna kolektiboki eta modu kreatiboan eraikitzeko aukera ematen digu, ditugun erronka ezberdinei aurre eginez. Hala eta guztiz ere, pertsona eta kolektiboekiko desberdintasunak edo tratu diskriminatzaileak, politika inklusiborik ezarekin batera, injustizia eta segregazioa sortzeaz gain, arrazakeria, xenofobia eta gatazka sozialerako haztegia izan daitezke, elkarbizitza eta aniztasun aberasgarria galaraziz.

131. Hegoalde globaletik etorritako gero eta pertsona gehiago bizi dira Euskal Herrian, arrazoi ekonomikoek, gatazka armatuek, krisi klimatikoak edo giza eskubideen urraketek bultzatuta. Migratzea oinarritzko giza eskubidea da, baina "Europar Batasuneko migrazio eta asiloari buruzko Ituna" edo Atzerritarren Legea bezalako araudiek haren eskubidearen erabilera eta zirkulazio askea mugatzen dituzte eta pertsona asko prekaritate baldintzetan

bizitzera eta lan klandestinoak egitera kondenatzen dituzte, haien oinarritzko eskubideak urratuz.

132. Hego Euskal Herrian sei pertsonatik bat atzerritarra da. Hala ere, gure gizartearen parte izan arren, ez dituzte eskubide berak, ezta berdintasunezko tratua jasotzen ere, eta sarritan hainbat diskriminazio motari aurre egin behar izaten diote. Hori hainbat arlotan islatzen da: etxebizitza eskuratzean, enpleguan, hezkuntzan, oinarritzko zerbitzuetan, herritarren segurtasunean eta zirkulazio askean, besteak beste. Adibidez, etxerik gabeko pertsonen %80 atzerritarrak dira, gizarte-prestazioak jasotzeko oztopo handiagoak dituzte eta EAEn pobrezia-egoeran dauden pertsonen %60 migratzaileak dira.

133. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka gure sindikatuaren ardatz nagusia eta lehentasuna da. Konpromiso hori negoziazio kolektiboan txertatu dugu, eta migratutako eta arrazializatutako pertsonak biltzeko espazio espezifikoak sortzen hasiak gara, haien parte hartzea eta ikusgarritasuna sustatuz. Hala ere, bide horretan aurrera egiten jarraitu behar dugu. Eskubide berdintasuna ez da soilik helburu bat, baizik eta benetako gizarte justu eta ekitatibo bat eraikitzeko funtsezko behar bat. ELArentzat, klase borroka eta prekaritatearen aurkako borroka arrazakeriaren aurkako borrokarekin uztartuta daude, ulertuta soilik ikuspegi inklusibo batetik gainditu daitezkeela egiturazko ezberdintasunak.

134. Azaldutako guztia kontuan hartuta, hauek dira ELAren aldarrikapen nagusiak arrazakeriari aurre egiteko eta sindikalismo inklusiboago baterantz aurrera egiteko:

- a) Migratzeko eskubidea aitortzea eta Atzerritarren Legea indargabetzea. ELAk, EBren "migrazio eta asiloari buruzko ituna" atzera botatzea, korridore humanitarioak sortzea eta Frontex agentzia desagitea exijitzen du. Era berean, Atzeritarren Legea indargabetzeaz gain, egoera administratibo irregularrean dauden migratzaile guztiak berehala erregularizatzea eskatzen du, herrialdean egonaldi denbora edo egoera ekonomikoaren moduko baldintza murritzailerik gabe eta eskubide sozial, laboral eta sanitario guztiak eskuratuz.
- b) Diskriminaziorik gabeko ekitatea bermatzeko eskubide berriak aitortzea: hala nola, familia berriro ere elkartzeko eskubidea bermatzea eta tratu desberdina edo jatorriaren, hizkuntzaren, sinesmenen, ohituren edo maila sozioekonomikoaren arabera diskriminazioa saihesteko gizarte-politikak (etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarte-prestazioak, pentsioak) eta enplegu-politikak berrikusi eta ezartzea, erabateko integratzaile baliabideekin batera.
- c) Lan-arloan: lan-ikuskarien eta haien baliabideen kopurua nabarmen handitzea, irregulartasunak eta lan-esplotazioa antzemateko, eta neurriak ezartzea, jatorri atzerritarra duten pertsonen arteko soldata-arrakala arrazista eta prekaritatea ezabatzeke.
- d) Tituluaren homologazioa eta trebakuntza-baliabideak: tituluak homologatzeko tramite burokratikoak arintzea, irizpide murritztaileak ezabatzea, pertsona migratuentzat prestakuntza baliabideak ugaritzea eta egokitzea, eta euskara ikastea doan izatea.
- e) Migrazio-eskumen osoak EAerako eta Nafarroarako: bi erkidegoek migrazio- eta harrera-politika propioak diseina ditzaten ahalbidetzea, pertsona migratuen bizitza hobetzeko.



2.10. FAXISMOARI ETA MILITARISMOARI AURRE EGIN

135. ELAk bere kezka adierazten du krisi ekonomikoak, sozialak eta ordezkaritza politikoa-ren krisiak eragindako testuinguruan gorroto mezuak ugaritzen ari direlako eta konponbide autoritarioak hedatu direlako. Agertoki honetan, langile klasearen artean sektore eta kolekti-bo sozial espezifikokoak seinalatzen eta errudun egiten dituzten diskurtsoak zabaltzen ari dira, eta honek, zatiketa eta gatazka soziala larriagotzen du herritar xumeen artean, egoeraren benetako erantzuleak behar bezala seinalatu gabe.

136. Fenomeno hori hainbat herrialdetan hedatzen ari da, eta, Euskal Herrian eragin instituzionala oraingoz mugatuagoa bada ere, gure gizartean duen eragina handitzen ari da, erakundeak jarrera kontserbadoreagoetara eramanez. Aipatzekoa da, azken hauteskunde legegileetan, eskuin muturrak botoen herena inguru lortu zuela Ipar Euskal Herrian.

137. Botere ekonomiko eta politikoak krisiak behar eta baliatzen ditu bere irabazi marjinak ziurtatuko edo handituko dituzten doikuntza politikak ezartzeko, disidentzia kriminaliza-tuz eta diskurtso militaristak indartuz. Botere horrek ez du demokraziaren beharrik bere agendan aurrera egiteko; horren erakusle da indarkeria ekonomikora edo militarra jotzeko duen gaitasuna, bere interesen gertuko gobernuak inposatzeko. Latinoamerika, Afrika, Asia eta Europako adibideek agerian uzten dute praktika hori, Grezian Syrizarekin eta Espainian Podemosekin gertatu zen bezala. Ameriketako Estatu Batuetan, Kapitolioari egindako era-soak eta hauteskundeak ez irabazteko aukeraren aurrean Trumpek egindako gatazka zibi-lerako mehatxuek agerian uzten dute joera global horren larritasuna.

138. Agertoki horren aurrean determinazioz jokatu behar da, eta ez da gutxietsi behar faxismoaren eta militarismoaren gorakadak dakarren arriskua. ELAk borroka antifaxista-rekin duen konpromisoa berresten du, eskubide zibil eta politikoak defendatuz, eta gizarte inklusibo eta anitza sustatuz. Era berean, indarkeria mota oro arbuiatzen du, baina herriek autodefentsarako duten eskubidea babesten du, eta gaitzetsi egiten du indarkeria, esku hartze militarra edo gerra erabiltzea beste nazio edo komunitate batzuk menperatzeko tresna gisa.

139. ELAk beste erakunde batzuekin batera lan egingo du gorrotoari aurre egiteko, gezu-rrak eta albiste faltsuak gezurtatzeko, eta oinarritzko askatasun eta eskubideak babesteko. Faxismoari aurre egiteko modurik onena bizi-baldintza duinak, kalitatezko enpleguak, guz-tion eskura dauden zerbitzu publikoak eta hezkuntza sistema kritiko eta inklusiboa bermatzea da. Horrez gain, gizartearen parte hartzea, erakunde politiko eta sozial eraldatzaileretan militarizatzea, eta sare soziala indartuko duten sare komunitarioen sorrera sustatu behar dira.

140. ELAk gizartearen nahigabe eta ezinegona benetako erantzuleengana bideratzeko konpromisoa hartzen du, faxismoaren gorakada sustatzen duten arrazoiei aurre eginez. Horrek demokrazian sakontzea eskatzen du, aniztasuna eta inklusioa sustatzea, eta borroka bizi-baldintzen hobekuntzan zentratzea, baita langile klasearentzat benetako alternatibak eraikitzean ere.

2.11. BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA ETA DIGITALIZAZIO DEMOKRATIKOA HELBURU

141. Trantsizio digitalak oinarritzko azpiegiturak, hardwarea, softwarea, Internet, sareak eta datuen kudeaketa barne hartzen ditu, eta korporazio teknologiko pribatu handiek kontro-latzen dute hein handi batean. Kasu askotan, administrazio publikoek uko egin diote azpiegi-tura horiek kontrolatzeko duten ardurari, eta herritarren datuen kudeaketa eta biltegiratzea ere enpresa horien esku utzi dute. Adibide bereziki kezagarria da hezkuntza arlokoa:

Google eta Microsoft bezalako erraldoiek ikasleen datuen zati esanguratsu bat kudeatzen dute, eta ikastetxeek eta irakasleek erabiltzen dituzten hezkuntza tresnak kontrolatzen dituzte.

142. Korporazio transnazionalen eskuetan teknologia berriak kontrolik gabe erabiltzeak demokrazia eta pertsonen askatasuna gero eta gehiago mehatxatzen ditu; gainera, gizarte eta osasun arrisku larriak eragiten ditu, baita belaunaldi eta klase arrakala handitzea ere. Horregatik, beharrezkoa da egoera honi buelta ematea eta jendearen zerbitzura egongo den eta gure bizitzak hobetzen lagunduko duen digitalizazio demokratikoa sustatzea.

143. ELAren ustez, horretarako ezinbestekoa da burujabetza teknologikoa, administrazio publikoen inplikazioa, herritarren parte hartzea eta presio soziala berreskuratzea. Hauek dira sindikatuak digitalizazio demokratikoago baterantz bidea egiteko egin dituen proposamenetako batzuk:

- a) Korporazio teknologiko handien monopolioa haustea eta kode irekiko teknologia eta tresna ireki eta gardenak bultzatzea, software librea kasu.
- b) Azpiegitura teknologikoen eta telekomunikazio-azpiegituren kontrol publikoa berreskuratzea. Era berean, administrazio publikoak teknologia horiek garatu behar-ko lituzke, edo bere kontrolpean haien garapena sustatu, bereziki adimen artifizia-leko programak eta sare sozialak.
- c) Pertsonen pribatutasuna eta eskubideak babestea ingurune digitalean, eta on-dorioz, korporazio handiek administrazio publikoen eta herritarren datuak eta informazioa kudeatzea eragozte.
- d) Interneten neutraltasuna eta sarbide unibertsala, doakoa eta bidezkoa bermatzea; horrek berekin dakar teknologiara iristeko desberdintasun geografiko eta sozialak desagerraraztea.
- e) Teknologia eta tresna libreen erabilera egoki eta arduratsuan oinarritutako hez-kuntza sustatzea.
- f) Digitalizazioan gardentasuna, parte-hartzea eta kontrol demokratikoa bermatzea.
- g) Digitalizazioaren inpaktu ekologikoa eta ingurumen-inpaktua mugatzea eta mate-rial eta baliabide naturalen erabilera arautzea.

144. Interpelazio publiko horrez gain, sindikatuak barne funtzionamenduan honako neurri hauek hartzeko konpromisoa hartu du:

- a) Korporazio teknologiko handien kontrolpean ez dauden azpiegitura, teknologia eta tresna libreen erabilera areagotzea.
- b) Militantziaren artean pedagogia egitea, teknologia libre eta komunitarioen erabi-lera ezagutu eta bultzatzeko.
- c) Digitalizazio demokratikoago baten eta burujabetza teknologikoaren alde borro-katzen duten erakunde eta kolektiboekin aliantzak ehuntzen jarraitzea.



2.12. IRRIKATZEN DUGUN GIZARTEA ERAIKI

145. Kapitalismoaren erasoaldia, gobernuen konplizitatearekin, gure bizitzako gero eta alderdi gehiago pribatizatu eta merkantilizatzeko prozesua azkartzen ari da. Publikoak izandako ondasun eta zerbitzuak –energia, telekomunikazioak, finantzak, garraioa edo ura– iruditeria kolektibotik desagertzen ari dira oinarritzko eskubide gisa. Gainera, bizitzarako eta gizarte-kohesiorako funtsezko sektoreak –osasuna, hezkuntza, zaintzak, elikadura, etxebizitza, kultura eta aisia, besteak beste– pribatizatu edo negozio-iturri bihurtzen ari dira, haien sarbide unibertsala eta bidezkoa ahulduz.

146. Ponentzia honetan azaltzen den bezala, ELAk konpromiso sendoa du ondasun eta zerbitzu publikoen defentsan, eta esparru berriak kontrol publiko eta demokratikoaren pean sartzeko borrokatuko du. Hori da gure borroka nagusia, eta konpromisoa hartzen dugu gobernuak eta parlamentuak interpelatzeko eta presioa egiteko, helburu hori errealitate bihurtu dadin.

147. Hala ere, dagoeneko badira kapitalismoak bizitzaren funtsezko alderdietan inposatzen duen irabazi-gosez gidatutako eredu pribatibo eta baztertzailaren aurrean gizarte zibil antolatua alternatibak eraikitzen ari den esparruak. Alternatiba horiek komunitatearen artikulazioan, interkooperazioan, ondasun eta ekoizpen-bitartekoen jabetza kolektiboan, eta lan autogestionatuan edota irabazi-asmorik gabeko jardueretan oinarritzen dira. Sektore garrantzitsuetan sortzen ari diren alternatibak dira, hala nola lurraren jabetzan, nekazaritzan, elikaduran, energian, etxebizitzan, telekomunikazioetan, teknologia berrietan, softwarean, komunikazioan eta sare sozialetan. ELAk txalotu eta bultzatu nahi dituen ekimenak dira, izan ere, kasu gehienetan, sindikatuak dituen helburu berberetara bideratzen dira.

148. Bide honetan, ELA eta Manu Robles-Arangiz Fundazioa bazkide dira Fiare, Goiener edo Izarkom bezalako ekimenetan; eta kide izateaz gain Koop57, Olatukoop edo Biziola moduko proiektuetan parte hartzen dute. Ipar Euskal Herrian Euskal Herriko Laborantza Ganbara, Bizi!, Euskoa, I-Ener, Enargia eta Aldaren gisako ekimen garrantzitsuak lagundu ditugu, eredu ekonomiko alternatibo eta iraunkorrekin dugun konpromisoa sendotuz.

149. ELAren ustez, ekimen eta proiektu horiek nabarmen laguntzen dute pertsonen bizia hobetzen, komunitatea eraikitzen, sareak ehuntzen eta kapitalismoak bahituriko espazio eta denborak askatzen. Gainera, funtsezkoak dira gizarte demokratizatzeko, faxismoari aurre egiteko, iraunkortasun ekologikoa sustatzeko, ekonomia birlokalizatzeko, gure kultura eta hizkuntza defendatzeko, herria eraikitzeko eta burujabetza irabazteko. Alde horretatik, indar metaketaren ezinbesteko iturri dira egungo ofentsiba kapitalistari buelta emateko eta estrategia subiranista garatzeko.

3 >>>

BURUJABETZA SOZIALA ERAIKI, GUZTIOK
GUZTIA GUZTIONTZAT ERABAKIZ

150. Duela lau urte, Kongresuak erabaki estrategiko garrantzitsu bat hartu zuen: bide independentistaren alde egitea, euskal errepublika baten alde, alegia. Erabaki horrek indartu egin zuen ELAren apustua gure herriaren burujabetza lortzeko. Hori da, hain zuzen ere, ponentzia honen abiapuntua. ELAk argi du Euskal Herriaren etorkizuna ezin dela Espainiar eta Frantziar Estatuaren menpe eraiki, horregatik, esparru guztietan burujabetza eskuratzeko borrorak zentraltasuna hartu behar duela uste du. ELAk Euskal Herriaren independentziarekiko bere konpromisoa berresten du eta langile klasearen eta gure herriaren askatasuna helburu, burujabetzarako borrokan eragile aktibo izaten jarraituko du.

3.1. ESPAINIAR ESTATUA BERLEGITIMAZIO PROZESUAN

151. Espainiar Estatua berlegitimazio prozesuan dago. 2008ko krisi ekonomikoaren kudeaketa neoliberalak eta ondorengo gertaera politikoek eragindako dimentsio ezberdinetako krisi sakona bideratzen ari dela dirudi.

152. Rajoyren gobernuak krisi ekonomiko eta sozialaren kudeaketa neoliberal gogorra egin zuen, eta horrek lan eta bizi-baldintzen eta eskubide sozialen okertze nabarmena ekarri zuen. Aldi berean, ustelkeria kasu ugari, monarkiaren krisiak eta politika instituzionalaren zein ordezkaritza parlamentarioaren aldaketa sakonek Estatuaren egonkortasuna eta zilegitasuna kolokan jarri zuten. Azken urteotan, ordea, Sanchezen gobernuak, nahiz eta politika neoliberalak mantendu eta zenbait eskubide murriztu, beste eskubide sozial batzuk ere aitortu ditu. Horrek, urteetako datu makroekonomiko onekin eta enpleguaren errekupe-ratioarekin batera, Estatuaren berlegitimazio prozesua bultzatu du. Gainera, abdikazioaren ondoren, monarkia sendotuagoa ageri da, eta nabaria da, berriz ere, bipartidismoa indartzen ari dela espainiar estatuan.

153. Katalunian, independentismoaren aurkako "politika gogor" baten ondoren –elkar-rrizketa eza, errepresioa, prozesu judizialak, erbesteratzeak eta 155. artikulua aplikazioa barne– Espainiar gobernuak elkarritzeta minimo bat ezartzea eta amnistia-lege bat onartu du. Espainiako gobernuak independentismoak hauteskundeetan izan duen beherakada bere politikaren arrakastatzat hartzen du, nahiz eta amnistia-legeak erabat berrikusten dituen botere judizial eta legegileak Kataluniarekiko harturiko neurriak. Frankismoaren oinordeko diren sektore politiko, mediatiko eta judizialek, ordea, desleialtasun gisa ikusten dituzte gobernuaren erabaki horiek. Kontuan izan, erregeak berak, Estatuko botere guztiak Katalu-niako prozesuaren aurka aritzera deitu zituela 2017ko urriaren 3an.

154. Sanchezen gobernuak espainiar Estatuaren gobernagarritasunerako alderdi abertzale progresista zein kontserbadoreen eta ezkerreko beste alderdien babesa lortu du. Hala ere, bloke hori gehiago dago lotuta eskuin muturrekiko beldurragatik eta kalterik txikiena-ren logikagatik, adosturiko programa bateratu batengatik baino. Eta logika horretan harra-



patuta, “78ko erregimena” gainditzeko bidean tentsio eta interpelazio gehigarriak gabe, epe motzean aldaketak eragiteko ia tarterik gabe eta epe luzearako bide itsuan daude Sanchezi babesak ematen dioten alderdiak. Ondorioz, Estatu berrosatzeko eta indartzeko prozesu hori frankistek ezarritako trantsizioaren oinarriak berrikusi gabe gauzatzen ari da, eta ez dago memoria, monarkia edota nazio aniztasunaren inguruko eztabaida politikorik. Izan ere, Sanchezen “berrikuntza” demokratikorako agendak ez baitu ezbaian jartzen frankistek ezarritako marko politikoa. Bere agenda, diskurtso politiko toxikoa, erakundeen deslegitimazioa, komunikabideen desinformazio estrategia eta bere kontra joateko botere judizialaren erabilera kritikatzera mugatzen da, Estatuaren defizit demokratiko nagusiak hauek izango balira bezala.

155. Hau honela, Euskal Herrian autogobernuaren higadurak bere horretan jarraitzen du, eta zenbait arlotan, areagotu egin da. Higadura horren adierazpenik larrienetarikoa bat, euskararen estatus juridiko eta politikoa murrizten duten epai judizialetan ikusten da, funtzio publikora iristeko hizkuntza-eskakizunak gutxitzean. Eskuduntzen etengabeko mugatze honek adierazten du alderdi sozialistak alderdi abertzaleekin espainiar Estatuaren gobernagarritasunerako egindako aliantzak ez duela balio izan autogobernuaren higadura gelditzea, eta are gutxiago kendutako botere politikoak berreskuratzeko.

156. Egun PP eta PSOEren arteko konfrontazioa agerikoa bada ere, ikusteke dago etorkizunera begira zer gertatuko den. “78ko erregimenaren” oinarriak babesteko elkarbanatzen duten konpromisoak, botere Judizialaren Kontseilua berritzeko akordioak edo adin txikiko pertsona migratuen harrera adosteko ahaleginek zalantzarako tartea uzten dute. Kataluniako alderdiekin adosturiko akordioak ez betetzeak, Podemos eta Sumarren indar galerak eta Voxek PPrekin zituen aliantza autonomikoak hautsi izanak ere airean uzten ditu etorkizuneko akordioak eta bipartidismoa indartzeko aukera. Balizko testuinguru honek are zailago bihurtuko luke “78ko erregimenaren” berrikuspenik txikiena ere.

157. Euskal alderdi abertzaleak gobernagarritasun-blokean egotea apenas ari da eragiten aldaketa politiko esanguratsurik Euskal Herriarentzat autogobernuaren ikuspuntutik, euskal hitzarmenek estatukoaren aurrean lehentasuna izateko akordioaren salbuespenarekin. Gatazka politikoaren muinari buruzko eztabaidan ere atzera egin dugu. Gure ustez, hainbat faktorek eragin dute hori: eskuin muturrarekiko beldurraren aurrean, Sanchezen gobernuari ia baldintzarik gabe emandako babesak eta interpelazio gaitasun eskasak; Kataluniako prozesuak izan duen kostu politikoa ikusita, aldebakarrez burujabetzarantz aurrera egiteko beldurrak; eta Estatuaren errepresioaren ondorioei konponbidea emateko beharrak. Hauek gain, badaude, aurrerago azalduko ditugun, Euskal Herriko egoerak baldintzaturiko faktoreak ere.

3.2. KRISIA FRANTZIAR ESTATUAN

158. Frantziar Estatuaren politika, gizarte eta lurralde krisi sakon batean murgilduta dago. Joan den ekainean Macronek Asanblea Nazionala desagitea erabaki zuen, hauteskunde legegile aurreratuak deituz, eta horrek ezegonkortasun egoera areagotu egin du. Ezkerreko blokeak (NFP) bigarren itzulira irabazi bazuen ere, ez zuen gehiengo parlamentarioa lortu eta guztiz zatituta geratu da. Bestalde, alderdi bozkatuena Le Penen RN izan zen, botoen herena erraz gaindituz. Egoera horrek gobernu berri egonkor bat osatzea eta legebiltzarrean legeak onartzea asko zailtzen du, eskuin muturrak hurrengo hauteskunde presidentzialak irabazteko beldurra piztuz.

159. Ondorengo gertaerek larriagotu egin dute krisia. 2024ko abenduan, Asanblea Nazionalak onarturiko zentsura-mozioak eta Michel Barnier lehen ministroa kargutik kendu izanak, Macron bera jarri du krisi politikoaren erdigunean. Legebiltzarra desegin, hauteskun-

deak deitu eta bozkatuena izan den ezkerreko koalizioak gidatutako gobernu aurrerakoia onartzeari uko egin izanak ziurgabetasuna areagotu du. Austeritate-politikek, zerbitzu publikoen murrizketek eta desoreken gorakadak biztanleriaren sektore zabalen frustrazioa elikatu dute, eta horietako askok eskuin muturrean jarri dituzte itxaropenak. Immigrazioa eta segurtasuna ardatz hartuta, RN sustatzen ari den beldurrean oinarrituriko narratibak gizartearen errota dira. Eta gainerako alderdiek proposamen politiko sinesgarriak ez ma-haigaineratzeak egoera are gehiago larriagotzen du, ez baitira gai gizartearen nahigabea bideratzeko.

160. Frantziako lurralde-eredua ere krisian dago, eta tentsio handiak daude Korsikan eta Kaledonia Berrian. Macronen Gobernuak lurralde-eskaera horiei modu demokratikoan eta eraginkortasunez heltzeko duen ezintasunak areagotu egin du Estatuaren legimitate-krisia. Berezi azpimarratzekoa da Ipar Euskal Herriko egoera, azken hauteskunde legegileetan bi diputatu sozialista eta abertzale batek lortu baitzituzten jokoan zeuden Ipar Euskal Herriko hiru eserlekuak. Lehen aldia da ezkerreko diputatu abertzale batek Asanblea Nazionean parte hartzen duena. Eraitza horrek agerian uzten du frantziar estatuko ezkerrek gehiago esanguratsuak lortu ahal izango dituela soilik mugimendu abertzale aurrerakoiarekin bat egiten badu, eta horrek dinamika berriak sor ditzake Ipar Euskal Herriko aliantza politiko-etan. Edozein kasutan, oso kontuan hartzekoa da, gurean, Le Penen eskuin muturrak botoen %25 lortu izana.

3.3. GATAZKA POLITIKOAK ETA ZAPALKUNTZAK BERE HORRETAN JARRAITZEN DU

161. Nazio auziari dagokionez, ponentzia honetan funtsezkoena iruditzen zaiguna nabarmendu nahi dugu: Euskal Herriaren eta Espainiar eta Frantziar Estatuaren zapalkuntzaren arteko gatazka politiko historikoak bere horretan jarraitzen du, eta gatazka horren konponbidea herriaren borondatea errespetatzean datza, modu demokratiko eta baketsuan.

162. Zapalkuntza hori hainbat modutan adierazten da. Hego Euskal Herrian, frankismoaren neurri egindako trantsizioak ezarritako "78ko erregimenaren" oinarriek bere horretan jarraitzen dute. Inposaturiko monarkiak bere horretan darrai, autodeterminaziorako dugun eskubidea ukatzen zaigu eta espainiar Estatuako erakundeek benetako berrikuntzarik egin gabe jarraitzen dute (botere judiziala, segurtasun-indarrak, inteligentzia-zerbitzuak...). Erregimen hori eusten dutenen arabera, "prozesu autonomikoak" eragindako deszentralizazioa urrunegi joan zen, eta horrek justifikatzen ditu ondorengo autonomien harmonizazio, higadura eta huste prozesuak.

163. Sindikalismoan ere defizit demokratikoa nabarmena da. Nahiz eta sindikalismo abertzaleak hamarkadetan zehar gehiago eta legitimazio eztabaidaekin lortu izan dituen, euskal sindikatuok euskal langileria ordezkatzeko dugun gaitasuna eta zilegitasuna ukatua izan zaigu. Horren adibide da, PSOE, CC.OO., UGT eta Espainiako patronalaren adostasunez, 2010 geroztik hitzarmenak bere osotasunean Euskal Herrian negoziatu eta adosteko eskubidea ukatu izana. Urteetako gure lan, mobilizazio eta presioei esker, 2024ko ekainean Diputatuen Kongresuak egoerari buelta ematen zion dekretua onartu bazuen ere, eduki hobek dituzten autonomia-erkidegoko hitzarmenei estatuko hitzarmenen aurrean lehen-tasuna emanez, egoerak menpekotasunekoa izaten jarraitzen du eta agerian uzten du gure marko juridikoaren ahulezia. Izan ere, bestelako aritmetika bat duen Espainiako parlamentu batek, berriro ere legea alda dezake, eskubidea urratuz, patronal eta sindikatu espainiarrek eskatzen dutenari men eginez.

164. Nazio-zapalkuntza kulturaren arloan ere islatzen da, batez ere hizkuntzaren esparruan, non erasoak etengabeak diren. Gure instituzioek, oraindik ere, ez dituzte euskararen normalizaziorako beharrezkoak diren politikak ezartzen. Honi gehitzen zaio, azken oldarraldi



judizialak erakutsi digun moduan, edozein epailek baliogabetu ditzakeela lege ezarritako funtzio publikoan sartzeko hizkuntza-eskakizunak edo instituzioetan euskara erabiltzeko neurriak. Berez zaila bada Espainia eta Frantzia moduko potentzia kulturalen artean bizi-rautea, euskararen aldeko politika proaktiborik gabe eta zapalkuntza hauei aurre egin gabe, gure funtsezko eskubideak etengabe eta erabat urratzen dira, euskaldunak marjinaziora kondenatuz, euskal herritar bat bere herrialdean bere hizkuntzan hitz egin eta ulertua izatea galaraziz.

165. Arlo sozioekonomikoan gabezia erabakigarriak ditugu gure orainari eta etorkizunari behar bezala heltzeko. Gai soziolaboralean eskumenak falta zaizkigu, hala nola lan-legerian, negozio kolektiboan, gizarte-segurantzaren eta prestazio sozialetan, baita sektore estrategikoetan ere, hala nola finantzetan, telekomunikazioetan edota energian. Gainera, ustez, aurrekontuak “egonkortzeko” aitzakiarekin inposaturiko lege murriztaileak eta ustez bage-nuen autogobernu-esparruarekin talka egiten duten sententziek gure autogobernua erabat mugatzen dute. Gure sektore publikoa ere ezin dugu gure behar eta nahien baitan antolatu, soldadak, plantillak eta berritze-tasak barne. Estatuko legediak eta hartzen diren neurriek gure herriko udalen autonomia ere guztiz baldintzatzen dute.

166. Giza eskubideak ere zapaltzen ditu nazio menpekotasunak, batez ere memoria historikoari eta Estatu indarkeriaren biktimei dagokionean, baita euskal presoen egoeran ere. Memoria historikoaren eta biktimen agendetan aurrerapenik ez izatea ez da iraganari buruzko desadostasunen ondorioa bakarrik. Espainiar Estatuak, etorkizuna jokoan dagoela jabetuta, ahanzturaren eremuan utzi nahi du bere nagusitasun politikoa eta zilegitasuna ahaldu leza-keen errealitate bat. Ildo honetan, ELArentzat mingarria da eta hanka sartze politiko larria, PSN, EH Bildu eta Geroa Baik Iruñeko “Erorien monumentua” eraitsi beharrean, memoriaren elkarrekin eta biktimen senitartekoek eskatu bezala, eraikina zutik mantendu eta esanahi berria emateko akordiora iritsi izana.

3.4. EUSKAL INSTITUZIOEN ERANTZUN AHULA

167. Espainiako gobernuak, bai PPren esku egon denean baita PSOEren gidaritzapean, eskura izan dituen baliabide guztiak erabili ditu Euskal Herriaren autogobernu ahalmena murrizteko. Hau horrela izanik ere, eta eskuduntzak ukatu, hustu eta higatzeko Estatuaren ahalegina eta emaitzak agerikoak izan arren, euskal erakundeek eta alderdien erantzuna ahula eta ez nahikoa izan da.

168. EAEn, Iñigo Urkullu lehendakariak bere ibilbide politiko osoan zehar defendatu du Espainiar Gobernuarekin alde biko harremana izateko aukera, nahiz eta gertaerek eta errealitateak etengabe kontrakoa adierazi. Eusko Jaurlaritzak autogobernuaren higaduraren sakontasunari buruzko ikerketa bikaina bultzatu zuen, IVA Pek argitaraturiko “Higadura isila” liburuan jasoa, baina bertan jasotakoaren larritasunak ez du neurriko erantzunik izan gobernuaren aldetik. Eusko Jaurlaritzaren praktika politikoan higaduraren larritasuna lausotuta geratzen da. Eztabaida, gehienetan, 46 urte ondoren transferitu gabeko eskumenetan amaitzen da, oinarrian dagoen gatazka eta arazo politikoari heldu gabe. Euskal erakundeak espainiar Estatuaren zapalkuntza eta eskakizunetara egokitu dira, eta harreman normalizatuak dituzte autogobernua suntsitu eta birzentralizazioa bultzatzen duten estatuko indar politikoekin.

169. Logika honen barruan, Urkulluk proposatu zuen estatus politikoaren berritzean adosten diren aldagetek Gernikako Estatutuak lortu zuen baino babes handiagoa izan behar dutela, eta aldagata horiek Madrilek onartu behar dituela. Hori gutxi balitz, gainera, autogobernua berritzeko defendatu duen prozesuak, elkarriketa, negoziazioa, akordioa eta berrespena aurreikusten ditu, hau da, herritarren parte-hartzea prozesuaren amaieran soilik aurreikusten du, alderdi politiko eta gobernuetako buruek adostutako akordio bat berrestera

mugatuz eta herritarrak eta gizarte zibil antolatua eztabaida-prozesuetan parte hartzera bultzatu gabe. Baina PSE-EEK, behin eta berrir, argi adierazi du eztabaida eta akordioa estatutuaren egokitzapen soilera mugatuko duela. PSE-EEren azken kongresuan, bere idazkari nagusiak adierazi zuen erabakitze eskubideari buruzko eztabaida estatutuaren inguruko akordiotik kanpo eta hau egin ondoren soilik planteatu daitekeela, agerian utziz euskal gizartearen gehiengoaren nahiari buruz duen jarrera.

170. ELArentzat onartezina da Lehendakariak eta EAJk Gasteizko legebiltzarrean alderdi abertzaleek duten gehiengo zabala kontuan izanda, erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida politikoa ekidin edo mugatu nahi duten alderdiei beto eskubidea ematea.

171. Nafarroan, egoera oso antzekoa da. Nahiz eta Legebiltzarrak onarturiko lege ugari, eduki sozial esanguratsuko legeak bitarteko, espainiar Estatuak errekurritu dituen eskumen-inbasioa argudiatuta, ez da erantzun irmorik izan. Nafarroako Parlamentuak Foru Hobekuntzarako Lege Organikoa berrikusi eta eguneratzeko batzorde bat eratu badu ere, PSN, UPN eta PPK argi utzi dute Nafarroako estatus politikoan edozein aldaketa blokeatzeko asmoa dutela. PSN, Geroa Bai eta Podemosen arteko gobernu-akordioak ez du zantalzan jartzen Foru Hobekuntzarako Legearen markoa eta ez du aurreikusten herritarrei bere estatus politikoaz galdetzea, nahiz eta Lege Organiko honen inguruan sekula ez den galdeketa egin.

172. ELAk zintzotasuna eskatzen du EAEn eta Nafarroan autogobernuarekin eta gure eskumen-esparruekin gertatzen denaren diagnostikoan. Funtsezkoa da herritarrek jakitea Gernikako Estatutua eta Foru Hobekuntza deseginda daudela, eta, ondorioz, gure gobernuak, gehienetan, espainiar Estatuko botere bakarrak erabakitzen duena aplikatzen duen leihatila administratibo gisa funtzionatzen dutela. Argi eta garbi azaldu behar da egoera zein den, horrela bakarrik sor baitaiteke jendarte kontziente bat eta berau mugi arazi olatu subiranista berri baterako beharrezkoa den indarra sortu ahal izateko.

173. Honekin batera, ezinbestekoa da aldebikotasunaren fikzioarekin amaitzea. Gaur egun, ez dago zantzurik esateko espainiar Estatua edo PSOE prest daudenik nazio aniztasunari buruzko eztabaida bati ekiteko. Are gutxiago eskuina, logikoa denez. Horregatik, bere burua subiranistatzat jotzen duen erakunde orok norantz jo nahi duen argitzeko gai izan beharko luke, norabide argirik eza besterik ezkututzen ez duten diskurtso anbiguoak saihestuz. Ezinbestekoa da indar politiko bakoitzak bere helburuak eta konpromisoak argi eta garbi adieraztea, burujabetza maila handiagoa lortzeko bidean aurrera egiteko.

3.5. MUGIMENDU SUBIRANISTAREN ZAILTASUNAK ETA ESTRATEGIA FALTA

174. Mugimendu subiranistaren defizit handienetako bat estrategia definitzeko zailtasuna da, bereziki Espainiar Estatuarekiko harremanetan aldebakartasuna eta aldebikotasuna ulertzeko garaian. ELAren ustez, Kataluniako 2017ko urriaren 1eko erreferendumaren eta Ibarretxe Lehendakariak sustatutako estatus politiko berriaren eztabaidari Espainiako Parlamentuak emandako ezezkoaren argitan hausnartu beharreko gaia da.

175. Gure ustez, nazio auziak, modurik egokienean, aldebikotasunez konpondu beharko lirateke, elkarriketa eta akordio bidez eta herritarrei galdetuz. Baina Kataluniako prozesuak bi gauza agerian utzi zituen: batetik, aurrean dugun estatua bortitza dela, elkarriketa ukatzen duela eta, beraz, aldebakartasuna besterik ez zaigula geratzen; eta, bestetik, nahiz eta lan handia eta mobilizazio jendetsuak egin, indar-harremanak aurkakoa izaten jarraitzen duela.

176. Prozesu errepresiboak eragin handia izan du espainiar estatuko erakunde subiranisten oinarri sozialean. Jendeak, arrazoi osoz, galdetzen du: "Katalunian, egindako guztiarekin, posible izan ez bazen... nola izango da hemen posible?". Milaka militanteren zentzuz beteriko



iritzia ezin dugu gutxietsi. Guztiz bestela, gehiengora iritsi eta jendarte aktibatu nahi badugu, egiten ditugun proposamenak errealdismo handienetik egitera behartuta gaude.

177. Ez dakigu espainiar Estatua noizbait gai izango den bere baitako gatazka nazionalak modu demokratikoan konpontzeko. Egoera honen aurrean guk aldebakartasunez ala aldebikotasunez jokatu beharko genukeen eztabaidaren inguruan, gure azken Kongresuan adierazitakoa azpimarratzen dugu berriro: "Geratzen zaigun bide bakarra da alde bakarreko indar-metaketari ekitea, jakinik gaur ez daukagula nahikoa indar Estatuarekin hausteko [...] Aldebakartasuna ez da gure nahia, baizik eta geratzen zaigun abiapuntu errealista eta egingarri bakarra".

178. Oraindik ez gara gai izan estrategia berri bat artikulatzeko. Gure sindikatuak, bakarrik, ezin du definitu. Hala ere, abiapuntu errealista bat ezartzen lagundu beharko diguten elementu batzuk badaudela uste dugu: diagnostikoarekin zintzoak izatea; aldebikotasunaren fikzioarekin amaitzea eta argi azaltzea, eragile bakoitzak nora joan nahi duen.

179. Hausnarketa honetan, kontuan izan behar dugu EAJk azken hamarkadan eman duen aldaketa. 2005ean, PSOEren aurkako bozengatik, Espainiako Kongresuak Gasteizko Legebiltzarrak onartutako estatutu-proiektua eztabaidatzeari uko egin zion. Horrez gain, 2009an, PP eta PSOEek adosturiko Alderdien Legearen baitan ezarritako Batasuna eta beste hainbat erakunderen ilegalizazioaren testuinguruan, PSE-EEk PPrekin gobernua osatu eta EAJ lehendakaritzatik bota zuen. Hala ere, 2013an Urkulluk Alderdi Sozialistarekin aliantza berreskuratu zuen, Estatuaren gobernagarritasunerako egonkortasuna bilatuz, eta autogobernuaren inguruko eztabaidak hurrengo legegintzaldietara atzeratuz. Orain zer gertatuko den ikusteko dago.

3.6. BURUJABETZA SOZIALA INDARTU

180. Erakunde abertzale gisa dugun lehen konpromiso nazionala Euskal Herriko langile klasearen defentsa eta burujabetzarako tresna den sindikatua hau etengabe indartzea da. 1976ko Printzipioen Adierazpenean jasotzen den bezala, "ELAk, Euskal Herriaren zapalkuntzaz eta langileen esplotazioaz jabeturik, Euskal Herriaren etorkizun askearen egile nagusi gisa, beharrezkotzat jotzen du langileak batzea, erantzukizun hori beren gain hartzea eta euskal langile klaseak Euskal Herrirako egindako politika sustatzea". Konpromiso horrek berekin dakar, azken Kongresuan zehaztu genuen bezala, eraldaketa sozial, ekologiko, feminista, antirrazista eta demokratikoaren aldeko apustu argia egitea, mugadun planeta batean bizitza duina bermatzeko aukera bideragarri bakarra baita.

181. ELA sindikatu abertzalea eta erakunde burujabea da, eta bere helburua langile klasearen mesedetara egingo den politika sustatzea da, herritar xumeen behar eta nahiei erantzunez. Horixe da ELAk bere konpromiso nazionala neurtzeko erabiltzen duen lehen irizpidea, nahiz eta zenbait eragile politikok uste izan sindikatua nazio eraikuntzarako traba izan daitekeela edo bigarren mailako eragile dela. Sindikatu izatea da abertzale izateko gure modua: ez gehiago, ez gutxiago.

182. Gure ustez, askapen prozesuetako balioak eta borrokak ez dira neutroak eta, neurri handi batean, etorkizuneko egoerak ezaugarritzen dituzte. Horregatik, funtsezkoa da mugimendu sozial eta sindikalak bere ahalegin guztiak bideratzea ordezkatzeko dituen interesen defentsan, batez ere balizko aldaketa politiko esanguratsuen garaian. Ezin zaio eskatu gizarte zibilari, ezta justizia soziala defendatzen duten erakundeei ere, beren aldarrikapenak alde batera uzteko edo erlatibizatzeke, burujabetza nazionalaren izenean.

183. Ziur gaude burujabetzak gehiengo sozial baten atxikimendua irabaziko duela, gizarte-politika bidezkoagoen aldeko mobilizazio iraunkorra sustatzeko gai bada, eta erakundeak gizatzen dituztenak gizartearen behar eta asmo sozialei erantzuteko gai badira. Aurrez ere aipatu dugu gizarte gaien garrantzia eskuin muturrak Frantzian izan duen gorakada eta Europa osoan izaten ari den hedapena azaltzerako orduan. ELArentzat burujabetza soziala da bide justu bakarra, eta gehiengo sozialak burujabetza proiektu nazional batera lotu ditzakeen bide bakarra. Abertzaletasuna berdintasun, elkartasun eta justizia sozial eta klimatikoaren balioekin identifikatzea da gure apustu politikoaren indargune nagusia eta faxismoaren aurkako txertorik eraginkorra.

184. ELAk borrokan jarraituko du politika publikoak gehiengo sozialen zerbitzura jar daitezen, gehiengo horiek prekarizazio-politiken eta eskubideen murrizketen eraginpean baitaude. Ezkerreko indar politikoei agenda sozialari lehentasuna eman diezaioten eskatzen jarraituko diegu, agenda subiranistarako funtsezko oinarri gisa. Premiazkoa da eskuineko indarrek boterean daudenean ezartzen dituzten murrizketekin amaitzea, eta ez konformatzea murrizketak ez zabaltzearekin. Helburu horiekin aliantzak eta gehiengo sindikalak sortzea ere premiazkoa da. Eskuineko indarrak kritikatzeko ez da nahikoa: eskuinaren politikak aldatu behar dira. Ezkerra desagertzen den lekuetan, eskuin muturra agertzen da.

3.7. EUSKARAREKIN KONPROMETITUAK

185. Euskararekiko dugun konpromisoa irmoa eta funtsezkoa da justizia sozialaren eta burujabetza nazionalaren aldeko borrokan. Nazio zapalkuntza argi eta garbi agertzen da kulturaren eta hizkuntzaren eremuan. Euskarak, Euskal Herriko berezko hizkuntza eta gure nortasunaren elementu nagusia izan arren, asimilazio prozesu bati egiten dio aurre eta euskaldun askori beren hizkuntzan bizitzea eta lan egitea eragozten zaie. Euskal lurralde gehienetan, ingurune naturala erdalduna da. Egoerarik larriena, ziurrenik, Nafarroa hegoaldean eta Ipar Euskal Herrian bizi dugu. Errealitate horrek hizkuntza-eskubideekin konpromiso sendoa hartzeko beharra azpimarratzen du, gizarte-justiziaren aldeko gure borrokaren zati gisa.

186. Euskara, beste edozein hizkuntzen antzera, ez da komunikazio tresna hutsa; nortasuna ematen digu, gure jendartearekin eta lurraldearekin lotzen gaitu, eta komunitate-zentzua sortzen du. Euskararen eta hizkuntza-eskubideen aldeko borroka, beraz, justizia sozialaren aldeko borroka da. Gure hizkuntzak eta kulturak motibazio gehigarria ematen dute: euskalduna izateak egunero erresistentzia ariketa bat eskatzen du, milaka pertsonak egunero mantentzen duten konpromiso bat. Askok gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiteko erraztasun handiagoa duten arren, lotura emozional, kultural eta politiko baten bidez euskaraz bizitzea eta hitz egitea aukeratzen dute. Konpromiso hori belaunaldiz belaunaldi berritu behar da, eta horrek zapalkuntzaren pedagogia eta hizkuntza-gatazkaren politizazioa eskatzen ditu.

187. Gogor gaitzesten dugu immigrazioa euskararentzat mehatxutzat jotzen duen diskurtsoa. ELArentzat, pertsona migratuak ez dira arazo; arazoa gaztelaniaren eta frantsesaren hegemonia da, migratu duten pertsonen, biztanleen gehiengoak bezala, erreproduzitzen dutena. Iraganeko eta egungo immigrazioak euskararekiko erronka espezifikoak planteatzen ditu, eta erronka horiek giza eskubideen eta eskubide sozialen ikuspegitik landu behar dira, erronka horiei aurre egiteko baliabide eta politika egokiak sustatuz.

188. Espainiako Parlamentuan hizkuntza koofizialen erabilera berriki onartu izana urrats garrantzitsua da sinbolikoki, baina ez da nahikoa. Hego Euskal Herrian, euskara ez da ofiziala eremu guztietan, eta Nafarroaren zati handi batean, euskaldunen oinarritzko eskubideak zapalduta daude. Eragile batzuen ustez euskara pertsona bakoitzaren gauza da,



erakundeek eta arauen babes eta bultzadarik behar ez duena. Baina eragile berberak eta jendarteak, oro har, ELAk moduan, inola ere ez dute onartzen ikuspegi hau beste esparru batzuetan, esaterako, desoreka sozialean, generoan, aniztasunean, eta abar. ELarentzat, euskarak, ponentzia honetan aipatzen ditugun beste hainbat esparruk moduan, gutxitua eta diskriminazio egoeran dagoen heinean, erakunde eta lege babes indartsua behar du.

189. Euskararen normalizazioa sindikatuaren jardueraren eta gure aldarrikapenen funtsezko ardatza da. ELAk aurrera egin du euskararekiko konpromisoan, eta dagoeneko komunikazio hizkuntza da organo gehienetan. Hala ere, afiliazioaren eta militantziaren ohiko jardunean eta ELaren arreta eremu guztietan hobetu behar dugu. Beste eragile batzuekin batera, lan-zentroak euskalduntzeko eta administrazioan euskarazko zerbitzu publikoak bermatzeko erronkari aurre egin behar diogu. Premiazkoa da mobilizazio soziala eta lidergo instituzional handiagoa gure hizkuntzaren aurkako erasoen aurrean eta, modu berezian, esparru judizialean, espainiar sindikalismoak funtzio publikorako hizkuntza-eskakizunen aurka bultzatu duen gurutzadari aurre egiteko.

190. Sindikatu eta eragile batzuek egiten duten modura euskara eta enplegua kontrajarzea euskarafobia ezkutatzeko duen gezurra da. ELarentzat genero berdintasuna, aniztasuna edo kualifikazioa enpleguarekin lehian jarri ezin daitezkeen moduan, euskara ere ezin daiteke lehia horretan kokatu. Espainiar edo frantziar Estatuetan sindikatu edo eragile horietako inork ez luke gaztelania edo frantsesa enpleguarekin lehian jartzea planteatuko, hizkuntza horiek estatuak bermatzen dituztelako. Tokian tokiko hizkuntza egin ahal izatea, eskubidea izateaz gain, lana ongi edo hobeto egin ahal izateko modua ere bada. Horregatik, ELAk gure instituzioei eskatzen die Euskal Herria osoan euskararen ezagutza bermatzea, herritar guztien eskubideak errespetatzeko, bereziki, herritarrei zerbitzu publikoa ematen dieten jardueretan. ELAk lanpostuak mantentzeko eta euskalduntzea bermatzeko instituzioen inplikazioa, bide progresiboak eta beharrezko malgutasun neurri guztiak proposatu ditu eta proposatzen jarraituko du, baina ez du onartuko bide hau blokeatzerik jarrera euskarafobia ezkutatzeko duen aitzakiekin.

191. EAEko egungo Hezkuntza Legearen mugak salatzen jarraituko dugu, eta Nafarroan euskararen gutxieneko ezagutza bermatzeko duen hezkuntza-sistema defendatzeko dugu. Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoak 1986ko Euskararen Legeari eusten dio, hizkuntza-zonifikazioa eta egoera zentzugabeak betikitzen ditu, hala nola, Nafarroako zati batean funtzio publikoan sartzeko alemanaren ezagutza baloratzea, baina euskara ezta hori ere.

192. Euskararen egoerari buruz egia esatea eskatzen dugu. Joera autokonplazienteak gure hizkuntzak dituen arazo eta erronka larriak ezkutatzeko. Funtsezkoa da arazo horiei zintzotasunez eta konpromisoz heltzea, gure gizartean euskararen biziraupena eta indartzea ziurtatzeko.

3.8. KONFRONTAZIOA BEHARREZKOA DA ZAPALKUNTZA EGOERATIK ASKATZEKO

193. ELaren iritziz, Euskal Herriaren burujabetza prozesuan aurrera egiteko polarizazioa sortzea ezinbestekoa da. Nortasun politiko sendo bat eraikitzea zaila da polarizaziorik gabe.

194. Polarizazioa funtsezkoa da nortasun kolektibo eta politikoak eraikitzeko; “gu” eta “haiek” identifikatzen laguntzen du, interes talde desberdinen arteko mugak definituz. Polarizazio ariketaren bidez ideiak indartzen dira, nortasun politikoa sendotzen da, eta parte-hartzea sustatzen da. Gainera, mehatxuak ikus arazten dira, premiak, aukerak eta onurak azaleratu eta honek, pertsonak ekintza kolektiboetan inplikatzera bultzatzen ditu.

Hau agerikoa da egunerokoan kapitalarekin aurrez aurreko gatazketan eraikitzen den sindikatu batentzat. Lan-zentroetan eta negoziazio kolektiboan egunero egiten dugu polarizazio ariketa; gure interesak eta enpresariak edo kapitalarenak kontrajarri eta gure alternatibak indartuz. Modu berdinean, borroka nazionalak espainiar eta frantziar Estatuarekin polarizazioa eskatzen du.

195. Azken urteetan autogobernuaren etengabeko murrizketek ez dute erantzun egokirik jaso euskal erakundeentzat. Horregatik, beharrezkoa da eraso hauei aurre egitea, gure autogobernu tresnak babestea eta gatazka politikoaren existentzia agerian jartzea. Gatazka hori ez da soilik autodeterminazioa edo galdeketa bezalako "kontu handietara" mugatu behar, herritarren egunerokoari zuzenean eragiten diguten kontu zehatzen bidez ere eraiki behar da.

196. Diskurtsoen sinesgarritasuna ere kontuan hartu behar dugu. Diskurtso independentistak sinesgarriak izan nahi badu, ezin du mugatu erabakitze eskubidearen aldeko adierazpen hutsak egitera, isilean, gure eskumen politikoaren etengabeko murrizketak, handiak nahiz txikiagoak, onartzen diren bitartean. Autogobernuaren murrizketarik ez litzateke erantzunik gabe geratu behar, eta erantzun hori maila sozialean zein instituzionalean eman behar da. Modu berezian, gehiengo sozialei eragiten dioten gaien inguruan polarizazioa sortzen duten mobilizazioak gorpuztu behar ditugu.

197. Ildo honetatik, ELAren konpromisoa argia da: sindikatuak langile klasearen interesak defendatzeko borrokan inguruan artikulatuko du polarizazio lan hau, negoziazio kolektiboa abiapuntutzat hartuta. Izan ere, esparru honetan milaka langilearen etorkizuna dago jokoan. Era berean, pentsio sistema propioa eta publikoaren alde, Euskal Herriko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata lortzeko, eta funtzio publikoko langileen plantillak, birjarpen-tasa eta soldatak gure herrian erabakitze polarizazioa indartzeko konpromisoa hartzen du. Gure hezkuntza sistema euskalduntzeko ere aktibatuko dugu konfrontazioa. Gure txostenetan, posizionamenduetan eta mobilizazioetan, jorratzen dugun gai bakoitzak autogobernuaren nola eragiten duen aztertuko dugu, eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturean espainiar eta frantziar estatuen menpe egoteak dakartzan kalteak eta mugak azaleratzen saiatuko gara eta burujabe izateak irekiko lizkigukeen aukerak ikus arazten.

198. Euskal Herriaren burujabetza irabazteko prozesuan, polarizazioa ezinbesteko tresna da, bai nortasun politiko sendo bat eraikitze, baita gure autogobernuaren defentsan mobilizazio sozial eta politikoa pizteko ere. ELA argi du bere bidea: gatazka sozial eta nazionalak uztartzea, herritarren eskubideen eta justizia sozialaren defentsa lehenetsiz. Honek, Euskal Herriaren etorkizun burujabea eraikitze beharrezko indarrak metatzeko aukera paregabea eskaintzen digula uste dugu.

3.9. EZTABAIDA INSTITUZIONALAK GUZTIONA BEHAR DU IZAN, EZ SOILIK ELITEENA

199. Hego Euskal Herrian, estatutuaren erreformari buruzko balizko eztabaidan, sindikatuarentzat funtsezkoak diren bi gauzetan ardura berezia izango dugu. Lehenik eta behin, edukiei dagokienez, lan harremanen euskal esparrua, euskararen estatua, autogobernuaren bermeak, nazio aitortza, Hego Euskal Herriko herrialdeen gutxieneko konfederazioa eta erabakitze eskubidea bezalako gaiak eztabaidan txertatzeko borrokatuko dugu. Gai horiek ezinbestekoak dira gure esparru juridikoa eta politikoa indartzeko. Bigarrenik, jakin behar dugu eduki horiek parte-hartze eta mobilizazio prozesu indartsuak gertatzen badira soilik sartu ahal izango direla balizko testu berri bategan. Beraz, gure erantzukizuna da eztabaida eta akordioa alderdi politikoaren buruzagitza edota elite politikoaren kudeaketa soiletik ez eraikitzea. Ezinbestekoa da herritarren nahiak adieraztea, jendartearen ahalgintza eta behar-



rezko aldaketak oinarritik legitimatzea. Eliteek prozesua beren interes edota estrategietara desbideratzea saihestu behar dugu, gehiengo sozialaren eskaerei jaramonik egin gabe.

200. Ahal dugun neurrian, autogobernuaren eztabaida erreala irekitzeko lan egingo dugu. ELA erakunde independentista da, eta badaki baloratzen erabateko burujabetzarako bidean aurrerapauso diren urrats zehatzak, nahiz eta txikiak izan. Burujabetzarako borroka indar-harremanen arabera izango da. Horregatik, indar-harreman hori hobetzen lagunduko duten urratsak baliagarri jotzen ditugu, independentziarako bide pragmatiko eta mailakatuaren parte direla ulertuta. Hori esanda, berrogei urtez espainiar Estatuak eragin duen higadura eta desleialtasuna ikusita, eta euskal herritarrek alor sozial, sindikal eta politikoan denbora luzez adierazi duten borondate argia aintzat hartuta, ELArentzat ezinbestekoa izango da Estatuak herritarron borondatea errespetatzea. Beraz, ELAri ez dio balio izango edozein motatako erreforma eta akordioak.

201. Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak 2017an lortutako aitorten instituzionala gainditu nahi du. Urte horretan sorturiko Euskal Hiri Elkargoak (EHE) zenbait eremutan eraginkorra dela erakutsi badu ere, egiturazko muga nabarmenak ditu, batez ere etxebizitza, nekazaritza, klima-aldaketa eta euskararen egoera bezalako erronkei aurre egiteko beharrezko dituen eskumenei dagokienez. Horregatik, erakundetzearen bilakaerari buruzko eztabaida lehentasun bihurtu da datozen urteetarako. Iraganean, Baterak funtsezko papera bete zuen lorpen historikoetan, hala nola Elkargoaren beraren, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen eta euskararen koofizialtasunaren sustapena. Manifestazioen, herri-kontsulten eta beste ekintza batzuen bidez gizartea mobilizatzeko gaitasuna eredugarria izan zen. Orain, Baterak aldaketa instituzional baten aldeko borroka berpiztu nahi du, indar sozial eta politikoen elkarlana bideratuz eta aldi berean Ipar Euskal Herriko egokiena den eredu instituzionalari buruzko eztabaida publiko zabala bultzatuz. Esparru berri horrek aurrerapen esanguratsuak ahalbidetu behar ditu, bai eskumenetan, bai herritarren parte-hartzean, eta, gainera, balizko erakunde berriaren ordezkariak boto zuzenaren bidez hautatuko direla bermatu behar du.

202. Azken urteotan aurrerapausoak eman dira mugimendu subiranistaren barruan lurraldetasunaren gaia ulertzeko orduan. Onartutzat ematen da subjektu politiko bat dagoela, Euskal Herria, baina, era berean, erabakiak hartzeko eremu desberdinak daudela, hiru errealitate politiko-administratibo ezberdin, eta horietan finkatu behar direla artikulazio nazionaleko balizko prozesuak. Hori bereziki garrantzitsua da, eztabaida horrek iraganean desadostasun handiak eragin baitzituen. Beraz, nahiz eta bere jatorrian inposatua izan, Euskal Herriaren egungo egitura instituzionala abiapuntu izan daiteke herritarron erabakitze eskubidea gauzatzen hasteko.

3.10. GURE LURRALDE BOKAZIOA OSATZEN JARRAITU

203. Beste nazio askotan muga geografikoak ez dira gatazka handien iturri. Gurean ordea, lurralde-gaiak konplexutasun gehigarria ematen dio burujabetza prozesuari. Ikuspegi politiko eta administratibotik, bi estatutan banatuta gaude, bi autonomia erkidegotan Hego Euskal Herrian eta Hirigune Elkargo bat dugu Ipar Euskal Herrian. Gainera, Lurralde Historikoen Legeak EAEn ezarri dituen zatiketak gehitu behar dira.

204. ELA aspalditik da sindikatu nagusia EAEn eta Nafarroan bere indarra handitzen ari da, ia %23ko ordezkartza eta 1.500 ordezkari baino gehiagorekin. Nafarroan sindikalismo independentista hazten ari da sindikalismo espainolistaren kontura, izan ere, azken urteetan CC.OO. eta UGTren ordezkartza ez da %50era iristen. Hala ere, EAEn eta Nafarroaren instituzionalizazio-prozesuak modu bereizian egin izanak, "trantsizioan" inposaturiko lurralde-banaketak eraginda, bi lurraldeak aldendu ditu eta hainbat eremutan nabariak dira

ondorioak, nortasun politikoen eraikuntzan edo burujabetzaren elementu sinbolikoen bilakaeran, esaterako.

205. Era berean, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren bitartez, Ipar Euskal Herriko aktore abertzale eta aurrerakoien ekosistema baten gune irradiatzailea izatera iritsi gara trebakuntza, gizarte-ekintza eta funtsezko hainbat borroka eta ekimen sustatuz, babestuz eta sortuz. Ekosistema horren barruan, bereziki aipatu nahi dugu Alda bezalako erakunde bat abertzaletasunaren ohiko esparrutik haragoko pertsonak batzeko izaten ari den gaitasuna, herritar xumeekin duen konpromisotik abiatuta. Oinarri oinarrian lortzen ari den inplantazio horrek gure aliantzen aukera zabaltzen du, eta etorkizun hurbilerako galdera eta eztabaida interesgarriak planteatzen dizkigu. Era berean, aipatzekoa da Bizi! mugimendua egiten ari den lan bikaina, beste askoren artean, Euskal Herria Burujabe ekimena sustatzen ari dira, justizia klimatikorako trantsizioa helburu duen prozesu burujabea defendatuz.

206. Euskal Herri osoko lurralde bokazioa duen sindikatu abertzalea da ELA. Horregatik eztabaidatzen, eragiten eta erabakiak hartzen jarraituko dugu, Euskal Herri osoko langileak beren eskubideak defendatzeko eta beren interesak sustatzeko modu eraginkorragoan antola daitezen. Gure egiten dugu, halaber, kapitalismoaren fase honetan esplotatzen eta prekarizatzen ari diren euskal herrialde guztietako herritar xumeen eta haien bizi-baldintzen zoria.

3.11. BURUJABETZAK ERAIKITZEN DITUZTEN ALTERNATIBAK BABESTU

207. Jende askoren bizi-baldintzek okerrera egiten duten gizarte baterantz goaz, gobernu ezberdinen politikak kapitalari mesede egiten dioten bitartean. Hala ere, pertsona eta talde askok bestelako gizarte-eredu batzuk eraikitzen dihardute, politikak ezin duela “dagoena” kudeatzera mugatu agerian uzten duten ekimenekin. Sistemak konbentzitu nahi gaitu alternatibarik ez dagoela, bizi garen larrialdi sozial eta ekologikoa ezkutatuz. Euskal Herrian ekimen eraldatzaile ugari daude arlo askotan, hala nola, elikaduran, energian, finantzetan, ondasun eta zerbitzuen trukean, telekomunikazioetan, teknologian, software librean, komunikazioan, gertuko ekonomia zirkuituetan, konponketan, berrerabilpenean, birziklapenean edota sorkuntza artistikoan. Ekonomia sozial eraldatzaileko kooperatibak eta erakundeak ere badaude. Ekimen horietako batzuek egitura nazionala dute dagoeneko, eta beste batzuk maila horretan egituratzeko prest daude.

208. Proiektu horiek, apalak izan arren, beste gizarte-eredu bat iradokitzen dute, eta Euskal Herrirako konfederazio-modu berriak sor ditzakete. Bizi-baldintza materialak eta kulturalak hobetzen dituzte, eta mundu-ikuskera abertzalea partekatzen ez duten pertsonak erakar ditzakete. Edukia eta materialtasuna ematen diote erabakitze eskubideari, ekonomiaren birkokapenari eta gizartearen ahalduntzeari. Horregatik, burujabetzetaz, pluralean, hitz egin behar dugu. Trantsizio ekologiko eta sozialarekin kapitalak hainbat hamarkadatan bereganatu dituen jarduerak eta tresnak berreskuratu nahi ditugu herritar xumeentzat.

209. ELAk konpromisoa hartu du sistema kapitalistatik gizarte-eredu feminista, antirrazista eta ekosozial baterako trantsizioarekin, bizitzak eta zaintzak erdigunean jarriko dituen. Horrek esan nahi du gure militantzia eta ekintza enpresa-eremutik harago hedatzea. Funtsezkoa da herritar xumeen burujabetzarako esparruak zabalduko dituzten aukerak eraikitzen laguntzea eta horretarako konpromisoa hartzea. ELAk, ahal duen neurrian, Euskal Herri burujabearekin konprometitu dauden eta ikuspegi eta esku-hartze irizpideak partekatzen ditugun erakunde sozial eta sindikalekin lankidetzan jarraituko du.



3.12. GIZA ESKUBIDEEKIN KONPROMETITUAK

210. Egun, gure ustez, Euskal Herrian giza eskubideekin zerikusia duten arazo nagusiene-tako hiru hauek dira: Estatuaren biktimak ez aitortzea, presoek aplikatutako salbuespen-politikak eta euskal gatazkaren inguruko errelatoaren borroka.

211. Foro Sozial Iraunkorrek bere ibilbidea amaitu ondoren, bertan parte hartzen genuen eragile askok uste dugu hutsune bat dagoela biktima guztiek egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko duten eskubidean, eta, bereziki, Estatuaren indarkeriaren ondorioz giza eskubi-deen urraketak jasan dituzten biktimek jasaten duten diskriminazioan.

212. ETak borroka armatua behin betiko utzi zuenetik hamalau urte eta desagertu zenetik zazpi urte pasa ondoren, tratamendu asimetrikoak jarraitzen du biktimen artean, eta hori onartezina da. Aurrerapausoak eman dira lege ikuspegitik, baina ez dira nahikoak, izan ere, oraindik ezin dute justizia-eskaerarik egin. Hori esanda oso positibotzat jotzen dugu ireki-tako hainbat bide, esaterako, Guardia Zibilak hildako Mikel Zabalza ELAko afiliatua bezalako biktimei, 2024ko apirilean Nafarroako Parlamentuak emandako aitorpena. Eusko Jaurla-ritzak ere hasi du indar parapolizialek edo espainiar Estatuko segurtasun indarrek eragin-dako biktimen aitortza egiteko bidea, baina oraindik biktima ugari daude inolako aitortzarik eta erreparaziorik jaso gabe, polizia indarkeria pairatu dutenak barne. Era berean, biktimei zor zaien errespetuagatik eta gizartean sortzen duten kalteagatik, ez da onargarria eskuin muturrak egiten duen ETaren biktimen erabilpen politikoa edo memoria inklusiboaren aurka duen jarrera.

213. Bestalde, ELAk gogor salatzen du “gerra zikina” edo Estatu indarkeria sustatu eta tortura babestu zuten batzuk negazionismotik autojustifikaziora egin duten bidea, gertatu-takoa eta haiek izan duten erantzukizuna legitimatuz, horrek dakarren birbiktimizazioarekin. Ez da ahaztu behar Estatuaren indarkeriak biktima kopuru zehaztugabea eragin duela eta, iturrien arabera, 400 eraildakotik gorakoa izango litzateke, mila pertsona baino gehiago zaurituta, eta 6.000 pertsona inguru torturatuta. Hala ere, espainiar Estatuak erabateko zigorgabetasuna eman die bere erantzukizunpean jardun zuten delituen egileei.

214. Gure herria bortizki eta sistematikoki erreprimitu dute estatuek, eta gertaera horren onarpenak ez dio iraganari bakarrik eragiten, baita lehian dagoen etorkizunari ere. Aitorpen falta hori bidegabekeria izugarria da, eta salatzen jarraitu behar dugu, instituzioetako ardu-radunei “pertsona guztientzako eskubide guztiak” moduko oinarritzko eskaerak luzatuz.

215. Erakunde eta borroka armaturik gabeko testuinguruan, presoen egoerari errepara-tzea beharrezkoa da. Eragile garrantzitsu bakar batek ere ez du identifikatu borroka arma-tura itzultzearen zantzurik. Agertoki hori hainbat eragilek ziurtatu dute eta, jada, zortzi urte pasa dira gizarte zibileko eta nazioarteko erakunde eta pertsona ospetsuen gidaritzapean armagabetzea egin zenetik. Horregatik ELArentzat premiazkoa da euskal presoek eragiten dieten salbuespenezko neurriak amaitzea, baita oinarritzko eskubideak berrikustea ere, hirugarren maila barne. Espainiako Gobernuak neurriak hartu behar ditu norabide horretan, presoek legezkotasunaren bideari jarraitu ahal izan diezaioten. Esan beharrik ez dago ELAk presoen eskubideak defendatzen dituzten erakundeekin mobilizatzen jarraituko duela.

216. Azkenik, ELAk errelatoaren gerra deiturikoaren inposizioa errefusatzeko du. Onarte-zina da batzuek etika erabiltzea eragile batzuei gaitzespen jarrera zehatzak eskatzeko, beste batzuen negazionismoarekin modu baketsuan bizi diren bitartean. Kontakizunaren bataila honen helburua da eragile politiko batzuen homologazio demokratikoa oztopatzea, autono-mismoan eta neoliberalismoan finkaturiko aliantzen mapa bat betikotu asmoz.

3.13. HERRITARREN ERREPUBLIKARANTZ, GUZTIOK GUZTIA ERABAKIZ

217. ELAren 15. Kongresuak Hego Euskal Herrian nagusi den kultura politiko elitista aldatzeko beharra nabarmendu zuen. Kultura hori gizarte zibil antolatuarekiko mesfidatia da. Gaur egun ere, manifestazioak eta grebak ordena publikoko arazo gisa tratatzea eta protestak kriminalizatzea Hego Euskal Herriko buruzagi askoren kultura politikoaren parte dira, abertzaleak barne.

218. ELAren ustez, gizarte zibileko erakundeak egotea, sindikatuak esaterako, "bizitasun eta osasun demokratikoaren adierazle" da. Gizarte-gatazka eta kolektibo ezberdinen interesak defendatzen dituzten talde antolatuak izatea joko demokratikoaren parte da. Gobernu eta erakundeek kritika politikoa joko demokratikoaren parte dela onartu behar dute.

219. Polarizazioak lagun dezake alderdi politikoen buruzagitzetara mugatzen den politika ulertzeko modu hori iraultzen, baina ez da mekanismo bakarra. Herritarrei zuzenduriko kontsultak edo herri ekimen legegileak parte hartze sozialerako tresna paregabeak direla uste dugu. Gizarte eta nazio gisa, kontsultarako eta eragiten diguten gaiei buruz erabakitzeko eskubidea dugu. ELAren iritziz, autodeterminazio eskubidea ez dugu soilik nazioartean dugun posizioa definitzeko eskubide gisa irudikatu behar. Komunitate gisa eragiten digun guztiari buruz kolektiboki erabakitzeko eskubidea da autodeterminazio-eskubidea, gure oraina eta etorkizuna kolektiboki bideratzeko tresna. Horregatik, gure erakundeek galdeketak egin eta herri-ekimenak sustatu ahal izatea oinarritzko eskakizun demokratikoa da, eta ELAk hori aldarrikatzen jarraituko du. Funtsean, nazio bat gara, gure oraina eta etorkizuna erabakitzeko gaitasuna eta eskubidea duen gizartea. Beraz, eskubidea dugu kontsulten bidez gure estatus politikoa erabakitzeko, baita kolektiboki eragiten digun beste edozein gairen inguruan deliberatzeko ere.

220. Hego Euskal Herriko gobernuek, bereziki EAEkoek, alderdi eta erakundeen egungo elitismoa gaindituko duen kultura politiko inklusiboa hartu behar dute. Erabaki-prozesuetan gizarte zibila sartzeko eta oinarritik aldaketak legitimatzea funtsezkoak dira demokrazia indartzeko eta herritarren eskaerak eta kritikak entzun eta aintzat hartuko direla bermatzeko. Funtsezkoa da gizarte zibil antolatuaren parte-hartze aktiboa sustatzea eta errespetatzea.

221. Herritarrei beren orainari eta etorkizunari zuzenean eragiten dieten gaiei buruz galdetzeko eskubidea ahalbidetzea eta instituzionalizatzea eskatuko dugu. Herri-galdeketa eta herri-ekimenak parte hartzeko tresna paregabeak dira, eta demokraziaren funtsezko zutabe gisa sustatu eta babestu behar dira. Kontsulta lotesleak egitea eta gure estatus politikoari eta interes komuneko beste gai batzuei buruz kolektiboki erabakitzeko eskubidea aintortzea erraztuko duen marko bat proposatzen dugu. Azkenik, ohar garrantzitsu eta irizpide gisa, kontsultek eskubideak zabaltzeko soilik balio behar dute, inola ere ez murrizteko.



4 >>>

ABERASTASUNAREN BANAKETA BORROKATU, PREKARIOEN DAUDENEN ETA EMAKUMEEN INTERESAK ERDIGUNEAN JARRIZ

4.1. HEGO EUSKAL HERRIA, SALBUESPEN SINDIKALA

222. Azken urteetan negoziazio kolektiboan aldaketa nabarmenak bizi izan ditugu. Iragan hurbil honetan ateratako ondorioak izango dira datorren lau urteetan egin beharko dugunerako oinarria.

223. 2019tik aurrera, bereziki 2022 eta 2023 urteetan, mobilizazio eta greba dinamika sendoa eraiki dugu. Urte horietako greba dinamikek hitzarmen asko eguneratzea ekarri zuten eta, ondorioz, 2024 urtean greba kopurua murriztu egin zen. Greba dinamika hori ez du ELAk soilik sortu, baina greben protagonista nagusia bera izan da. 2022an espainiar estatuko greben %55,67 Hego Euskal Herrian deituak izan ziren eta 2023an 100.000 langilek baino gehiagok egin zuen grebaren bat ELAk ordezkaritza duen lurraldeetan. ELAk beste sindikatu guztiek batera adina greba egin zituen urte horietan.

224. Greba dinamika honek bizi-bizirik dagoen sindikatu bat islatzen du, prekaritatea hedatzen ari diren patronalei aurre egiteko gaitasuna duen langileria eta antolakuntzaren adierazle. Honen guztiaren ondorioz, lan-hitzarmen asko eguneratzea lortu dugu, baita urte luzez berritu gabeko hitzarmenak zituzten sektoreetan ere. Hitzarmen baten estaldura duen langile kopurua azken bi hamarkadetako altuena da. Gainera, berrituriko hitzarmenen edukiak inguruko lurraldeetako edukiak baino nabarmen hobeak dira, soldata igoera nabarmenagoak eta lanaldi murrizketa handiagoak lortuz. ELAk langileak antolatu eta mobilizatzeko dinamika hau ez du mugatu sektore eta enpresa handietara, eta enpresa txiki eta ertain ugartan ere enpresa hitzarmenak lortu ditugu.

225. Greba ugaritasun honi aurre egin eta mugatzen saiatzeko botere publikoek greba eskubidea bera eraso dute, bereziki neurritz kanpoko gutxieneko zerbitzuen bidez. Gutxieneko zerbitzu hauek, bereziki, sektore feminizatuetan eta administrazio publikoek kudeatutako edo azpikontrataturako zerbitzuetan dute eragina, COVID-19aren testuinguruan ezinbestekotzat jo, baina ondoren lan-baldintzetan hobekuntzarik izan ez zuten eremu horietan, hain zuzen ere. Gobernuen erabaki honek ekarri du, gutxieneko zerbitzu handiak ezarri zaizkien sektore eta enpresetan, grebak asko luzatu behar izatea helburuak lortzeko. Izan ere, esku-bide urraketa hauen ondorioz, epe laburrean, grebek eragin txikiagoa izan baitute.

226. Hego Euskal Herria salbuespen sindikal bat da, bai mobilizazio eta konfrontazio gaitasunean, baita horien ondorioz irabazitako lan-baldintzetan ere. Hau honela izanda ere, gure

herrian ere, ez gara gai izan langile klasearen pobretze prozesua geldiarazteko eta aberastasunaren banaketan lan-errenten pisu galera galarazteko, kapital errentak mugatuz.

227. Edozein kasutan, egindako lanari balio handia eman behar diogu, bereziki langileak antolatu, mobilizatu eta grebak egiteko gaitasunari. Orain lau urte inork gutxik pentsatuko zukeen hainbat sektoretako lan-hitzarmena eguneratzeko gai izango ginenik, hala nola, Gipuzkoako ostalaritza, Bizkaiko merkataritza orokorra, Gipuzkoako metalaren merkataritza, Gipuzkoako ehungintza, Bizkaiko larruaren eta oinetakoen merkataritza... Eta orain arte hitzarmenik izan ez duten kolektibo batzuentzat sektore hitzarmen berriak ere sortu ditugu, Bizkaiko etxez etxeko banaketa enpresentzat edo Gipuzkoako sorosleentzat, esaterako.

228. Kongresu arteko epean ELAk ehunka hitzarmen sinatu ditu, gehienak, jakina den moduan, enpresa hitzarmenak, baita dozenaka sektore hitzarmen ere. Sinaturikoez gain, sinatu ez ditugun beste hainbatetan, ELAren ekimena ezinbestekoa izan da patronalaren posizioak mugi arazi eta eduki hobeak lortzeko, nahiz eta ELArentzat nahikoak ez izan edo gure militantek eduki hobeen alde borrokatzeko prest egon. Kasu gehienetan, eta hein handi batean, ELA kideen grebarako prestutasunak eragin du aipatutako hitzarmenen eguneratzea.

229. Honen adierazle da EAEn LAB, CC.OO. eta UGTk sortu duten dinamikarekin gertatua. Hiru sindikatuen arteko sinergiak eta elkarrekin garaturiko estrategiak sendotu egin dira azken urteetan. Eta, paradoxikoa izan arren, ELAk proposaturiko edo proposa zitzakeen greba egunak murrizteko helburuarekin, gutxieneko greba egun batzuk deitzera behartuak ikusi dituzte beraien buruak. Beraz, iraganean inongo grebarik deituko ez zuketean sektore batzuetan grebak deitu behar izan dituzte, ez ELAk planteaturiko edo nahi izan dituenak adina, baina mobilizatu eta grebak egiteko beharra ikusi dute. ELAren ustez, hiru sindikatuen arteko estrategia bateratua bi elementutan oinarritu da: alde batetik, aipatutako greba dinamikari muga ezarri eta greba kopurua gutxitzean; eta, bestetik, horretarako patronalarentzat erosoagoak diren edukiak ontzat ematean. Patronalaren interesei mesede egiten dien jokararen muturreko adibidea, UGTk eta CC.OO.k normalizatu duten gutxiengoan hitzarmenak eta akordioak sinatzea da. ELAk gogor gaitzesten du jokabide hau eta uko egiten dio gutxieneko arau demokratikoak urratzen dituen praktika honi.

230. Nafarroan UGT eta CC.OO.k erregimenaren sindikatuak izaten jarraitzen dute eta ez dute negoziazio kolektiboaren bidez langileen lan-baldintzen alde borroka tinkorik bultzatzeko asmorik. Ondorioz, Nafarroako greba dinamika apalagoa izan da.

231. ELAko militanteok argi izan behar dugu datozen urteetan ere, bereziki ELAk erabateko gehiengorik ez duen sektore eta enpresetan, sindikatuaren egiteko nagusia langileen mobilizazio gaitasuna handitzea izango dela; era honetan, eduki nahikoko hitzarmenak lortu ahal izateko edo beste sindikatuak eduki hobeak dituzten hitzarmenak sinatzera behartzeko, nahiz eta patronalak beraiek aukeratu akordio merkeagoak izenpetzeko.

4.2. NEGOTIAZIO KOLEKTIBO ARE INDARTSUAGOA POBRETZEARI AURRE EGITEKO ETA LAN- ZEIN BIZI-BALDINTZAK HOBETZEKO

232. Deskribaturikoak lotura zuzena du ELAren antolakuntza gaitasunarekin. Sindikalizazio prozesu trinkoek dakarte, antolakuntza sendotzearekin batera, langileen politizazioa eta mobilizaziorako eta grebarako gaitasuna, eta horien bitartez, langileen lan-baldintzak hobetzeko aukerak handitzea. Horregatik, negoziazio kolektiboko prozesuak langileekin bat egin eta antolakuntzan sakontzeko prozesu gisa ulertu behar ditugu, ez soilik patronalarekin dauzkagun negoziazio dinamika gisa. Hain zuzen ere, prozesu hauek antolakuntza ikuspegitik beste inork baino hobeto garatzen ditugulako daukagu beste sindikatuek baino mobilizazio gaitasun handiagoa eta lortzen ditugu lan-baldintzarik onenak.



233. Besteek baino hobeto egitea, ordea, ez da nahikoa. Izan ere, adierazi moduan, azken hamarkadetan ez gara gai izan langile klasearen pobretze prozesua geldiarazteko. Beraz, antolakuntza eta mobilizazio prozesu eta gaitasun hauek hobetu beharrean gaude datozen urteetan aberastasunaren banaketa justuago bat lortzeko.

234. Negoziazio kolektiboaren dinamizazio prozesu honetan oraindik ere hutsuneak dauz-kagu. Sektore publikoko egoera aurrerago azalduko dugu sakonago, baina eremu pribatuan hutsune horiek bi esparrutan nabarmentzen dira. Batetik, enpresa oso txikiz osatutako sektoreetan langileak antolatzeke zailtasun handiak dauzkagu, saltoki txikietan edo ostala-ritzan, esaterako. Bestetik, telelanaren hedapenaren ondorioz, sektore batzuetan langileen lan-baldintzen negoziaketa are gehiago indibidualizatu da, eta oraindik ez gara gai izan antolakuntza erantzun eraginkor bat eskaintzeko, bulegoetako langileen kasuan, esaterako. Eremu horietan espermentazioan aritu beharko dugu datozen urteetan, antolakuntza eta negoziazio eredu berriekin probak eginez, patronalak presionatzeko bide berriak aurkitu ahal izateko.

235. Horrekin batera, azken urteetan patronalen negoziatzeko zilegitasuna bera eztabai-dagai da. Duela hamarkada bat CEOEren diziplinapeko patronalak (Confebask, CEN, CEBEK, ADEGI eta SEA) negoziaketa monopolizatzeko asmoz, beste patronal batzuk negoziaketa mahaietatik kanporatzen saiatzen ziren. Orain, ordea, hainbat sektoretan uko egiten diote enpresak ordezkatzeari, hitzarmen desberdinen negoziaketa erabat blokeatuz. Horrela gertatu da Nafarroako ehungintzan, Arabako bulegoetan edo EAEko etxeko langileekin. Esan bezala, antolatzeke zailtasun handiko sektoreak dira eta, ondorioz, nekeza da greba dina-mika indartsuen bidez sektore hauetako enpresak patronalen egiturari antolatzeri behar-tzea, lan-hitzarmen bat negoziatzeko mahaia bestaldean zilegitasuna edo aitortza duen ordezkaritza nahikoa eduki ahal izateko.

236. Administrazio publikoetakoa da lan-baldintzen eguneraketa adostua okerrean duen eremua. Hego Euskal Herriko administrazio guztiek 2009tik aurrera ezarritako inposaketa logika gaurdaino luzatu dute. Aurrerago azalduko dugun moduan, langileen egonkortze prozesuan adostasun puntual batzuk posible izan dira hainbat udaletxetan edo Eusko Jaur-laritzak zuzenean kudeatzen duen hezkuntzako sukalde eta garbikuntza sektorean, baina akordio puntual horietatik kanpo autoritarismoa erabat gailendu da administrazioetan. Negoziaketa mahaia gobernuek alde bakarrez hartutako erabakiak komunikatzeko soilik erabili dira. Mahai horietako batzuetan gobernuek proposamen hobeak ekarri badituzte, greben eraginez izan da, inolaz ere ez arduradunen negoziatzeko edo lan-baldintzak hobe-tzeko prestutasunaren ondorioz.

237. Administrazio publikoa pribatizatutako zerbitzuen kontratatzaile denean ere ez du, bizitzarako funtsezkoak diren eta gehienetan emakumez osaturiko eremu horietan, lan-baldintza egokiak izateko ardura bere gain hartzen. Ondorioz, zerbitzu horietan greba luzeak ezinbestekoak izaten ari dira, eta izango dira aurrerantzean ere, lan-baldintzak hobetu ahal izateko. Esparru hauetan, ordea, lan-baldintzak hobetzea oso zaila gertatzen ari da. Azpi-kontratazioa arautzen duten estatuko legediak eta administrazioen gastua kontrolatzeko arau fiskalek, desindexazio araua, kasu, izugarri mugatzen dute zerbitzua esleitu ondoren kontratuen baldintzetan aldaketak eragitea, baita lan-baldintzetan ere. Esleipen hauetan, gastua aurrezteari erabateko lehentasuna ematen zaio, zerbitzuaren kalitatearen eta langi-leen bizi-baldintzen kontura, eta esleipena egin ondoren administrazioek ez dute zerbitzuen behar bezalako jarraipenik egiten. Hau dela eta, esleipenak aldatzen diren momentuak aprobetxatzen saiatu behar dugu mobilizazio eta greben bidez esleipenetan lan-baldintzen hobekuntzak barneratzeko. Azken urteetan azpikontrataturiko zerbitzuen esleipenetan ezartzen ari diren epe luzeak, 20 eta 25 urte artekoak kasu batzuetan, azpikontratutako langileen eskubideen aurkako zuzeneko erasoak dira.

238. Hala ere, esan bezala, administrazioetan ere, mobilizazio eta greben ondorioz, gobernuak inposatutako hainbat neurri baldintzatu ditugu, baita aldaketak eragin ere. Miquel Iceta Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko ministro zela, CC.OO., UGT eta CSIFek behin-behinekotasuna murrizteko sinatu zuten akordioak, Europako auzitegiak urte luzez egoera irregularrean egondako langileak babesteko eskaera alde batera utzi eta langile hauen lanpostuak arriskuan jarri zituen. Izan ere, beraien egoera erregularizatzeko, denak oposizio arrunt bat egitera kondenatzen baitzituzten. Besteak beste, ELAk bultzatutako mobilizazioek EAJ eta EH Bilduren jarrera baldintzatu zuten Espainiako kongresuan eta, behin-behinekotasunaren iruzurra pairatzen duten pertsona guztiak finkatzeko nahikoa izan ez arren, langileak egonkortzeko formula malguago eta onuragarriagoak posible egin zituzten.

239. Era berean, ELAren presio eta eskakizunek eragin zuten EAJk baldintza gisa ezartzea Pedro Sanchez presidente izendatzeko, Espainiako gobernuak Hego Euskal Herriko administrazioekin negoziatu beharko zituela langile publikoen soldata igoerak eta hautaketa sistemak. ELAk historikoki eskatu du Hego Euskal Herrian langile publikoen lan-baldintzak erabateko askatasunez negoziatzeko aukera izatea, baina, 2023 eta 2024 urteetan EAEko langile publikoen grebek soilik egin dute posible Espainiako gobernuak, lehen aldiz, euskal langile publikoek lan-baldintza desberdinak izan ditzaketela onartzea.

240. Meritu handia dauka sindikatua eta zerbitzu publikoetako langileak egiten ari garen lanak. Kasu honetan ere, ELAren ekimenik gabe ezin da ulertu beste lurralde batzuetako borroka dinamika eta egoerekiko ezberdintasuna. Horren seinale da, aritmetika bestelakoa izan arren, Nafarroan, LAB administrazio publikoan lehen sindikatua izanik, EAEko greba dinamikaren antzekorik bultzatzeari muzin egin izana, baita grebak oztopatu izana ere. Edozein kasutan, zerbitzu publikoetako lan-baldintzak oraindik ere onartezinak dira, eros-ahalmen galera handia metatzen dute, langileen %40 inguruk behin-behineko kontratua izaten jarraitzen du eta lan-kargen hazkundea izugarria izan da.

241. Duela lau urte, kaleratzeak, hartzekodunen konkurtsoak edota Enplegu Erregulazioko Espediente konplexuak lantzeko eta sinpleagoak ziren antzeko prozesuetan sindikatuko gainerako kideei laguntzeko, lan-talde espezializatu bat sortu genuen: Konkurtso eta ERE Taldea. Bere sorreraren eta lanaren balantzea oso positiboa da. Federazioetako arduradunek, abokatuek eta ekonomialariek osatutako talde honek gure jardura sindikalean hobekuntza nabarmena ekarri du, ez soilik federazio eta eskualdeetako kideen lan batzuek arindu eta haien ohiko lan sindikala bermatu duelako, baizik eta egoera zail eta gogorretan eskubideen eta lan-baldintzen alde borrokatzeko tresna eraginkorra dela erakutsi duelako. Talde honen ekarpenik gabe, azken lau urteetako borroka eta garaipen asko ezin dira ulertu, esaterako, Tubacex, Cirmauto, SDR-Amazon, Microdeco, Implika edota H&Mko lorpen garrantzitsuak.

242. Gure lanaren eta borrokaren emaitzen artean, nabarmentzekoa da 2024ko ekainean Espainiako Kongresuak Hego Euskal Herriko hitzarmenei estatuko gainetik lehentasuna eman izana. Euskal langileen garaipen garrantzitsua izan da, neurri handi batean, ELAren lanari esker. Urte luzeetako borroka eta presioak ekarri zuen EAJk, oraingoan, gai sozial bati lehentasuna ematea Espainiako Gobernuarekin izandako negoziazioetan. Hala ere, adi jarraitu behar dugun gaia da. Izan ere, garaipen hauek, oso garrantzitsuak izanik ere, espainiar Estatuan balio mugatua dute, etorkizunean Espainiar Gorteetan gehiengo berriak eratzen diren heinean, hitzarmenen edukiak Euskal Herrian erabakitzeke eskumena galtzeko arriskua baitauekagu.

243. Edozein kasutan, CEOE, CC.OO. eta UGTren bidez estatuko hitzarmenek Hego Euskal Herriko lan-baldintzen negoziazioari ezarritako debekuak behin-behinean geldiaraztea lortu dugu. Horrek, hurrengo urteetan, gure herriko indar-harremanen eta gehiengo sindikalen arabera, lan-baldintzak hobetzeko aukera emango digu, eta 2017an EAEko hitzarmenei lehentasuna emateko helburuarekin lortutako Lanbidearteko Akordioa blindatuta geratuko da.



4.3. ENPLEGU PREKARITATEA BORRAKATU

244. Orain lau urteko Kongresuan zera genioen: “ELA erreferentziazko sindikatua da lan-prekaritate egoerei aurre egiten dieten euskal langile gehienentzat, baina gure ekintza eremua zabaldu nahi dugu, prekaritatea pairatzen duten pertsona guztien sindikatua izan nahi dugu”. Apustu hori, ordea, ez zen lau urteko epean lor zitekeen helburua, sindikalisten belaunaldi oso bati ezarri genion erronka baizik. Horregatik, kongresu honetan, emandako pausoak sendotu eta prekaritatearen aurkako borroka sindikatuaren erdigunera ekartzeko pauso berriak emateko konpromisoa hartzen dugu.

245. Komeni da gogora ekartzea zeri buruz ari garen lan-prekaritatea diogunean. Lan-prekaritatea pairatzeak esan nahi du bizitza egoki bat aurrera eramateko diru-sarrerara nahikorik ez izatea (beharturiko lanaldi partzialean nahiz lanaldi osoan lan eginda), kontratu egonkorrik ez izatea edota lanak osasun galera ekartzea.

246. Prekaritateari aurre egiteak bereziki emakumeei begira jartzea suposatzen du, emakumeek pairatzen baitituzte prekaritate tasa handienak. Era berean, prekaritatearen aurka aritzeak arrazismoa konfrontatzea esan nahi du, aniztasun funtzionalaren baitako diskriminazioei aurre egitea, gazte langileen eskubideak defendatzea edo sexu eta genero arauetatik kanpo kokatzen diren pertsonak babestea. Azken finean, prekaritateari aurre egiteak lan munduan okerren daudenen alde egitea suposatzen du. Hori da, hain zuzen ere ELAren apustua.

247. ELAn langile prekario guztientzako sindikatu izateko bidea egiten ari gara. Lan handia egin dugu azken urteetan, baina oraindik ez dugu lortu denen erreferente izatea. Emakume, gazte, aniztasun funtzionala duten edo migratutako langile gehiagoren erreferente izateko beharra dugu, bizi dituzten diskriminazio egoera espezifikoiei aurre eginez indartzen baitugu gure klase sindikatu nortasun eta izaera.

248. Asko dugu hobetzeko, baina azken urteetan egindako lanak, emaitzak eman ditu. Esaterako, azken urteetan ELAk adostutako hitzarmenen ia erdietan lan prekaritatea murrizteko, gutxienez, neurri bat txertatzea lortu dugu. Hauek izan dira prekaritateari aurre egiteko hitzarturiko neurriak eta egindako ekimenak:

- a) 2023 eta 2024an ELAk sinatu dituen sektoreko hitzarmen guztietan urteko 19.600 euroko gutxieneko soldata ezarri da, orain arte bizitza duintasunez aurrera ateratzeko gutxieneko diru-sarreratzat hartu dugun zenbatekoa, hain zuzen. Era berean, hainbat hitzarmenetan lanaldi partziala murrizteko neurriak adostu ditugu. Neurri hauek, enplegu guztietan egoki bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara bermatzeko helburua dute. Gure hitzarmen guztietan beharturiko lanaldi partziala desager arazi ez badugu ere, bidean goazela esan dezakegu.
- b) Kontratu prekarioak desagertze bidean ekimen andana eraman dugu aurrera lan zentro desberdinetan. 2022ko lan erreformak, ordea, erronka berri bat ezarri digu aldizkako kontratuarekin. ELAren iritziz, kontratu mota hau behin-behinekotasuna estatistikoki ezkutatzeko legezko formula berria bilakatu da, lan-prekaritatea betikotzen duelarik.
- c) Hainbat hitzarmenetan, Gipuzkoako ostalaritzan, esaterako, lan-kargak murrizteko neurriak adostu ditugu; Bizkaiko kale garbiketan lan arriskutsuak egiteko enpresa espezializatuen esku-hartzea adostu dugu, edo Lookiero moduko enpresetan estres termikoa mugatzeko neurriak hitzartu ditugu.

249. Ordezkaritza dugun eremuetan prekaritatearen aurkako berariazko plangintzak martxan jartzen eta jarraipena ematen segi behar dugu. Kongresu arteko epean ia 750 lan-zentrotan lan-prekaritateari aurre egiteko neurriak bultzatu ditugu, nahiz eta guztietan arrakastarik izan ez. Aurkitu ditugun oztopo edo zailtasunek bi arrazoi nagusiri erantzuten diote:

- a) Alde batetik, 2022 eta 2023 urteetan negoziazio kolektibo ugari izan dugu eta inflazio altuak negoziaketak eros-ahalmenaren bueltan polarizatu ditu, hein handi batean. Testuinguru honetan, beti ez gara gai izan prekaritateari aurre egiteko neurriak erdigunera ekartzeko. Prekaritatea enpresentzat kontrol eta botere tresna garrantzitsua da, beldurra sortzen eta hedatzen baitu, eta nekeza da tresna hori borrokatzea tentsio eta konfrontazio handirik gabe. Beti ez gara gauza izan, solda-taz gain, borroka horiei ere zentraltasuna emateko.
- b) Eta bestetik, negoziaketa eta gatazka ugariak asko zaildu dute sindikatuko arduradun eta militanteak prekaritatearen aurkako borrokan buru-belarri aritzea. Prekaritatea arazo konplexua da, berariazko lanketa eta denbora eskatzen du, eta laguntza mugatua izateak, zaildu egin du atal sindikalek gaia behar bezala lantzea.

Negoiazio Kolektiboaren planifikazioan prekaritatea barneratu

250. 2023tik aurrera, arazo hauei aurre egin eta prekaritatearen aurkako borroka modu eraginkorrarekin lantzeko asmoz, gai hau negoziazio kolektiboaren prozesuan barneratu dugu, lan-zentro bakoitzeko prekaritatearen azterketa zehatza abiapuntu izateko eta aldarrikapenetan prekaritatea murrizteko berariazko neurriak barneratzen ditugula ziurtatzeko. Era berean, negoziazioa blokeaturik duten esparruetan, bereziki administrazio publikoetan, prekaritatearen aurka aritzeko plangintza, trebakuntza eta laguntza hobeto diseinatzeko saiatzen ari gara, eraginkorrak izateko. Hau izan behar da abiapuntua, hurrengo urteetan prekaritateari aurre egiterako orduan eraginkortasun handiagoa izan dezagun.

251. Prekaritateari aurre egiteak ELAren lehentasuna izaten jarraitzen du. Horretarako, hurrengo urteetan langileen bizi-baldintzak hobetzeko, ezinbestean, negoziazio kolektiboan duten esparruetan, hitzarmenen edukietan prekaritatearen elementu nagusiei aurre egiteko neurriak barneratu behar ditugu. Helburu eta praktika hau negoziazio prozesuaren ohiko etapa bihurtu behar dugu, negoziazio oro prekaritateari aurre egiteko prozesu zehatz batean bilakatuz.

252. Esandakoak ondorengoak egitera behartzen gaitu:

- a) Hitzarmenen negoziazio prestaketa aurreratzera, lan-baldintzen azterketa sakona egin ahal izateko eta, bereziki, prekaritatea eragiten duten egoera eta faktoreak identifikatzeko.
- b) Egin ditugun azterketen ondorioz topatu ditugun prekaritate egoerei erabateko lehentasuna ematera hitzarmenetako gure aldarrikapenetan. Horrek langile guztiekin pedagogia sakona egitea eskatzen du. Alde batetik, prekaritatea pairatzen duten langileak beren egoeraren injustiziaz kontziente egiteko, eta bestetik, prekaritate horiek pairatzen ez dituztenak sentsibilizatzeko. Azken horiek ulertu behar dute prekaritate egoerak konpondu ezean, negoziazioetan gure indarra galduko dugula, eta horrek zuzenean eragingo diela beren lan-baldintzak hobetzeko aukeretan. Izan ere, prekaritatea pairatzen duten langileak nekez batuko baitira beren beharrak kontuan hartzen ez dituzten borroketara.
- c) Gatazkak antolatu, grebak deitu eta akordioak sinatzerakoan prekaritatearekin lotutako aldarrikapenak ezinbesteko bilakatu behar izatera.



253. Badira hainbat sektore, bereziki administrazio publikoak, patronalaren jarrera autoritarioaren ondorioz negoziaketa kolektibo arruntik ez daukatenak eta, oraindik, greba dinamika nahikoa indartsurik ezartzerik izan ez dutenak negoziaketa horiek behartzeko. Sektore horietan prekaritatea murriztu nahi badugu, ezin dugu hitzarmenaren negoziazioaren zain egon. Beraz, hitzarmen negoziazorik egon ez arren, prekaritatearen aurkako plangintzak martxan jarri behar ditugu, bestelako negoziazio dinamiketatik autonomoak izango direnak. Lehentasuna izan behar dute, besteak beste, lan-karga murrizteko edo arrisku psikosozialak ezabatzeko plangintzek. Plangintza hauek, prekaritateari aurre egin eta arazo garrantzitsuei heltzeaz gain, langileen antolakuntzan pausoak emateko aukera ere eman diezagukete, borroka eta negoziazio zabalago eta anbiziotsuago baten abiapuntu bihurtuz.

Prekaritatearen aurpegi anitzei aurre egin

254. Duela lau urte, Glovo fenomenoak aipatzen genuen digitalizazio prozesuen bidez ezartzen ari diren prekaritate molde berrien adierazle moduan. Azken urteetan, kapitalismo digitalaren erreferente diren hainbat enpresatan, Uber edo Amazon kasu, langileak antolatzea eta lan-baldintzak hobetzea lortu dugu. Bide honi eutsi eta lan-ildo honetan sakondu behar dugu hurrengo urteetan, sindikatuaren antolakuntza sor daitezkeen errealitate eta behar berrietara moldatuz.

255. Lehen ataletan aipatu moduan, eskulan merke eta esplotagarria izateko kapitalaren beharrak Euskal Herrira etorkizun hobe baten bila gero eta gehiago iristen diren pertsonen baliatzea eragin du. Pertsona hauek, gehienetan, lan-baldintza kaskarrenak dituzten enpleguetan ari dira, eta prekaritatearen forma larrienak pairatzen dituzte. Pertsona migratu hauen esplotazioaz aprobeztatzen diren enpresa eta lan-zentroetan borroka eta lorpen esanguratsuak izan ditugu, hala nola, Eroskiren biltegietako CECOSAn, Andoingo lorezainen artean, kale garbiketako hainbat zerbitzutan, etxez etxeko laguntza zerbitzuetan edo adinekoen egoitzetan.

256. Antolakuntza, borroka eta lorpen garrantzitsuak izanik ere, oraindik ez dugu lortu pertsona migratuek populazioan eta lan munduan duten adinako pisua izatea sindikatuaren dinamika eta borroketan. Hau zuzentzeko, migraturiko pertsona gehien dauden sektoreetara hurbiltzeko plangintzak martxan jarri behar ditugu, posible denean, hauteskunde sindikalen bitartez ordezkaritza lortu eta langileen antolakuntza bideratu, hauteskunderik egin ezin denean diskriminazio edo esplotazio egoerak salatu eta bideratzeko ekimenak bultzatu. Prekaritateari aurre egitea ekintza sindikalaren ardatzetako bat izateak, ezinbestean, migratu duten eta Euskal Herrira bizi diren langileak sindikatuaren lehentasun izatea ere bilatzen du.

257. Aniztasun funtzionala duten langileek ere pobrezia tasa eta prekaritate egoera oso larriak pairatzen dituzte. Horregatik, prekaritateari aurre egiteak pertsona hauen lan-baldintzak hobetzea ere bada. Aniztasun funtzionala duten langileen lan-baldintzak hobetzeko gida bat lantzen ari gara. ELAren militantziaren artean gida honen lanketa egitea eta lantresna gisa erabiltzea dugu hurrengo lau urteetako helburu. Bertan diogun moduan, gure xedea aniztasun funtzionala duten langileak lan-zentro arruntetan integratzea da, askoz ere lan-baldintza okerragoak dituzten Enplegu Zentro Berezieta bereizi beharrean, beti ere, integrazio hau modu egokian egiten dela bermatuz, langile hauek dituzten behar espezifikoak kontuan izanez.

258. Lan mundura sartu berri diren gazteak ere prekaritatearen parametro guztiak pairatzen dituzte: miseriazko soldatak, behin-behineko kontratuak edota partzialak, lan segurtasun eta osasun arazoak. Beraz, prekaritateari aurre egiteko, hurrengo urteetan gazteengan ere arreta berezia jarri behar dugu. Bai ohiko enpresetan sartzen diren gazteengan, baita bereziki gazteak kontratatzen edo gazteak esplotatzen dituzten enpresa eta jardueretan ere.

Lan osasuna, prekaritatearen ezkutuko aurpegia

259. Prekaritatea definitzen duten hiru ezaugarrietako bat lanak eragiten duen osasun galera da. Kasu batzuetan gaixotasun kronikoak, elbarritasunak edo heriotza eragiteraino. Euskal Herrian urtero 400dik gora langile hiltzen dira lan-istripu eta gaixotasunen ondorioz eta milaka zauritu edo gaixotu, baina politika publikoek ez dute arazo hau lehenetsi gisa hartzen.

260. Arazo larri honi aurre egin, prebentzio neurriak ezarrarazi, betetzea bermatu eta enpresen jarraipena egin eta behar diren zigorak ezartzeko, ELAk gutxienez 165 ikuskari izatea eskatzen du, 120 EAEn eta 45 Nafarroako erkidegoan. Izan ere, baliabiderik gabe, jarraipenik ezean eta osasuna eta bizitza arriskuan jartzen duten enpresen jarduerak gogor zigoritu gabe, nekez ekidingo baitira gertaera larri hauek. Ikuskari kopuru hau lortzeko ezinbestekoa da Nafarroan eskuduntza lortzea eta EAEn erabateko eskuduntza irabaztea. Honela, ikuskari kopuruaz gain, hauen hautaketa baldintzak, trebakuntza eta lan-irizpideak ezarri ahal izateko eta prekaritatearen aldeko apustua egin duten enpresei langileen lan osasuna arriskuan jartzea garesti atera dakien. Ikuskari gehiago izateaz gain, bere zereginetan langileen eskubideen bermatzaile izan daitezela lortu nahi dugu, gaur egun, sarritan, gertatzen ez den moduan.

261. Lan munduaren eta gizartearen eraldaketak ekarri dute lanak eragindako osasun galera nagusia arrisku psikosozialekin lotutakoa izatea, hein handi batean, jazarpenekin edo lan inguru eta giro ez seguruekin zerikusia duten egoerek eragindako kalte psikosozialak, alegia. Sindikatuan landu ditugun prekaritate mapek azaldutako datuak larritzekoak dira: mila langilek baino gehiagok adierazi du jazarpena jasaten dutela, bereziki emakumeek, eta lan-kargetik eragiten duten osasun arazoak dira prekaritate arrazoi nagusia. XXI mendeko pandemia isil honi erantzuten asmatu behar dugu.

262. Azken urteetan, kalte psikosozialak eta, modu berezian, jazarpen kasuak pairatzen dituzten lan zentroetako ordezkari eta afiliatuentzako laguntza sindikatuko Lan Osasun arloaren ia erabateko arreta eskatzen ari da. Arreta hori ematen jarraitzea ezinbestekoa da, baina egoera hau, arloaren egiteko nagusia den prebentzio neurrien promozioa eta lan osasuna zaintzeko legezko neurriak exijitzeko lana zailtzen ari da. Hurrengo urteetan, Lan Osasun Arloa eta Bidelagun Fundazioaren arteko elkarlanarekin, lortu behar dugu enpresentzat arrisku psikosozialak ekiditeko neurriak ez hartzea, hartzea baino garestiago ateratzea. Eta, horrekin batera, Lan Osasunarekin loturiko arazoei nola heldu aztertu behar dugu, ordezkari eta militanteek egoera ohikoenei aurre egiteko gaitasun eta baliabide nahikoak izan ditzaten eta arloko kideek lan osasun politiken, legeen eta prebentzio neurrien lanketarako denbora gehiago izan dezaten.

263. Badira lau urte Bidelagun Fundazioa abian jarri genuela. Urte hauetan, lorpen handiak eta berrikuntza esanguratsuak egin ditugu arlo juridikoan, lanak eragiten dituen osasun galerei aurre egiteko. Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo erreferentzia garrantzitsu bihurtu gara, bai agente judizialen artean, bai langileen artean, baita komunikabideetan ere. Datozen urteetan metatzen ari garen ezagutza juridikoaren transmisio egokia egiteko bideak eraiki behar ditugu, bai enpresetako gure ordezkarietako ohiko harremanetan hobekuntzak eragiteko, baita zerbitzu juridikoen ohiko funtzionamenduan erabil dezagun. Ezagutza honen transferentziak eta koordinazio hobekuntzek, Bidelagun are tresna hobea izatea ekarriko dute eta gure lana eraginkorragoa Lan Osasuna babestu eta bermatzerakoan.



4.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBO FEMINISTAN SAKONDU

264. Sindikatuan eginiko Genero Ekitaterako diagnostikoaren bidez bi arazo nagusi topatu genituen gure negoziazio kolektibo ereduari. Batetik, lan zentroetako baldintzak aztertzeak sistema egoki baten falta eta, ondorioz, gizonetzkoen behar eta interesak emakumeenei gailentzea. Bestetik, hitzarmenen negoziazioan, genero diskriminazioa estaltzen duten ustezko interes orokorren defentsan emakumeek pairatzen dituzten desoreka eta diskriminazioak betikotzeko arriskua. Esaterako, langile guztientzako soldata igoera bera eskatzeak, lan zentro askotan emakume gehienak lanaldi partzialean dihardutenean, diskriminazioa bere horretan betikotzea edo areagotzea ekar dezake.

265. Hori da, hain zuzen ere, gure Genero Ekitaterako Plan Estrategikoaren abiapuntua. Arazo horiei aurre egiteko:

- a) Lehenik, lan-baldintzei buruzko informazioa biltzeko eta langileen behar eta interesak jasotzeko moldeak aldatzea erabaki dugu, genero irakurketak egiteko aukera eman diezagun eta emakumeen diskriminazio egoerak antzeman ditzagun.
- b) Bigarrenik, emakumeek modu berezitan izan ditzaketen behar praktikoak eta interes estrategikoak eta horien baitako aldarrikapenak jasotzeko eta erabakigutietan lehentasuna izateko prozedurak martxan jarri ditugu.
- c) Eta, azkenik, emakumeek pairatzen dituzten prekaritate egoerak bereziki salatzea erabaki dugu eta, eragin handiagoa izan dezaten aliantza feministak eraikitzen saiatzea.

266. Erabaki horien arabera, emakumeek gidatuta eta protagonista izanez, lan-zentroetako informazioa jasotzeko barne-inkestak berrikusi ditugu, prekaritatea zer den birdefinitu dugu, militante gizonetzkoek negoziazio kolektiboko prozesuetan negoziaketa feministak egiteko trebakuntzak diseinatu ditugu edo negoziaketa feminista bat aurrera eramateko plan pilotuak egin ditugu hainbat sektore eta lan-zentroan, emakumeen beharrak eta interesak lehenetsiko dituen negoziazio bat garatzeko.

267. Hurrengo lau urteetan bide honetan sakondu beharko dugu eta, bereziki, bi helburu ezartzen ditugu:

- a) Negoziazio guztien abiapuntua genero azterketa egoki bat izan dadin, lan-zentro bakoitzean inkestak bete, informazioa jaso eta aztertu, generoaren baitako informazio berezia jasotzeko diseinatu ditugun instrumentuak erabiliz.
- b) Negoziaketa feministak egiteko plan pilotuetan ikasitakoa sindikatu barnean orokortu eta, honela, negoziaketa guztiak prestatzerakoan, gizon eta emakumeek bizi dituzten egoera ezberdinak eta emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio egoerak kontuan izan behar ditugu, emakumeen behar eta interesen baitako aldarrikapenak lehentasun bilaka daitezten. Horretarako, ezinbestekoa da emakumeak negoziazio kolektibo prozesuetako protagonista izatea, bai sektore feminizatuetan baita, bereziki, maskulinizatuetan ere. Gizonetzkoek, bereziki sektore maskulinizatuetan, negoziaketa feministak egiten lagundu dezaten, gure militanteekin trebakuntza indartu behar dugu.

268. Negoziazio kolektiboaren prozesua zeharka eraldatu nahi dugu, ematen dugun pauso bakoitzean genero ekitatea bultzatzen dugula bermatzeko. ELA, emakumeek lan munduan bizi duten diskriminazioa gainditzeko tresna eraginkorragoa bilakatu nahi dugu.

269. Halaber, horrenbestetan aipatu ditugun greba eta mobilizazio ereduak berrikusten jarraituko dugu, berauek antolatzekeo moldeak inor kanporatu ez dezaten eta langile, genero, gorputz eta bizitza molde ezberdinekin bateragarriak izan daitezen.

4.5. PARTE-HARTZEA ETA PLANIFIKAZIOA INDARTU EMAITZAK HOBETZEKO

270. Gure eredu sindikalak langileen inplikazioa ezinbestekoa du. Langileen mobilizazioek dakartzate negoziazio on baterako aukerak eta lan-baldintzak modu esanguratsuan hobetzeko parada. Beraz, sindikatuaren egitekoa negoziazio kolektiboa dinamizatzeko prozesua parte-hartzailea izango dela bermatzea da, ideologizaziorako espazioak sortzea, ertzetan aurkitzen diren langileen behar eta interesak jasotzea, greba abiatu baino lehen langile kopuru esanguratsu batek irauteko gaitasuna duela bermatzea, Greba Kutxa kobratu dezaketan afiliatu kopuru handia dagoela ziurtatuz, eta abar. Finean, negoziazio kolektiboa ondo planifikatu behar dugu.

271. Askotan esan izan dugu negoziazio kolektiboa eta sindikalizazioa txanpon beraren bi aurpegiak direla. Sindikalizazio eta antolakuntza egoki batek ematen dio oinarria negoziazio kolektibo arrakastatsuei eta, era berean, ongi planifikatutako negoziazio kolektibo prozesu batek langileen ahalduz eta gure militanteen sendotzean eta antolakuntza egokian lagundu dezake.

272. Negoziaietak garaiz prestatzea da lehen urratsa. Datozen lau urteetan negoziazioen prestaketa hitzarmen edo akordioek beren indarraldia galdu baino urtebete lehenago hasiko dugu, prozesuan zehar eman beharreko pauso guztiak eman eta egitekoak betetzeko denbora izan dezagun.

273. Urtebeteko epe horretan landu beharreko edukia prestatzeko, sindikatu osoaren lehentasunak edota eduki berriak landuko ditugu urtero. Horretarako, oinarritzat hartuko ditugu aurreko urteko esperientziak, langileengandik jasotako iritziak, lan zentro ezberdinetako lan-baldintzen azterketak edo emakumeen sozializazio esparruen ondorioak eta, posible den heinean, prozesu parte-hartzaileak egingo ditugu.

274. Federazioetako kideek sektore edo lan-zentro bakoitzeko militanteekin negoziazioa prestatzeko prozesuak adostuko ditugu. Prozesu horrek bi helburu nagusi izango ditu, Kongresu honetan adostu ditugun lehentasunezko lan-ildoei buruzko pedagogia egitea lan-zentroetan eta sektore eta lan-zentro bakoitzeko langileen iritzia jasotzea, emakumeen behar praktikoa eta interes estrategikoak bereiziz.

275. Lan-zentro eta sektoreen lan-baldintzen azterketa egiteko bi tresna erabiliko ditugu: lan-zentroetako Inkesta eta Prekaritate Mapa. Bi tresna hauen helburua, modu sistemati-koan, sektore edo lan-zentroetako arazoak azaleratu eta antzematea da, gure militanteek beraien sektore edo lan-zentroetako analisi objektibo bat egiteko informazio esanguratsua izan dezaten. Tresnak erabiltzerakoan generoaren baitako galdera espezifikoko kontuan izango ditugu eta generoaren baitan bereizitako datuak jasoko, genero diskriminazioak antzemateko eta behar eta interes ezberdinak identifikatu ahal izateko. Izan ere, arazo edo diskriminazio ugari oharkabea pasatzen zaizkigu, horien inguruko galdera zehatzik egiten ez dugulako edo arazo horietan arretarik jartzen ez dugulako. Horren adibide dira prekari-tate mapak egiten hastean antzemandako 200dik gora sexu-jazarpen kasuak.

276. Langileen iritzia zuzenean jaso eta landuko dugu inkesta, bisita eta batzarren bidez. Langileen iritzia jasotzeko garrantzia berezia du. Alde batetik, horrek aukera ematen di-gulako beraien arazo nagusi, kezka eta nahiak aldarrikapenetan txertatzeko. Eta bestetik, beraien arazo, kezka eta nahiak aldarrikapenetan txertatuta ikusteak aldarrikapen platafor-



marekin identifikatzen eta bere defentsan inplikatzeko laguntzen duelako. Gainera, langileekin harremanak aukera ematen digu, lan-zentroko begirada soiletik egiterik ez dagoen, lan munduari buruzko ikuspegi orokorra elkarbanatzeko, langile klasearen interesak jokoan dauden eremu ezberdinak lantzeko eta ponentzia honetan ezartzen ditugun lehentasunekiko atxikipena bilatzeko.

277. Lan zentro eta sektoreetako lan-baldintzak aztertzean, zerbitzu juridikoetan jasotzen eta metatzen dugun informazioa eta ezagutza partekatzea oso garrantzitsua da. Alde bateatik, lan-zentro horietako gure eskaerak sektore edo lan zentro horietan ematen diren arazo juridikoen arabera egokitzeko eta, bestetik, zerbitzu juridikoetatik negoziazio prozesuan eman daitekeen laguntza definitzeko. Zerbitzu juridikoetan izaten ditugun garaipenek sarritan negoziazio prozesuak baldintzatzen dituzte langileen alde, eta aukera hau behar bezala koordinatzea ezinbestekoa da.

278. Prozesu honetatik abiatuta eraikiko ditugu sektore edo lan-zentro ezberdinetako plataformak. Patronal edo enpresaburuei plataforma horiek aurkeztu aurretik, langileekin eta, bereziki, gure militantzia eta afiliatuekin kontrastatuko ditugu. Prozesu honetan afiliazioa kontuan izan eta garrantzia eman behar diogu. Afiliatuek egiten dute posible sindikatua eta afiliazioa da sindikatuaren egunerokoan parte-hartzeko bide zuzenena, baita militantzia lantzeko, ideologizatze eta borrokatze tresnetara bide ematen duena ere (greba kutxa, zerbitzu juridikoak, azterketa ekonomikoak, trebakuntza, sindikatuaren hausnarketa eta argitalpenak...).

279. Hainbat sektore eta enpresetan negoziazioa hasi aurretik badakigu patronalak beste sindikatu batzuekin adostasuna nahiko erraz erdietsiko duela, eduki eskasekin edo arazo sakonei erantzuten ez dieten edukiekin. Hori gertatzen da, esaterako, Nafarroako hainbat sektoretan. Sektore edo lan-zentro horietan langileekin beraien arazo, behar eta interesen baitako edukien lanketa egiteak zaildu egiten du beste sindikatuak edozer sinatzea eta borrokarako bidea irekitzen laguntzen du. Sektoreko negoziazioetan, langileek landuriko edukiekiko konpromiso handia izateak, nahiz eta beste sindikatuak sektoreko hitzarmen eskasak sinatu, enpresa edo lan-zentroetan negoziazio esparruak irekitzeari bide ematen dio.

280. Negoziazio prozesuan zehar ere informazio eta komunikazio zuzena eta etengabea izan behar dugu militante eta afiliazioarekin, negoziazioen nondik norakoan berri momentu oro eta lehen eskutik izan dezaten. Enpresak eragozpenak jartzen dituenean edo gure proposamenei ezezkoa ematen dionean, berehala jakin arazi behar diogu afiliaziori, jendea desaktibatu eta negoziazioak erabat geldiarazi aurretik, mobilizazio eta greba dinamikak martxan jartzeko.

281. Militante eta afiliatuekin egiten dugun komunikazioaz gain, komunikazio estrategia orokor bat hasieratik izan behar dugu kontuan. Komunikazioa, negoziazioen prestaketaren parte bilakatu behar dugu. Komunikazio estrategia egoki batek patronalen jarrera baldintzatzen lagun diezaguke, grebak elika ditzake, jendartearen gure alde lerroka dezake eta, ongi aditzera emandako garaipenek, beste langile batzuen borrokak hauspo ditzakete. Horregatik, negoziaketa prozesu bakoitzak bere komunikazio estrategia behar du, bai langileekiko baita gizartearekiko ere, modu berezian, mobilizazioek herritarrengan eragin zuzena badute.

282. Prozesu hau horrela egiteak ez du arrakasta bermatzen, baina prozesuak ondo egin ezean arrakastarako aukerak asko gutxitzen dira. Esan dezakegu prozesu hauek inork baino hobe egiten ditugulako jasotzen dugula langileen atxikipena, baina oraindik badugu hobetzeko tarterik. Prozesu hauek hobetzea lortzen dugun heinean, langile gehiagoren atxikipena eta atxikipen sendagoak lortzeko aukerak zabaltzen ditugu. Finean, konfrontaziorako gaitasuna handitzen dugu, grebarako aukerak zabaltzen eta lan hitzarmen hobeak lortzeko aukerak biderkatu.

4.6. MOBILIZAZIO ETA GREBA GEHIAGO EDUKI ANBIZIOTSUAGOAK LORTZEKO

283. Gure negoziazio kolektiboaren indargune nagusietako bat kolektiboki gutxieneko helburu batzuk ezartzea eta toki guztietan horiekiko koherentziaz aritzen saiatzea da. Jarrera koherente honek eragiten du patronalak ELArekin akordiotara iristeko beharra duenean, mobilizazio indartsuek eta esparru horietan ELA duen ordezkaritza handiak behartuta, akordioak eduki horien bueltan egitea. Lan-zentro edo sektore ugaritan gutxieneko eduki horien azpiko akordioak sinatuko bagenitu, asko zailduko genuke beste esparruetan patronala gutxieneko eduki horiek sinatzera behartzea, patronalak jakingo bailuke zirrikituren bat aurki dezakeela eduki eskasagoak sinatzeko. Era berean, eduki horien baitako garaipenak eta hitzarmenak lortzen ditugun heinean, erreferentziak ezartzen ditugu beste toki batzuetan langileak antzeko edukien alde antolatu eta borrokatzera animatzeko.

284. Beraz, modu orokorrean, hitzarmen guztietan defendatuko ditugun edukiak ondo aukeratzea eta eduki horiek ongi sozializatzea garrantzitsua da. Izan ere, gure militantzia eduki horrekin identifikatua sentitu behar baita, bere egin eta negoziazio prozesu bakoitzean defendatu behar baititu. Era berean, aldarrikapen horiek gizartearen eraldaketa bidean kokatu behar gaituzte, langileek lorgarri direla ikusi behar dituzte eta mobilizaziorako pizgarri izan. Prozesu hau ongi egiten dugunaren adierazle da ELA Hego Euskal Herrian greba gehien deitzen duen eta lan-baldintzen hobekuntza handienak lortzen dituen sindikatua izatea. Edozein kasutan, beti zaindu eta hobetu behar dugu edukien aukeraketa eta sozializazioa, geroz eta langile gehiagorengana iritsi eta mobilizatzeko.

Bermatu beharreko eduki nagusiak

285. Hurrengo lau urteetako negoziazioetan, modu orokorrean, lau eduki nagusi bermatu nahi ditugu, bai eremu pribatuetako lan hitzarmenetan baita esparru publikoetako akordio arautzaileetan ere:

- a) Lan-prekaritatea mugatu edo desagertzeko neurriak hartzea.
- b) Langileek eros-ahalmena irabaztea.
- c) Lanaldia murriztea.
- d) 2012ko lan erreforma mugatzeko neurriak ezartzea.

286. Era berean, Genero Ekitaterako Plan Estrategikoaren garapenaren bitartez, zeharka, negoziazio kolektiboa emakumeek pairatzen duten diskriminazio egoera gainditzeko eta emakumeek espezifikoki dauzkaten aldarrikapenei erantzuteko tresna bilakatu behar dugu.

287. Lan-prekaritatea mugatu edo desagertzeko neurriak hartzeak esan nahi du, lan hitzarmen bakoitzean akordiora iristeko sektore edo lan-zentro horretan pairatzen duten prekaritate elementu nagusienari aurre egiteko aldarrikapen zehatz bat jaso behar dela. Ez digu balio asmo hutsak jasoko dituen edo beteko ez den adierazpen hutsal soila egiteak. Ziurtatu behar dugu aldarrikapenek gauza zehatzei erantzuten dietela eta lan-zentro bakoitzean gauza daitezkeela. Ildo honetatik, azken urteetan subrogazio eskubidea bermatzera koan aurrerapauso handiak eman ditugu. Subrogazio eskubidea bermatzeak eta orokortzeak oso garrantzitsua izaten jarraituko du ELArentzat hurrengo urteetan, azpikontratatuak dauden langileentzat funtsezko aldarrikapena baita ezegonkortasun eta ziurgabetasunak sortzen duen prekaritatetik ateratzeko.

288. Langileek aberastasunaren banaketan pisua irabazteaz ari garenean, KPItik gorako soldata igoera garrantzitsuak sinatzea ezinbesteko dugula esan nahi dugu. Izan ere, az-



ken lau urteetan KPI handiak izan dira, baina patronalak KPItik beherako soldata igoerak sinatu nahi izan ditu. Honek esan nahi du kapital errentek egoeraz aprobetxatzen saiatu direla aberastasunaren banaketan are pisu handiagoa irabazteko, langile klasearen kontura. Enpresariak pultsu gogorra egin digute soldatekin eta, ondorioz, negoziaketa askotan KPIa bermatze hutsa garaipen gisa hartu izan da. Barne Produktu Gordina hazten ari den testuinguru batean, aberastasun banaketa mantentzeko eta eros-ahalmena irabazi ahal izateko, langileok KPItik gorako soldata igoera garrantzitsuak bermatu behar ditugu. Hurrengo urteetan hau izan behar da gure helburu nagusietako bat. Soldata baxuagoak dauzkaten sektore feminizatuetan are soldata igoera garrantzitsuagoak aldarrikatu behar ditugu, eta soldata arrakalak objektibatzeke gai garenean, soldata arrakala gaitzitzea izango da ELAren helburua. Eros-ahalmena irabazteak ekarri behar du gutxieneko soldata gisa ezarri dugun Biztanleko Barne Produktu Gordinaren %65era progresiboki iristea, momentu oro ezartzen joango garen helburuen baitan.

289. Lan eta bizi-baldintzak hobetzeko, trantsizio ekosozialean aurrera egiteko eta zaintza erdigunera ekartzeko, lanaldi murrizketa ezinbestekoa dugu. 2024ko abenduan Espainiako Gobernuak urteko lanaldia progresiboki 1.712 ordua murriztea adostu zuen CC.OO. eta UGT sindikatuekin. Diputatuen Kongresuan onartzekotan, Hego Euskal Herrian garapen mugatua izango duen neurria izango da, hemen sinatutako hitzarmen gehienek jadanik lanaldi txikiagoak jasotzen zituztelako. ELAk EAJ eta EH Bilduri eskatu die legea onartzeko beren ezinbesteko boza balia dezatela legearen kongresuko tramitazioan lanaldiaren arauketa Euskal Herrira eskualdatzeko, izan ere, Hego Euskal Herriko gehiengo sindikala kontuan izanda, lanaldia nabarmen murrizteko baldintzak baitaude.

290. Trantsizio ekosoziala gauzatzeko elementu nagusietako bat mundu mailako produkzio maila murriztea izango da. Murrizte hau, langile klasearen eskubide eta interesak defendatuz gerta daiteke edo planetaren muga biofisikoei eraginda langileok zapalduz. Beraz, enplegu suntsiketa orokorrik ekarzerik nahi ez badugu, ezinbestean lanaldi murrizketa erradikalak behar ditugu. Horrez gain, lanaldi murrizketa da gizarte guztiak zaintza beharrei lehentasuna emateko modu bakarra, soldatapeko lanetik askatuta soilik izango baitugu denbora kolektiboki zaintza lanak ere antolatzeke. Beraz, 90. hamarkadan egin eta lortu moduan, lanaldi murrizketek gure negoziazio kolektiboaren erdigunera bueltatu behar dute, oraindik 35 orduak lortu ez dituzten sektoreetan helburu hori gauzatu dadin eta 35 orduetan ari direnek 30erako bidea egin dezaten.

291. 2012tik aurrera ELAren negoziazio kolektiboa beste sindikatuekiko ezberdina izan da. Gainerako sindikatuek Mariano Rajoyren lan erreformak ezarritako joko zelaia onartu duten bitartean, ELA lan-zentroetan lan erreforma bertan behera geratzeko neurriak bultzatu ditugu, ahal den neurrian behintzat. ELArentzat oso garrantzitsua izan da sindikatu eta enpresarien arteko akordioak enpresariak aldebakarrez aldatzerik ez izatea. Hau da, lan hitzarmenek bi aldeek artean duten kontratu izaera mantentzea, eta horretarako aldebakarreko inaplikazioaren aurkako klausula bultzatu dugu sinatu ditugun hitzarmenetan. Lan erreformak ezarritako araudi honek bere horretan jarraitzen du, beraz, hurrengo urteetako negoziazio kolektiboan aldebakarreko inaplikazioaren aurkako klausula eskatzen jarraitzea ezinbestekoa izango da.

292. Hainbat lan-zentroetan, funtsezko eduki eta aldarrikapen hauekin batera, ezinbestekoak diren beste gai batzuk ere jorratu behar ditugu. Hainbat azpikontrata publikoetan zerbitzuak publikatzeko borrokatuko dugu. Iraganeko borondate politiko ezaren ondorioz, publikazio prozesu gehienek urte luzez azpikontratatu eta lan-baldintza okerragoetan ziharduten langileen kaleratzea suposatu du. Europako auzitegien epaiek, ordea, aukera berriak ireki dituzte langileen subrogazioa bermatzen duten publikazioak bultzatzeko. Hori izango da gure helburua, besteak beste, etxeko laguntza zerbitzuetan, garbikuntzan edo anbulantzetan.

293. Aipatutako lau aldarrikapen nagusi horien bueltan dinamizatu behar da ELAren negoziazio kolektiboa. Baina esparru guztietan bermatu behar ditugun aldarrikapen hauekin batera, ezinbestekoa da lan-zentro edo sektore bakoitzeko lan-baldintzen azterketa zorrotza egitea eta tokian tokiko langileen arazo, kezka eta nahiak jasoz lan-zentro edo sektore bakoitzera egokituriko aldarrikapen taula eraikitzea

Kontuan izan behar ditugun eduki garrantzitsuak

294. Aurreko aldarrikapenekin batera, ELAren izaera eta ikuspegi politiko eta sozialaren adierazle diren beste hainbat aldarrikapen ere eraman behar ditugu negoziazio kolektibora. Egitura kapitalista, kolonial, euskarafobo, ekozida eta heteropatriarkalak jendartearen eta lan munduaren ertzetara desplazatzen dituen langileak sindikatuaren erdigunera ekarri nahi ditugu. Diskriminazio ezberdinak jaso eta bizi eta lan-baldintza okerrenak ematen zaizkien pertsonen egoera hobetzea da ELAren egiteko nagusia, ertzetara desplazatu dituztenei erdi-gunean espazioa emanez soilik eraikiko baitugu klase nortasun anitz, inklusibo eta indartsu bat. Hurrengo hauek dira azpimarratu nahi ditugun aldarrikapenak.

295. 2024ean, prozesu parte-hartzaile bidez, negoziazio kolektibo bitartez trantsizio ekosoziala bultzatzeko eskaera eraginkor eta egingarriak adostu genituen. Bigarren atalean jada aipatu ditugu helburu horretarako hainbat neurri, hala nola, emisio edo zaborren sorrera murriztea, langileen mugikortasuna hobetzea, elikadura burujabetza sustatzea eta enpresen birlokalizazioa laguntzea. Pauso asko ditugu emateko, baina eskaera txiki baina esanguratsu hauek gure negoziazio kolektiboan txertatzea garrantzitsua izango da hurrengo urteetan.

296. Trantsizio ekosoziala bultzatzeko helburuarekin, enpresen berreskurapena ere aztertzen ari gara. Talaios kooperatibarekin elkarlanean, enpresari edo kapitalak itxi nahi dituen edo jada interesik ez duten enpresak langileen kontrolpean kokatzeko aukerak jorratzen ari gara, enpresa horien ekoizpena trantsizio ekosozialaren logikan kokatuz. Trantsizio hauek gauzatzeko enpresa horietan sindikatuak izan behar duen lekua eta rola azertu dugu eta, Negoziazio Kolektiboko Gabinetearen eta Konkurtso eta EREen Taldearen laguntzarekin, hainbat enpresetan prozesu hauek gauzatzeko froga pilotuak landuko ditugu. Krisi egoerei aurre hartzea, enpresen egoera arazoak heldu aurretik ezagutzea eta langileentzako alternatibak garaiak aktibatzea nahi dugu, enpresa itxierak eta kaleratzeak ez daitezen aukera bakarra izan.

297. Euskal herritar orok izan beharko luke euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea bermatua, baina eskubide hau sistematikoki zapaldua da, bai enpresa pribatuetan zein administrazio publikoetan. Lan-zentroetan erdaraz lan egiteko eskubidea soilik dago bermatua eta ez dago ausardia politikorik inposaketa hau salatu eta epe jakin batean langileen hizkuntza eskubideak berma daitezen neurri zehatzak hartzeko. Hala nola, euskara ikasteko laguntzak, liberazioak edo enpresentzako obligazioak...

298. ELAk lortu du Gipuzkoako metalean, Bizkaiko zahar egoitzetan edo Gipuzkoako metalaren merkataritzan Euskara Planak negoziatzera derrigortzen duen araudi markoa. Orain Euskara Plan horien edukia garatzea dagokigu, tokian tokiko errealitatea abiapuntu izanik eta urratsez-urrats lan-zentro guztietan hizkuntza eskubide guztiak errespetatuak izan daitezen.

299. EAEko Administrazio Publikoetan, 15 urteko epean modu progresiboan eta euskararik ez dakiten langileei laguntza eskainita, administrazioak erabat elebidunak izateko programa adostu genuen LAB eta Kontseiluarekin. Baina gobernuek muzin egin zioten proposamenari. Ezezo honen aurrean, lan-zentroz lan-zentro logika berean euskararen egoera normalizatzeko akordioak bilatzea beste biderik ez digute uzten. Nafarroan abiapuntua okerragoa da eta gobernuak euskaren aurkako jarrera argia du. Zonifikazioarekin amaitu nahi dugu eta



euskara administrazioaren hizkuntza izan dadila eremu guztietan, baina oztopoak ikusita, hemen ere lan-zentroz lan-zentro euskara normalizatzeko akordioak bilatzen saiatuko gara.

300. Heteropatriarkatuak inposatzen duen sexu eta genero nortasun bitarretik aldentzen diren pertsonak jendartean eta beraien lanpostuetan diskriminatuak dira. Hitzarmenetan LGTBI pertsonak babesteko eta sustatzeko neurriak hartzea, langileen hautazko izenaren arabera izendatuak izateko eskubidea jasotzea, trantsizio prozesuetan lizentziak izateko aukera izatea edo familia eredu tradizionaletatik kanpo eskubide guztiak bermatzea aldarrikatu behar dugu, esaterako, langile guztientzat, kontziliazio neurriak loturagramen arabera arautzea, zaintza sare zabal eta anitzagoak ere aitortuz.

301. Gure herriko lan-zentroak gero eta anitzagoak dira, baita pertsonen jatorriari dagokionez ere. Hurrengo urteetan ere, jatorria beste lurralde batzuetan duten eta gure herrian bizi diren pertsona gehiago izango ditugu gure lan-zentroetan. Hitzarmenetan herritar berri hauek Euskal Herrian errotzen lagunduko duten neurriak jaso behar ditugu, gure kultura ezagutzeko eta euskara ikasteko laguntzak, esaterako; eta hau gertatu bitartean, beren oinarrizko lan-eskubideak ezagutu eta balia ditzaten, beren jatorrizko hizkuntzetan oinarrizko informazioa jasotzeko eskubidea edo itzulpen zerbitzuak bermatuz. Langile hauen behar espezifikoak ere jaso behar ditugu negoziazio kolektiboan, egoera administratiboa erregularizatzeko baimenak, opor egunak sinismen ezberdinen baitan egokitzeak aukera edo familiartekoak bisitatzea joan ahal izateko moldatzea, baita beraiekin eginiko lanketan sor daitezkeen beste batzuk ere.

302. ELAren balio eta aldarrikapenetan dauden beste hainbat eremu, modu partzialean bada ere, landu ditzakegu negoziazio kolektiboan. Hala nola, militarismoa eta gerrari aurre egiteko neurriak, bazterkeria sozialaren aurkako ekimenak edo etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ere bidera ditzakegu lan hitzarmenen bidez. Bide honetan sakontzen jarraituko dugu, negoziazio kolektiboaren bidez ere gizarte hobe baten eraikuntzan lagun dezagun.

303. Azken urteetan, pentsio erreformen eta errelebo kontratua zigortzearen ondorioz, langileen batzuek besteko adinak gora egin du eta lan osasun arazo gehiago dituen langile talde handiagoa dugu. Negoziazio kolektiboaren bidez, erretiro adina aurreratzeko formulak bilatu behar ditugu, erretiro partziala orokortzea plantillen gaztetzea bermatzeko eta feminizatutako sektoreetan ere erabilgarri izan dadin, eta adinean aurrera doazen langileen osasuna eta ongizatea bermatzeko berariazko lan osasun prebentzio neurriak bultzatu behar ditugu.

304. Lan osasunarekin lotuta, lan-zentro guztietarako baliagarriak diren aldarrikapen ugari ditugu, baina lan-zentro bakoitzaren egoeraren baitan egokitu beharrekoak. Edozein kasutan, hitzarmen guztietan, enpresarien mutualitateak metatzen ari diren kontrol eta botereari aurre egiteko neurriak hartu behar ditugu, bai gaixotasun arrunten baita gaixotasun profesionalen artapena ere, osasun publikoaren bidez egiteari lehentasuna emanez.

305. 2024an Hego Euskal Herriko hitzarmenek lehentasuna berreskuratu izanak aipatutako eduki hauen guztien alde borrokatzeko aukera bermatu digu, Espainiar Kongresuak kontrakoa erabakitzen ez duen bitartean behintzat. Borroka eta greben bitartez Euskal Herrian negoziatu eta adostutako hitzarmen gehiago bultzatuko ditugu, legezko lehentasun hori Euskal Herriko langileentzako hitzarmen onetan gorpuztu dadin. Hau baita Euskal Herriko Lan Harremanen Esparruari ELAk egin diezaiokeen ekarpenik behinena, Euskal Herria langile borrokarako lurraldea izatea, hain zuzen.

306. Negoziaketa prozesuak ondo planifikatzea eta langileen behar eta interesekin bat egin duten aldarrikapenak modu egokian aukeratzea da grebak egiteko aurrebaldintza. Atal honetan azaldu dugun moduan, grebek baldintzatu dituzte negoziazio kolektiboan izandako emaitzak eta horrela izango da aurrerantzean ere. ELAk badu Greba Kutxa indartsu bat,

baditu baliabide juridikoak, azterketa ekonomikoak egiteko gaitasuna, alor ezberdinetako laguntza bereziak eta, garrantzitsuena, hau guztia langileen esku jartzeko militanteak eta borondate irmoa.

307. Atal honi amaiera emateko, esan dezakegu ELAn badugula zer hobetua, baina hobekuntza horren abiapuntua ez da norabide aldaketa bat, gure hautu estrategikoetan sakontzea baizik. Horretan arituko gara datozen lau urteetan, ertzetara desplazatuak izan diren langileek, bereziki emakumeek, erdigunea hartzeko ahaleginean, langile klasea boteretzeko prozesuan prekaritateari aurre egiten, eta borroka eta greben bidez lan-baldintzak hobetzen.



5 >>>

LAN SINDIKALA HOBETU, MILITANTZIA SENDOTU ETA LAN-ZENTROAK ANTOLATU LAN- ETA BIZI-BALDINTZAK BORROKATZEKO

308. ELArentzat ezinbestekoa da antolakuntzaz hausnartzea. Antolakuntza da, testuiguru eta garai bakoitzean, gure indar korrelazioa hobetzeko dugun tresna nagusienetakoa.

309. ELA langile klaseak bere interesen defentsarako eraturiko proiektu militante eraldatzailea den heinean, ezinbestekoa dugu oinarri militante zabal bat eta antolakuntza on bat izatea. Gure proiektua kolektiboa da eta militanteak dira gure oinarria. Oinarri horretatik eraiki nahi dugu botere sindikala gizarte eta bizitza hobe bat izateko. Kolektibo horren eraikuntza-lana da antolakuntza.

310. ELAk etengabe egokitu eta berritu du sindikatuaren antolakuntza. Egun esku artean ditugun antolakuntza erronka nagusiak, kongresu arteko epe honetaz harago doaz. Ildo estrategiko gehienak aurretik datoz eta ponentzia honen helburu den epearen ondoren ere jarraituko dute. Afiliazioa zabaldu eta sendotu, hauteskunde sindikaletan ordezkaritza sendotu eta gure eremua zabaldu, lan zentroak sindikalizatu, militantzia landu, antolatu eta zaindu, gure lan egiteko moduak hobetu, zerbitzu juridikoen lana findu... hein batean, inoiz erabat bukatuko ez diren lan-ildoak dira, kongresuz-kongresu berresten, fintzen eta hobetzen joan behar garenak.

311. Era berean, lan munduaren aniztasuna kontutan hartuta, errealitate ezberdinetara egokitzen jarraitu behar dugu, bereziki sektore feminizatu eta prekarioenetara hobeto helzeko prestatuta egon behar da gure antolatze modua.

312. Guzti hau kontutan hartuta, hurrengo lau urteetan ondorengo lan-ildoak proposatzen ditugu, beti ere gure antolakuntza eredua gero eta eraginkorragoa izateko.

5.1. AFILIAZIOA ETA ORDEZKARITZA HOBETU, OINARRIA ETA ZILEGITASUNA HANDITZEKO

Afiliazioa egonkortu eta zabaldu

313. ELAko militanteok ongi dakigu, afiliazioan eta hauteskunde sindikaletan sendo egotea ezinbestekoa dela proiektuaren hedapenerako. Hurrengo lau urteetan ere, afiliazioa modu sistematikoan lantzen jarraitu behar dugu, gure autonomia sindikala eta lan-zentroetako botere sindikala eraikitzeke oinarria baita.

314. Aipamen berezia egin nahi diogu emakumezkoen afiliazioari, izan ere, azken urteetan nabarmen handitu da, bai kopuru absolutuan baita proportzioan ere. Hurrengo urteetan bide honetan jarraitu behar dugu, analisi eta lanketa espezifikoak martxan jarrita. Laster, emakumeak gehiago izango izango dira ELAren afiliazioan. Aspaldi dira gehiago Zerbitzuak eta Gizalan federazioetan eta gorantz doaz Industria eta Eraikuntzan. Datu hauek ELAk lan mundu berri eta prekarioan modu arrakastatsuan txertatzeko izan duen gaitasuna adierazten dute. Genero ekitaterako antolakuntza planaren garapenarekin gehiago kuantitatibo hori sindikatuaren bisioan, kulturean, estrategian, erabakietan, eta sindikatuaren gainerako alor eta jardueretan ere islatzen lagundu behar digu. Sexu-genero sistema normatibotik edota heteroarautik kanpo kokatzen diren pertsonentzat ere ELA erreferentziazko sindikatu izatea nahi dugu eta gure afiliazioan geroz eta pisu handiagoa izatea. Pertsona hauek sindikatuaren babesa eta bidelaguntza izan dezaten lan egingo dugu datozen urteetan.

315. Bestalde, gure afiliatuen artean gero eta pertsona migratu gehiago daude, eta horrek haien behar espezifikoak ulertu eta estrategia egokiak garatzeko beharra dakar. Langile migratuak sindikatuaren integrazioa ezinbestekoa da. Sindikatuak espazio seguru eta inklusiboa dela senti behar dute. Hizkuntza eta kultura aniztasunak erronkak jotzen dizkigu, baina baita sindikatuak aberasteko eta egoera zaurgarrian dauden langileengana hurbiltzeko aukerak ere. Prekaritateak bereziki gogor kolpatzen ditu migratu eta arrazializatuak, lanpostu prekarioenak jasaten baitituzte. Horren aurrean, ELA moduko klase sindikatu batek aniztasuna bere egiteko konpromisoa hartu behar du, langile migratuen parte-hartzea sustatzeko eta estrategia inklusiboak garatzeko, indar handiagoz Euskal Herri justu eta burujabe baten alde egiteko.

316. Era berean, gazteen afiliazioa ere landu behar dugu. Gazteak pairatzen ari diren prekaritateak eta lan molde berriek, gazte gehiago erakarri beharko lituzkete sindikatuaren babesera eta antolakuntza kolektibora. Alabaina, hurbilketa hori ez da automatikoki gertatzen, ez-eta gertatuko ere. Sindikatuak presentzia bermatu behar du gazte inguruneetan, aditzera eman behar du bere burua eta langileen antolakuntza sindikala sustatu behar du, langile klasea osatzen duten kolektibo gazteenek ere ikus dezaten gure sindikatu dela prekaritatearen eta gizarte eredu kapitalistaren aurkako tresna eraginkorrena. Soilik horrela bertutuko dugu sindikatuak gazteentzat tresna eta alternatiba eraginkor eta erakargarria izatea.

317. Aniztasun funtzionala duten pertsonen afiliazioa gurean, ez da jendartean eta lan munduan duten proportzio berekoa. Negoziazio kolektiboan aipatu dugunari jarraituz, aniztasun funtzionala duten langileekin lanketa egin ahala, afiliazioan duten proportzioa ere handitzeko ahalegin berezia egin behar dugu. Sindikatuak babes eta bidelagun sentitu behar dute beraien lan eta bizi-baldintzak hobetzeko.

318. Afiliatuen egonkortasuna ere datozen urteetako erronka nagusienetakoa izango da. Afiliatuen iraunkortasunaren analisisan sakondu behar dugu eta analisi horren arabera helburu eta ekintza konkreituak diseinatu eta martxan jarri. Izan ere, afiliatuen egonkortasuna beste gai estrategiko askoren oinarri eta abiapuntua da, sindikalizazio edo militantziaren aurreko urratsa.

319. Afiliatuen arretari aipamen berezia egin nahi diogu, izan ere, sindikatuaren egoitzetara hurbiltzen diren edo sindikatuako arduradun edo ordezkariekin kontaktuan jartzen diren gehienak, arazo edo behar jakin bat dutelako egiten dute, eta egoera horietan sentitu behar dute sindikatuaren baliabideek behar bezala erantzuten dietela beraien beharrei. Hori horrela izan dadin, afiliatuen eta laguntza bila datozen pertsonen harrera ongi antolatzea ezinbestekoa da. Izan ere, askotan, hau izaten baita pertsona askoren lehen kontaktua sindikatuaren egiturarekin, eta jasotzen duten arretaren kalitateak zuzenean baldintza dezake haien afiliazioa edo sindikatuarekin duten harremana.



320. Arreta hau ondo antolatzeko egiturako baliabideak ez ezik, gainontzeko militanteen sarea ere osatu eta zaintzea ezinbestekoa da. Ordezkaritza eta ordu sindikalen metaketaren bidez liberatzen diren pertsonen zereginak esleitzerakoan lokaletako arreta eta lehen bidela-guntza egitea lehen mailako ardura gisa landu behar dugu, beste ardura edo zeregin batzuen pare. Era berean, enpresa edo sektore ugaritako atal sindikalek bertan lan egiten duten langile eta afiliatuei egiten dieten arretak ere berebiziko garrantzia du, eta maila berean zaindu eta bultzatu behar dugu.

Ordezkaritza berretsi eta berritu

321. ELAren ordezkaritza handi eta zabala langile klasearengandik jasotzen dugun eten-gabeko babesaren adierazle da. ELAk, hauteskunde sindikalen bidez, lan-zentroz lan-zentro eta sektorez sektore, egunero berresten du bere ordezkaritza eta zilegitasuna. Etenik gabeko lan handi eta onaren emaitza da ordezkaritza hau, egungo prekaritatea eta langileen arteko zatiketa ezarri nahi dizkiguten honetan, meritu berezia duen lana.

322. Babes eta ordezkaritza zabal hau da hitzarmen ezberdinetan lan- eta bizi-baldintza hobeak negoziatzeko zilegitasuna ematen diguna, baita, afiliazioarekin batera, gobernuen, botere ekonomikoaren edo bestelako eragileen aurrean langile klasearen interesak defendatzeko indarra eta legitimitatea ere. Beraz, hurrengo urteetan ere, gure ordezkaritzari eutsi eta posible den heinean handitzeko helburuarekin, modu planifikatuan eta sistematikoan landu behar ditugu hauteskunde sindikalak, gero eta langile gehiagoren atxikimendua lortzeko.

323. Hauteskunde sindikalen esparruan, datozen urteetako erronka handienetakoa Genero Planean ezarri dugun emakumeen presentzia eta parte-hartzea hobetzeko helburuarekin lotua dago. Hauteskunde prozesuetan, hautagaitzak osatzerakoan eta egiten ditugun lanketetan helburu hau presente izan behar dugu.

324. Honekin batera, ponentzia honetan jorratzen ditugun ildoekin koherentzian, ELAren hautagaitzetan eta ordezkarien artean sexu eta genero disidenteen, pertsona migratuen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen presentzia eta proportzioa handitzeko ahalegina egin behar dugu.

Ez dago enpresa txikiegirik langileak antolatzeko

325. Ez dago sindikaturik ELAk adina baliabide bideratu eta lanik egiten duenik enpresa txiki eta ertainetan. Horren adierazle dira bertan lortzen ari garen ordezkaritza handia eta afiliatu kopurua, baita garatzen ari garen ekintza sindikala eta lan-baldintzen hobekuntzak ere.

326. Enpresa hauetan hauteskunde sindikalak eta afiliazioa lantzen jarraitzeak berebiziko garrantzia izango du. Izan ere, Euskal Herriko enpresa guztien zati garrantzitsua izateaz gain, bertako langileek afiliatu, ordezkaritza izan, antolatu eta lan eta bizi-baldintzak hobetzeko premia handia dute. Beraz, hurrengo urteetan ere, egindako bide honetan sakontzen jarraituko dugu, ETEetako langileen, afiliatuen eta ordezkarien atxikimendu eta sindikatua-
rekiko lotura militantea indartuz.

5.2. LANGILEAK LAN-ZENTRO BAKOITZEAN HOBETO ANTOLATU, HOBETO KONFRONTATZEKO

327. Klase sindikatuak dira langile guztion interesak defendatzeko langile klaseak duen tresnarik garrantzitsuenak. Sindikatu indartsurik gabe ez dago negoziazio kolektibo indartsurik, berdintasunaren, justizia sozialaren edo demokrazia ekonomiko eta sozialaren aldeko borroka posiblerik, ezta, bidezko trantsizio ekosozial baterako bidea egiterik ere.

328. Beraz, sindikatua hedatu eta indartzea lehentasuna da ELArentzat. Eta esandakoaren ildotik, ez dago sindikatu indartsurik afiliazio ugari eta ordezkaritza zabalik gabe. Sindikatua-ren indartze prozesua ez da, ordea, afiliazioan eta hauteskunde sindikaletan amaitzen. Bata zein bestea, borrokari hasiera emateko beharrezko ditugun gutxieneko tresnak dira ELArentzat.

329. Tresna horiek abiapuntutzat hartuta, sindikatuaren eginbeharra eta konpromisoa lan-zentroetan konfrontaziorako ahalmena sortzea da. Horretan datza ELArentzat lan-zentroen edo sektoreen sindikalizazioa: langileen antolakuntzaren bitartez, lan-zentro eta sektoreetan enpresaburuekin konfrontatzeko gaitasuna eta gogoia sustatzea.

330. Konfrontazio ahalmena sustatzeko ezinbestekoa da ELAko ordezkari, afiliatu eta kide guztiok ulertzea eta sentitzea sindikatua guztiok garela. Sindikatua ez dela zerbitzu batzuek eskaintzen edo arazoak konpontzen dituen hirugarren bat. ELAko egiturako kideek soilik ezinezkoa dutela enpresaburuekin konfrontatzeko gaitasuna lortzea. Konfrontatzeko ahalmena izan eta lorpenak erdiesteko ELAren egiturako kideen, ordezkarien eta afiliatuen parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira. Guztiok egiten dugu sindikatua.

331. Agerikoa da ELAk gaitasun handiko egitura sendo baten alde egiten duen hautua, baina egitura hori afiliatu eta ordezkariak beraien lan zentroko eta, oro har, langile-klasearen lan eta bizi-baldintzak hobetu ahal izateko tresna bat besterik ez da. ELAren egiturak, oso sendoa izanagatik ere, bere baitan, ez du gaitasunik lan-zentro eta sektore guztietan konfrontazio ahalmena sortzeko. Soilik lan-zentro eta sektoreetako ordezkari eta afiliatuak, egiturako kideen laguntzarekin, lor dezakete lan-zentro edo sektoreko langileak antolatzea eta konfrontazio gaitasuna eta gogoia sustatzea. Sindikatuaren egiturako kideak eta ordezkariak afiliatuen bidelagun izan behar dira prozesu honetan, pedagogia eta antolakuntza baliabideen laguntzarekin afiliatuak praktika eta borroka sindikalaren subjektu aktibo izan daitezzen.

332. Lan-zentroak eta sektoreak sindikalizatzeko kezka eta helburu hau ez da, inola ere, berria sindikatuaren, baina inoiz baino beharrezkoagoa da. Izan ere, azken urteetan, langile askok sindikatuak borroka kolektiborako tresna moduan ikusi beharrean, zerbitzu gisa ikusten baitituzte eta ikuspegi honek langileen desmobilizazio kezagarria ekar dezake, langile askok ez dutelako beraien burua konfrontazioaren subjektu aktibo bezala ulertzen.

333. Beraz, azken urteetako lan-ildoarekin jarraituz, datozen urteetan garrantzi berezia eta zentralitatea eman nahi diogu sindikalizazioari, praktika sindikalak argi utzi digulako sindikalizaziorik gabe ezinezkoa dela lan-zentroetan eta botere ekonomiko eta politikoaren aurrean konfrontazio ahalmena izatea, eta hori egin ezean, zerbitzu-sindikatu soil bihurtzeko arriskua dagoela.

334. Hainbat enpresa eta esparrutan oso ongi landu da antolakuntza eta sindikalizazio prozesu hau eta emaitza esanguratsuak lortu dituzte. Izan ere, historikoki, lan-baldintza onenak lortu dituzten esparruak eta eraso neoliberalen aurrean defentsa irmoena egin dutenak, sindikalizazio maila altuko eremuak izan dira. Praktika on hauek balioan jarri, hai-



engandik ikasi eta lan egiteko modu hau esparru guztietara hedatzea da hurrengo urteetako helburua.

335. Abiapuntua hau izanik, berrikuntzak barneratu ditugu sindikalizazio prozesuan. Enpresa industrial maskulinizatu eta klasikoetarako diseinatutako sindikalizazio prozesua berreraiki dugu lan munduaren errealitate berriei eta, bereziki, sektore feminizatueterako ere egokia den prozesu bat diseinatu. Eta honekin batera, lan honetan ordezkari eta afiliatuek protagonismo handiagoa izan dezaten, ezagutza eta botere transferentzia mailakatu bat proposatu dugu: ELAren egiturako kideetatik ordezkarietara, eta ordezkarietatik afiliatuetara. Hurrengo urteetan, prozesu berri honen baitan ahalik eta lan-zentro eta sektore gehienetan sindikalizazioa bultzatzea dagokigu.

336. Prozesu hau behar bezala garatzeko trebakuntza plan bat diseinatu dugu. Lehen fase batean, egiturako arduradunen eta ordezkarien arteko harremana sendotu eta sistematizatzeko, lanaren planifikazioa, bilera eraginkorrak egitea, diagnostiko egokiak egitea eta ekin-tza planen diseinua landuko dugu. Bigarren fase batean, ordezkarien eta afiliatuen harremana sistematizatzeko, lan-zentro edo sektore bakoitzean afiliatuen espazio propioa eta antolatutako landuko ditugu, sindikatuaren lan-ildo orokorrak eta tokian tokiko arazo eta borrorak lantzeko. Honela, afiliatuek ere sindikatuaren hausnarketa eta erabaki prozesuetan parte hartze aktiboa izatea bultzatu nahi dugu, sindikatuaren eguneroko jardueraren parte sentitzen direla ziurtatuz. Azken helburua ELAren ordezkari taldeak, sindikatuaren ildo nagusiekin lerrotatuta, lan-zentro bakoitzeko afiliatuak antolatzeaz arduratzea da, leku bakoitzean konfrontatzeko gaitasuna lortu arte.

337. Beraz, duela hamarkada bat baino gehiago abian jarritako lan-zentroetako antolakuntza sistemak indartu nahi ditugu, errealitate berrietara moldatuta eta prozesua berrituta. Lehen pausoa lan-zentro edo sektore bakoitzeko ordezkari taldeak antolatzea izango da, sindikalizazioaren garrantziaz jabetu eta lan metodologia hau bere eginez, sindikatuaren ahotsa lan-zentroetan beraiek izan daitezen. Pauso hau eman ondoren, ordezkari talde horiek arduratuko dira lan-zentro bakoitzeko afiliatuak antolatzeaz, aipatutako metodoaren bitartez, esparru bakoitzean konfrontatzeko gaitasuna lortu arte.

338. Erronka handia daukagu sindikalizazioan datozen urteetan lan-esparru edo sektore gehienetan. Prozesua diseinatu, planifikatu eta abian jarri dugu aukeraturiko esparru batzuetan, baina hau guztia eremu guztietara hedatzeko tentsioa mantendu behar dugu eta lan handia egin. Prozesuan martxan jartzeko aukeratu ditugun esparruetan ikasitakoarekin prozesua egokitu eta datozen urteetan, pixkanaka, esparru gehiagotara zabaltzeko erronka dugu, ahalik eta lan-zentro eta sektore gehienetan konfrontaziorako gaitasuna izan dezagun. Hurrengo urteetan, modu berezian, ordezkarien sindikalizaziotik afiliatuen sindikalizaziora pasatzeko erronka dugu.

339. Ez da erronka makala eta ez dugu berehalakoan lortuko, baina egungo ofentsiba neoliberalean, sindikatua sendotu eta lan- eta bizi-baldintzak defendatu eta hobetu nahi baditugu behartuta gaude ahalegin hau egitera eta, modu progresiboan bada ere, bide honetan pauso esanguratsuak ematera. Hau da, azken finean, ELAren misioa eta bide hori ezinekoa da sindikatua osatzen dugun guztion lan kolektibo antolaturik gabe. Horrek izan behar du gure iparrorratza egiten dugun orotan.

5.3. AHALDUNDUTAKO MILITANTZIA GEHIAGO ESPARRU GUZTIETAN KONFRONTATZEKO

340. Militantzia gure eredu sindikalaren muina da. ELAkoa izateko “berezko” eta “benetako” modua militante izatea da, bai egiturako kideentzat, bai ordezkari entzat, bai afiliatu entzat. Sindikatuak aurrera egingo du sindikatu bere sentitu eta dagokien esparru eta arduraren lan egiten duten militanteak baldin badaude. Egungo egoeran, meritu handia dauka eta aitortza berezia merezi du ELAko militante izateak. Hau honela izanik ere, militantzia gehiago, ahaldunduago eta antolatuago behar dugu, ditugun erronkei aurre egiteko. Hein batean, sekula amaituko ez den prozesua izango da militantzia handitu eta sendotzearena.

341. Militantea organizazioaren printzipio eta asmoekin bat egiten duen ELAko afiliatua da, eta sindikatuari bere ekarpena egin eta sindikatuak eskatzen dizkion lan batzuk burutzeko prest dagoena, sindikatuaren balore kolektiboak bere eginda. Militante izateak talde nortasuna sortzen du, jarrera bat da eta batez ere praktika bat. Militanteek beren egunerokoan ELAren balioak bizitzeko konpromisoa hartzen dute, eta hori sindikatuaren nortasunaren eta kohesioaren oinarri da.

342. Militantzia eredu anitzak eta inklusiboak sustatu nahi ditugu. Argi daukagu konpromiso militantea ezin dugula “erabateko disonibilitatearen” baitan neurtu, irizpide baztertzalea izango bailitzateke. Era berean, ez dago ELAko militante izateko modu bakararra. ELA barruan tokia dauka ekitatea, elkartasuna, zintotasuna, zaintza eta errespetua bezalako balioak oinarri dituen sindikalista orok.

343. Militantziaren lanketak ondorengoa eskatuko digu hurrengo lau urteetan:

- a) Militantzia sustatu behar dugu, guztion ardura da.
- b) Militantzia sustatze hori konfiantza kolektibotik egin behar da, ez da zereginen delegazio huts bat, benetako jakintza eta botere transferentzia suposatzen du, militantea sindikatuko borroken protagonista izan dadin.
- c) Militanteak trebatu behar ditugu maila ideologikoan, tekniko-juridikoan eta organizazionalen. Militanteak beren egunerokoan eta sindikatuaren ekintzetan eraginkorrak izateko, beharrezkoa da trebakuntza jarraitua eskaintzea.
- d) Militantzia zaindu behar dugu. Akonpainamendua eta laguntza behar beharrezkoak dira. Militanteek beren konpromisoa urteetan zehar mantendu ahal izateko, ezinbestekoa da segurtasun eta babes eremuak sortzea, laguntza emozionala eta praktikoa eskaintzea.
- e) Militantziaren ekintza-eremua zabaldu behar dugu, ELAren lan esparru guztiak lantzen dituen militantzia integrala behar baitugu, enpresatik esparru sozial eta politikoraino. Sindikatuak gizartearen eta nazioaren eraldaketan eragina izan behar du, eta horretarako, militantziak esparru horiek guztiak bete behar ditu.
- f) Militantzia antolatu behar dugu, parte hartze esparruak sortu eta elikatu. Kalitatezko parte hartzea sustatzeko baldintzak sortu behar ditugu, ahalduntze eta atxikimendu kolektiboa landuz. Ahalduntze, parte-hartze eta atxikimendu lan honetan, aipamen berezia egin behar diegu militantziaren parte hartzerako daukagun organo batzuei: Eskualde Kontseiluak eta Federazioetako Batzorde Federalak. Organo hauetan hasitako bidean badugu zer hobetu, sindikatuaren hausnarketak elkarbanatu eta parte hartzea sustatzeko egitura sendoak eta eraginkorrak sortzea eta mantentzea funtsezkoa baita.



- g) Militantziak ospakizuna ere eskatzen du. Garaipenak, borrokak, agurrak... momentu garrantzitsuak dira gure ibilbide sindikalean, eta lotura afektiboak sendotzen dituzte. Ospakizunek gure militantziaren indarra eta etorkizuneko asmoak adierazten dituzte, gure nortasun kolektiboa sendotuz eta konpromisoa berretsiz.
- h) Azkenik, militantziaren lanketa planifikatu egin behar dugu, horretarako lan-ildo eta ekintza zehatzak martxan jarri behar ditugu esparru ezberdinetan: hauteskunde sindikalak lantzerakoan, negoziazio kolektiboan, sindikalizazioan, ekintza sozialean, lokal eta afiliatuen arreta antolatzerakoan, kartelak jarri eta pankartak egiterakoan edo mobilizazioetan parte hartzerakoan, besteak beste. Planifikazio egoki batek militanteen lana eta konpromisoa eraginkorragoa bihurtu eta sindikatuaren helburuak lortzeko bidea erraztuko du.

344. Militantziarekin lotuta, berebiziko garrantzia duen elementu batean sakondu beharra daukagu datozen urteetan: mobilizazioetan, alegia. Gure mobilizazio ereduak definitu eta hobetzeko erronka daukagu, gaur egun dugun mobilizaziorako gaitasuna hobetze aldera, eta horretarako aldagai ezberdinen inguruan eragiteko gaitasuna garatu behar dugu.

345. Gogoeta honek, modu berezian, eragiten dio militantziaren inguruan egiten ari garen prozesuari, baina baita sindikalizazioari ere. ELAk deitzen dituen mobilizazioetan gure militantziak zer nolako parte-hartzea izatea nahi dugun definitu beharra daukagu, eta prozesu horretan ezinbestekoa izango da Genero Ekitaterako Planean mobilizazioetarako aurreikusi genituen helburu eta estrategiekin lerrokatuta aurrera egitea. Hasteko, mobilizazioetan emakumeen parte-hartzea oztopatzen duten arrazoiak antzeman eta ELAren mobilizazio diseinua moldatu emakumeen parte-hartzea bultzatzeko. Izan ere, mobilizazio indartsuak gure ekintza sindikalaren muinean daude eta emakumeen parte-hartze aktiborik gabe ez dago mobilizazio indartsurik.

346. Bestalde, sindikatuaren beste esparruetan bezala, gure mobilizazioetan ere parte-hartze anitza ahalbidetu eta sustatu behar dugu. Langile klasea osatzen duten kolektibo guztiek beraien burua gure mobilizazioetan oztoporik gabe, eroso eta behar bezala ordezkatuta ikusi behar dute. Ildo horretan, datozen urteetan erronka berezia dugu sexu- edota genero disidente diren pertsonen, pertsona migratuek, aniztasun funtzionala dutenek edota gazteek ELAren edozein motatako mobilizazio bere sentitu dezaten eta inolako eragozpenik gabe parte har dezaten.

347. Beraz, gure militante guztien parte-hartze eta inplikazioa ahalbidetzen eta sustatzen dituzten mobilizazio eredu berriak diseinatzeko erronka daukagu esku artean, denon errealitate eta beharrak kontuan hartzen ditugula bermatuta.

348. Militantzia gure sindikatuaren ardatza da; gure etorkizuneko erronkei aurre egiteko, ezinbestekoa. Guztion artean eraiki eta elikatu behar dugu, gure helburu kolektiboak lortzeko. Militantziaren bidez, gure eredu sindikala indartu eta gure eskubideak defendatzeko eta gehiago lortzeko gaitasuna handituko dugu. Militantzia sendo eta konprometitu batek ELAren indarra eta eragina areagotuko ditu, eta gure gizartean aldaketa sakonak lortzeko tresna eraginkorra izango da.

5.4. SINDIKATUA ERALDATZEN GENERO EKITATERAKO

349. Azken hamarkadan, sindikatua murgilduta dago genero ekitaterako antolakuntza aldaketa prozesuan. Diagnostiko sakona egin eta gure burua ispilu aurrean jartzea gogorra izan zen: ikasi genuen ez garela oasi bat, ELAren baitan ere genero diskriminazioak badaudela eta, erakunde maskulinizatua izan garen heinean, interes orokorraren izenean ema-

kumeen interesak alboratu ditugula oharkabeen. Diagnostiko horrek genero ekitatea ildo estrategikotzat izendatzera eraman gintuen, eta lanketa horrekin jarraitzeko mandatu eta konpromisoa dugu gure gain.

350. Diagnostikoa gogorra izan bazen ere, gure antolakuntza eta estrategiak errebisatzeko hautua egin genuen, sindikatuaren maila guztien gain eragiten zuen Genero Ekitaterako Plan Estrategikoa diseinatuz eta martxan jarritz.

351. Azken kongresutik hona Genero Ekitaterako Plana martxan jarri dugu: sindikatu osoaren lan- eta antolaketa-eremuak hartzen dituzten hainbat bloke sortu ditugu, bakoitza bere helburu eta ekintzekin. Genero arkitektura deitu dioguna ere sortu dugu, sindikatua zeharka eraldatzeko misioa duen egitura eraikiz.

352. Datozen urteetan lanketa horrekin jarraituko dugu. Hastapenerako beharrezko oinarriak jarri ditugun arren, egin nahi ditugun aldaketak sakonak dira eta epe luzerako konpromisoa daukagu. Genero ekitateak ildo estrategikoa izaten jarraituko du, erronka handiak ditugulako oraindik ere mahai gainean eta gure buruari jarri genizkion egiteko asko ditugulako oraindik egiteko, besteak beste:

- a) Diagnostikoan sindikatuko emakume ordezkariak sindikatuaren jardunaren gain eragiteko gaitasun gutxi zutela ikusi genuen, eta haien esperientziatik ikasketa kolektiboa sortzeko zailtasunak genituela. Sozializazio eta kontzientizazio espazioak sortzeko konpromisoa hartu genuen, sektore feminizatueta emakumeekin sindikatu osoari eragiten dieten gaiak kontrastatu ahal izateko eta, aldi berean, gure jardun sindikalean eragina izango duten proposamenak jasotzeko. Bide horretan talde batzuk sortu baditugu ere, kopurua areagotu behar dugu eta lan eta erronka handia dugu bide horretan datozen urteetan.
- b) Genero Ekitateko Planeko esparru ezberdinetan aurreikusi genituen helburuekin aurrera egin behar dugu. Esparru guztietan eman ditugu aurrerapausoak baina lan handia dugu oraindik egiteke. Erronka handia dugu, gainera, bloke horietako lan-ildoak sindikatuaren egunerokoan zeharka kokatzeko: bermatu beharra daukagu planeko lan-ildo horiek ez direla sindikatuaren egunerokoaren osagarri izango, eta sindikatuaren jardunean zeharka landuko ditugula, hala nola, negozio kolektiboan ala hauteskunde sindikaletan.
- c) Bloke ezberdinetako trebakuntza beharrak aztertu eta lehentasunak ezarri ondoren, trebakuntza horren diseinuari ekin behar diogu diogu eta era progresiboan martxan jarri.
- d) Genero Planean aurreikusitako ildoak era planifikatu eta koordinatuan martxan jartzen ditugula bermatu behar dugu, Genero ekitaterako Plana eta sindikatuaren planifikazio osorako tresna den Kudeaketa Sistema uztartuz eta genero arkitektura sindikatuaren antolakuntza ereduaren txertatuz.

353. Sindikatuko egitura eta militante guztioi dagokigu planeko lan-ildo guztien lanketa eta bultzada ematea, guztion erantzunkidetasuna funtsezkoa izango da hurrengo urteetan esandakoa egikaritzeko. Lan handia izango da, dugun erronkaren dimentsioaren parekoa: sindikatu hobea eraikitzea, feminista, langile klase osoaren interes eta beharrei erantzungo diena.

354. Genero Ekitaterako Planaren garapenarekin batera, sindikatu anitz eta inklusiboagoa egiteko pausoak ematen hasiak gara, jatorriaren baitan edota aniztasun funtzionalaren baitan, diskriminazioak ekidin eta parte-hartze handiagoa sustatu nahian. Oraindik behar bezala landu gabeko esparruak dira eta hurrengo urteetan hobeto jorratu behar ditugu.



Genero Ekitaterako Planaren diseinua eta sindikatuaren sortu dugun egitura baliagarria gerta dakiguke lanketa honetarako. Izan ere, langile klase osoa ordezkatu ahal izateko, militantzia anitza izateko, eragin eremua zabaltzeko eta gure helburu guztiei heltzeko, ezinbestekoa baitu sindikalismo antirrazista eta antikapazitista garatzea.

5.5. PLANIFIKAZIO ONA HELBURUAK LORTZEKO

355. Sindikatuak zer eta nola egiten duen erabakitzea ez da erraza. Lehentasunak, metodologiak eta plangintzak behar bezala antolatuta ez daudenean sindikatua erakunde errektibo izatera kondentatuta dago eta horrek esan nahi du sindikatuaren, egituraren eta militanteen lana ez duela sindikatuak berak erabaki edo baldintzatzen, baizik eta eguneroko dinamikak, eta, neurri handi batean patronalek, enpresek edo gobernuak hartzen dituzten erabakiek.

356. ELA bezalako sindikatu batek ezin du onartu soilik modu errektiboan lan egitea. Hein handi batean, sindikatu bat beti izango da erakunde errektibo bat. Izan ere, erasoak etengabeak dira eta erantzun egin behar diegu. Baina, era berean, sindikatuak beharrezkoa du ekintza propiorako tartea, sindikatuaren estrategia, helburu eta misio propioak martxan jarri eta gauzatzea ahalbidetuko dion planifikazioa. Azken helburu horrekin egituratu genuen azken kongresutik hona Kudeaketa Sistema. Helburu nagusia sindikatuaren barne-antolaketa hobetzea, bere egituren arteko koordinazioa optimizatzea eta lehentasunak eta lan-metodoak zehazterakoan argitasuna eskaintzea da. Gainera, ekintza horiek guztiak modu planifikatuan egingo direla bermatu nahi dugu, sindikatuak erantzun eraginkorrak eta ekimen estrategiko propioak konbinatzeko duen gaitasuna indartuz.

357. Hau guztia bateratzea eta erakunde osoan horren baitan funtzionatzea ez da lan erraza. Izan ere, beti izango ditugu kanpo erasoak eta, oro har, ezin ditugu baldintzatu noiz eta nola helduko diren. Baina badugu hobekuntza tarterik gure lan egiteko moduak hobetzeko eta efizienteagoak izateko. Badugu aukerarik errektzio lana modu ordenatuago eta efizienteagoan artikulatzeko eta estrategia eta helburu propioei dagokien lekua bermatzeko asmoz planifikazioa hobetzeko.

358. Garrantzitsua da azpimarratzea efizientziaz ari garenean ez dugula gure egin nahi enpresa munduan ematen zaion esanahia. Ez dugu efizientzia ikuspegi ekonomizistatik ulertzen, ongizatearen ikuspegitik baizik, genero ekitatean egin dugun lanketarekin lotuz. Zer eta nola landuko dugun ondo erabakitzeaz ari gara. Lehentasunak irizpide estrategikoen arabera ezarri behar ditugu eta gure ohiko lanak hobetzeko plangintzak martxan jarri, horrek ahalbidetuko baitigu, azken finean, eraginkoragoak izatea, hobe militatzea eta lan militantea bizitzarekin bateragarria izatea.

359. Ez gara hutsetik abiatzen; pauso garrantzitsuak eman ditugu azken urteetan, baina bide luzea dugu oraindik aurretik, hasi zuzendaritzatik eta atal sindikal edo oinarriko lan taldeetarako. Sakoneko aldaketak dakartzaten eraldaketa prozesuak zuzendaritzatik hasteko hautua egin dugu eta horretan aritu da sindikatua azken urteetan. Esaterako, informazioaren transmisioa era eraginkoragoan egiteko sistema abian jarri dugu sindikatuaren zuzendaritzan eta datozen urteetan, sindikalizazioaren bitartez, sistema hori lan-zentroetarako hedatu nahi dugu.

360. Helburu, helmuga eta adierazle zehatzekin hasi gara lanean, gure jardunaren egokitasuna hobe neurtu ahal izateko eta sindikatuaren eremu bakoitzean hobekuntzak planifikatu ahal izateko.

361. Datozen urteetan hasitako lanari jarraipen eta hedapena emango diogu. Eraldaketa prozesu hau sindikatuaren egitura osoan eta lan-zentro eta sektore guztietara zabaltzeko erronka dugu. Gure lan egiteko modua hobetu eta modu planifikatuan lan egiteko helburua duen Kudeaketa Sistemak paper garrantzitsua jokatu du bide honetan, besteak beste, sindikalizazioaren, militantziaren eta genero ekitatearen lanketari dagokien leku estrategikoa ematen lagunduko digu eta eguneroko lanak egokiago antolatu eta hobetzeko aukera eman.

5.6. DEFENTSA JURIDIKOA, EKINTZA SINDIKALERAKO FUNTSEZKOA

362. Lan-harremanen ereduak, azken urteotan, desarautze eta lan-baldintzen malgutzetarako progresioa izan ditu ezaugarri, baita kaleratzeen merkatzea ere. Espainiako "Elkarriketa Soziala" deiturikoa esparruan onartutako 2021eko azken lan-erreformak ez zien aurrekoei atzera eragin, hauek indargabetzeko aukera baztertu baitzen, eta erreforma horietako elementu kaltegarrienetako asko, finkatu egin baitira. Gaur egun lan munduan prekaritatea da nagusi, eta enpresek lan-baldintzak zehazteko aldebakarreko botere handia dute oraindik, lan-harremana hasten denetik amaitzen den arte.

363. Nolanahi ere, enpresaburuek lan-baldintzei buruz hartzen dituzten erabakiak, banakakoak zein kolektiboak, epaileen kontrolpean egon daitezke, hein batean, eta, horregatik, zerbitzu juridiko eraginkor bat izatea, erreferentzia izango dena langileen lan-eskubideak epaitegietan defendatzeko orduan, ezinbestekoa da egoera horri erantzuteko eta aurre egiteko.

364. Gure zerbitzu juridikoak milaka erreklamazio jartzen ditu urtero epaitegietan, mota guztietako lan eskubide indibidual zein kolektiboen urraketei aurre egiteko: kaleratzeak, ez ordaintzeak edo greba moduko oinarritzko eskubideen urraketak, besteak beste. Bide judizialek prekaritatearen aurka egunero egiten den borroka balio handiko lana da langile klasearen lan eta bizi-baldintzak hobetzeko lan sindikalaren barruan. Hau guztia posible da gure talde juridikoa osatzen duten pertsonen konpromiso eta profesionaltasunari esker.

365. Zerbitzu juridikoetan dugun erronka nagusia gure zerbitzuaren kalitatea eta berrikuntza juridikoa hobetzen jarraitzea da, bide judizialaren bidez lan-baldintzak hobetzeko borroka honetan ildo berriak esploratzeko. Geroz eta kasu kopuru handiagoa, gai ezberdin gehiago eta konplikatuagoak ditugu lantzeko. Lan-karga handitze hau kalitatea mantentzearekin eta etengabeko hobekuntzarekin uztartzen saiatu behar dugu.

366. Hauek dira erronka horretan aurrera egiteko kontuan hartu beharreko elementu batzuk:

- a) ELAren zerbitzu juridikoak ekintza sindikalerako funtsezko tresna dira, bere afiliatuei aholkularitza eta defentsa juridikoa emateko. Badakigu bide judiziala eta ekintza sindikala modu planifikatuan uztartzeak eskubideen defentsan eta prekaritatearen aurkako borrokan askoz eraginkorragoak egiten gaituela. Prekaritatearen aurkako borrokari lehentasuna emateko apustuak sindikatuaren federazio eta arlo ezberdinekin koordinazioa eta barne komunikazioa hobetzen jarraitzea behartzen gaitu. Horixe da modurik onena gure talde juridikoaren esperientzia eta ezagutza balioesteko eta baliatzeko, eta erakunde osoari ekarpenak egiteko, gero eta prekariora den lan mundu batean estrategia sindikala diseinatzeko.
- b) Gero eta jende gehiagok jotzen du egunero gure lokaletara edo gure webguneko kontsulta zerbitzura aholkularitza juridikoa eskatzera; gainera, pertsona horietako asko afiliatu egiten dira berehalako arreta juridikoa jasotzeko. Eskari gero eta handiago horrek lehen arreta hori hobetzera behartzen gaitu; atzerapenik gabeko



erantzuna emateak eta hasieratik kontsulta behar bezala bideratzeak zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen digu. Antolakuntza tentsioari eustea eta militantzia ere zeregin horretan inplikatzeko garrantzitsua izango da hurrengo urteetan.

- c) Ezberdintasunen, emakumeen eskubideen urraketen edo lan munduko mota guztietako diskriminazioen aurkako borrokan, eskubide horiek auzitegiaren defen-
datuz laguntzen dute zerbitzu juridikoek. Genero-berdintasunaren aldeko Plan
Estrategikoa (GEPE) abian jarri ondoren, urrats batzuk eman ditugu bertan ezar-
ritako helburuak lortzeko, baina oraindik bidea geratzen zaigu genero-dimentsioa
gure eguneroko jardura juridikoan erabat txertatzeko eta horren inguruko zerbitzu
juridikoen ikaskuntzak ELAren ekintza sindikal osoari eragin eta inspirazioa eman
diezaion.
- d) Genero-gaietan garrantzitsua den informazioa biltzeko eta zabaltzeko sistema
berri bat osatzen hasi gara. Horri esker, generoan oinarritutako diskriminazio- eta
desparekotasun-egoeren analisi espezifikoak egin ahal izango dugu, eta hobe apro-
betxatu ahal izango ditugu gure zerbitzu juridikoak esku-hartzen duen lan-erreali-
tateetan bildutako ezagutza eta esperientzia.
- e) Genero ekitaterako lanketan lehen urrats hauek emanda, zerbitzu juridikoa osatzen
duten pertsonen prestakuntza egokian sakondu behar dugu eta hurrengo urteeta-
rako helburu estrategiko hauek landu eta bultzatzeko oinarriak ezartzen ditugu:
 - i) Zerbitzu juridikoak genero-gaietan aurrekari juridikoak sortzeko eragile aktibo
izateko duen gaitasuna handitu, arloko egitura eta lan-eredua egokitu.
 - ii) Zerbitzu Juridikoetako kideen egungo eskualde-dinamiketan eta plan estra-
tegikoan aurreikusitako emakumeak sozializatzeko eta kontzientziatzeko
espazio berrietan parte-hartzea sustatu.
- f) Gure zerbitzu juridikoen eraginkortasun eta kalitatea hobetzeko espezializazioa
bultzatu behar dugu. Azken urteotan, bi talde jarri ditugu martxan, Bidelagun
Fundazioa eta Konkurtso eta ERE taldea, lan-osasunaren arloko zenbait beharri eta
konkurtso egoeran dauden enpresetako langileei modu egokiagoan laguntzeko,
gai horietan gehiago sakondu eta arlo juridikoan eta sindikalean eraginkorrak
izateko asmoz.

Apustu honek arreta eta lanaren kalitatea asko hobetzera eraman gaitu eta bide
juridiko berriak irekitzea ahalbidetu digu, osasunarekin, prebentzioarekin edo kale-
ratze kolektiboekin eta konkurtsoekin lotutako gai oso sentikorren defentsan. Jauzi
hori emateko Lan osasuneko arloarekin, federazioekin eta eskualdeekin izandako
koordinazioa eta elkarlana ere ezinbestekoa izan da. Ondorioak atera eta hurrengo
pausoak planifikatzea dagokigu orain.

- g) Aldaketa teknologikoek, digitalizazioaren fenomenoak edo adimen artifizialak,
enplegu berriak eta lan egiteko modu berriak sortzeaz gain –plataforma digitalak,
esaterako–, zeregin asko egiteko modua ere eraldatzen ari dira pixkanaka. Lan-
harremanen esparruan erabakiak hartzeko adimen artifiziala erabiltzen hasi dira
(kontratazioa, pertsonen hautaketa, sustapena, errendimendua, zereginen eslei-
pena...) eta tresna horien bidez genero, sexu-aukera edo jatorriagatiko diskrimina-
zio mekanismoak betikotzeko arriskua dago, funtsezko eskubideak urratuz. Arazo
hauek zerbitzu juridikoak ere interpelatzen dituzte. Antzemandako abusu egoerak
salatzeko eta kaltetuen eskubideak defendatzeko, bide juridiko berriak zabaltzea
dagokigu.

5.7. SINDIKATU EUSKALDUNAGOA LANGILEAK EUSKARARA EKARTZEKO

367. Sindikatuan euskararen egoera normalizatzeko plangintza martxan jarri genuela 20 urte pasa dira. Urte hauetan euskararen presentziak nabarmen egin du gora sindikatuan eta datorren urteetan egoera hobe dadin egingo dugu lan.

368. Euskaldun asko gune erdaldunetan bizi dira eta lan mundua bereziki erdalduna da. Euskaraz bizitzea eta lan egitea erabat korrontearen kontra hartutako hautu politiko bat da, errebeldia ariketa bat. Lotura emozionalaz gain, euskarekiko lotura ideologikoki eraiki dugu euskarak eta euskaldunok bizi dugun zapalkuntzaren kontzientzia dugulako. Zapalkuntzaren kontzientzia honek beste zapalkuntza batzuen kontzientzia izatea erraztu eta beste borroka batzuetara hurbiltzeko baldintzak sortzen ditu, hala nola, feminismora, justizia sozialera, justizia klimatikora edo arrazismoaren aurkako borrokara, euskaldunok gaitz horien aurrean txertorik ez dugun arren. Euskara borroka sozialetarako tresna da; beraz, sindikatua lan-gileak hobe bizitzeko tresna den neurrian, sindikatua gero eta euskaldunagoa baldin bada, pentsa dezakegu euskarara euskal herritar xume gehiago erakarriko dituela.

369. Euskara gehiago erabiltzen dugu egunerokoan, baina oraindik ez dugu bermatzen hala nahi duten pertsona guztiek ELAn euskaraz militatzeko aukera izaterik. Datozen lau urteetan urratsak emango ditugu hori lortzeko. Bilera eta batzarrak euskaraz egin ahal izateko, eskualde guztietan itzulgailuak eskuragarri jarri ditugu eta itzulpen neuronal sistema eskuragarri dute militante guztiek, baina hauen erabilera oraindik ez dugu erabat orokortu. Era berean, sindikatuaren euskalduntze prozesuan eskualde batzuetan frogak egin ditugu egiturako kideak eta ordezkariak arruntak elkarrekin euskalduntzeko eta euskara ikasi deza-ten. Froga hauekin ikasitakoarekin, esperientzia hauek hedatzen saiatu behar dugu.

370. Euskararen erabilera irizpideak ezarrita ditugu, bai barnera begira baita kanpora begira ere, baina ez ditugu beti betetzen. Aurreko Kongresuan arnagune diren eskualde eta sektoreetan gure informazioa euskara hutsez helarazteko erabakia hartu genuen, baina ez dugu beti lortzen. Zerbitzu juridikoetan prozedura judizialak euskara hutsean izapidetzeko aukera ezarri dugu, baina ez gara beti bermatzeko gai izan.

371. ELA sindikatu euskaldunago bat izateko bidean gaude. Orain arte hartu ditugun erabakiak sendotu eta betetzeko laguntza egokiagoa eskaintzean izango dugu erronka hur- rengo lau urteetan.

5.8. MILITANTZIA INDARTZEKO ETA ERRONKEI AURRE EGITEKO TREBAKUNTZA

372. ELAren proiektu sindikala indartzeko funtsezkoa da Manu Robles-Arangiz Funda- zioaren bidez sindikatuko militante eta arduradunek jasotzen duten trebakuntza. Treba- kuntza-prozesu horrek orientazioa eta gaitasuna ahalbidetzen die erantzukizun-rolak beren gain hartzen dituztenei, eta beren funtzioetara eta erronketara egokitutako tresnak ematen dizkie. Ildo horretan, trebakuntza sindikalak militantziaren aktibismoa aberasteaz gain, gai- tasunak ere indartzen ditu, laneko eta jendarteko erronkei aurre egiteko funtsezko baliabide bihurtuz. Horrela, militantzia trebatuago, inklusiboago eta konprometituago baten alde egiten dugu, lan munduko eta gizarteko egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai izango dena.

373. Datozen lau urteetarako, ELAk bere ildo estrategikoak garatzeko sakondu beharreko funtsezko arloak identifikatu ditu. Ildo horietan guztietan Fundazioak prestakuntza antola- tzen jarraituko du sindikatuko arlo, egitura (eskualde eta federazio) eta prozesu guztiekin, sindikalizazio prozesuarekin duela gutxi egin duen bezala. Lan honek sindikatuko egiturako



pertsona, ordezkari eta afiliatuek bere ekintza sindikalerako dituzten antolaketa-beharrei eta premia teknikoei erantzuten die.

374. Datorren kongresu arteko epean jauzi kualitatibo bat eman nahi dugu gure egiturako pertsona, ordezkari eta afiliatuen prestakuntza tekniko eta juridikoan. Federazioekin eta zerbitzu juridikoekin lankidetzan garatuko dugun helburua da hau.

375. Ordezkari berrien ikastaroak lehentasun izaten jarraituko dute, izan ere, hau baita ordezkari askok sindikatuarekin duten lehen harremana. Kongresu arteko aldi bakoitzean milaka ordezkariak parte hartzen dute ikastaro horietan, sindikatuaren eta bere ordezkarien konpromisoaren oinarriak ezartzen dira, eta, kasu askotan, federazioekiko eta eskualdeekiko harremanari ekiten zaio. Trebakuntza hauetan eta beste hainbatetan erabiltzen diren eduki ugari Manu Robles-Arangiz Fundazioaren Moodle plataforman daude eskuragarri sindikatuko ordezkari eta militanteentzat, hurrengo urteetan zabaltzen eta indartzen joango garen edukia eta erabilera.

376. Sindikatuaren Dokumentazio Zentroa ere indartuko dugu, militantziarentzat interesgarriak diren lanak eta materialak bilduz eta sortuz. Fundazioak ahaleginak areagotuko ditu argitalpenetan, bereziki zabalkundean, gai sindikalei, sozialei eta politikoei buruzko materialak eta azterlanak eragin nabarmena izan dezaten egiturako kideen, ordezkarien eta afiliatuen artean.

377. Generoari buruzko Plan Estrategikoarekin bat etorritik, mekanismoak ezarriko ditugu trebatzaileek beren saioetan emakumeen esperientzia eta hauen premiekiko sentsibiltate espezifikoak barne hartzen dutela bermatzeko. Bizipen horiek argitalpenetan eta ikastaroen edukietan txertatzeak aukera emango du sindikatuaren ezagutza kolektiboak kide guztien errealitatea erabat islatzeko. Era berean, ikastaroetan da parte hartzeko dinamika eta genero-ikuspegia txertatuko duen metodologia inklusiboa sustatuko ditugu, emakumeen bizipenak eta interesak bilduz. Ikuspegi horrek trebakuntza aberasteaz gain ahots guztiak entzunak eta baloratuak izatea bermatuko du.

378. Manu Robles-Arangiz Fundazioak unibertsitatearen esparruan ikerketa sindikala sustatzen jarraituko du. Esparru horretan aurrerapen esanguratsuak lortu ditugu, izan ere, gaur egun, Euskal Herrian hamar pertsona baino gehiago ekintza sindikalararekin lotutako gaiak ikertzen ari dira, sarritan oinarritzko ikerketa lana ELAko militanteekin elkarlanean egiten ari direlarik.

379. Azkenik, Fundazioak espainiar estatuko Fundazio Subiranisten Foroan parte hartzen jarraituko du, aliantzak eta lankidetzak eraikiz, ELA bere ekintza sindikalean lortu nahi duen burujabetzarako eta eraldaketa sozialerako bidea indartzeko.

5.9. LAN MUNDUAREN ALDAKETETARA EGOKITZEN DEN SINDIKALISMOA

380. Lan mundua aldaketa sakonak jasaten ari da, eta sindikatuak, bere xedeari heltzeko, aldaketa horiei aurre egin eta moldatzeko beharra dauka. Digitalizazioa, adimen artifiziala, plataforma-kapitalismoa, lanaren prekarizazio forma berriak, enpresen kudeaketa estilo berriak eta trantsizio ekosoziala dira gure aurrean ditugun erronka nagusietako batzuk. ELAk argi dauka erronka hauek ulertu eta erantzuteko prest egon behar duela, betiere langileen eskubideak eta duintasuna defendatuz.

381. ELAk erronka hauek guztiak arduraz kudeatzeko konpromisoa hartzen du, betiere langileen interesak lehenetsiz. Sindikatuaren eginkizuna ez da soilik langileen eskubideak defendatzea, lan-baldintzak hobetzea eta lanaren balioa aitortzea ere bai. Horretarako,

sindikatuak bere egitura eta antolaketa abagune berriei erantzuteko egokiak direla bermatu behar du, egoera berriei aurre egiteko prest egoteko.

382. Azkenik, ELAk uste du lan munduaren etorkizuna eraikitzea denon ardura dela, eta horregatik, langile guztiei dei egiten die sindikatuarekin bat egitera, elkarrekin bide justu eta duina eraikitzeko. Sindikatuaren indarra langileen elkartasunetik eta antolakuntzatik dator, horregatik, denok batera indartsuagoak gara.



6 >>>

KONTRABOTERE SINDIKALISMOAREN ETA ERALDAKETA SOZIALERA KO ALIA NTZEN BEHARRA

383. Ponentzia honetan azaltzen ditugun errealitate gordinari eta erronkei behar bezala aurre egiteko ezinbestekoak ditugu arlo sindikalean, sozialean, baita politikoan ere elkarlan esparruak eta aliantzak.

384. Enpresa eta lan zentroetan patronalei aberastasunaren banaketa lehiatzeko, lan-osa-suna eta berdintasuna bermatzeko, jardunaldia murrizteko, enplegua eta bizitza bateragarri egiteko, lan-baldintzak hobetzeko, prekaritatea borrokatzeko... beharrezkoa dugu beste sindikatu batzuekin elkarlana eta indarrak batzea. Desadostasun sindikalak eraginda, nahi baino gehiagotan arazoak izan ditugu elkarlanean aritzeko. Gure hautua bakarrik jardutea ez bada ere, azken urteotan agerian utzi dugu ELAk duen gaitasuna egoera horretan ere aurrera egiteko eta lorpen garrantzitsuak eskuratzeko.

385. Eskubide sozialak eutsi edo berriak lortzeko, zerga-sistema aldatzeko, gobernuen aurrekontuak handitzeko, zerbitzu publikoak defendatu eta indartzeko, zaintza sistema publikoa bultzatzeko, trantsizio ekologiko eta soziala aurrera eramateko, eta jendarte feminista eta inklusiboago baterantz pausoak emateko, ezinbestekoa da elkarlana. Era berean, guztiontzat etxebizitza bermatzeko, teknologia berriak jendartearen zerbitzura jartzeko, faxismoari aurre egiteko, demokrazia defendatu eta zabaltzeko, gure herria, kultura eta hizkuntza babestu eta indartzeko, eta esparru ezberdinetan burujabetza irabazteko, beharrezkoa da beste sindikatu, gizarte eragile eta alderdi politikoekin batera aritzea. Irrikatzen dugun jendartea eraikitzeke eta estatu independente baterantz urratsak emateko, alternatibak eraikitzea ezinbestekoa da. Erronkak potoloegiak dira bakarka edo modu sakabanatuan lortzeko. Zer esanik European eta mundu osoan bizi dugun olatu neoliberal, kontserbadore, faxista eta militaristari aurre egiteko.

386. Azken kongresuan genion, erakunde sindikal, sozial edo politiko bakoitzak finkatzen dituen aliantzak direla haren benetako neurria, etiketak, historia eta adierazpenik ospetsuenak alde batera utzita, ez baikara gure buruaz esaten duguna, egiten duguna baizik. Eta oinarritzko hiru ardatz aipatzen genituen aliantza estrategiko sendoak egiteko:

- a) Helburu programatikoak
- b) Eredu sindikala
- c) Giza-eskubideekiko eta herrien eskubideekiko konpromisoa

6.1. ELA ETA LAB BIDE EZBERDINETATIK GOAZ

387. ELArentzat aukera eta hautu bakarra Euskal Herriko gehiengo sindikala izan da. "Gehiengo sindikala" adierak ez dio erreferentzia egiten kontu aritmetiko soil bati, eredu sindikala ere funtsezko kontua da. ELA eta LAB izan dira gehiengo horretako eragile nagusiak. Lankidetzaren funtsezko bi zutabeak kontrabotereko eredu sindikal bat garatzea, eta lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparruaren defentsa eta eraikuntza izan dira. UGTren eta CC.OO.en kontzertazio sindikalismoarekiko eta espainiar ereduaren azpisistema izatetik askatzen lagunduko zigun eredu sindikal propio bat, alegia.

388. Zailtasunak zailtasun, elkarlan horrek aurrerapauso nabarmenak emateko aukera eman digu urteetan. Tamalez, azken urteetan, 2020ko greba orokorrerako adostasunaren salbuespenarekin, elkarlanerako saiakera gehienek porrot egin dute. Gaur gaurkoz, ELA eta LABek bide ezberdinak hartu ditugula esan beharrean gaude eta ez dugu elkarlanerako gutxieneko adostasunik elkarbanatzen. ELAren ikuspegitik, hiru oztopo nagusi izan ditugu azken urteotan: negoziazio kolektiboko estrategia eta tresna ezberdinak, Sortu eta EH Bilduren strategiaren eragina LABen ekimen sindikalean eta LAB parte-hartze instituzionalera itzuli izana.

389. ELAren eta LABen arteko desberdintasunak nabarmenak dira negoziazio kolektiboan. ELAren iritziz, egungo egoerari aurre egiteko grebak funtsezkoak dira. lan-baldintzak hobetzeko konfrontazio sendo eta luzeak beharrezkoak dira, tamalez, eta horregatik langileak greba luzeetarako prestatzea ezinbestekoa da. Honetarako, ordea, borondate irmoaz gain, baliabide eta tresnak behar dira: jendea antolatzen lagunduko duten pertsonak, trebakuntza, proposamenak egiten lagunduko duten aditu ekonomiko zein juridikoak eta konfrontazioan irauten lagunduko duten baliabide ekonomikoak. Hain zuzen, Greba Kutxa da ELArentzat negoziazio kolektiborako eta konfrontaziorako tresnarik garrantzitsuenak. Hori gabe, nekez iraun dezake aldarrikapen sendoak dituen borroka batek.

390. Lan Harremanen Kontseiluaren arabera egin diren greba egun guztien %70 baino gehiago ELAk deitu ditu, aldiz LABek %28. Greba Kutxak patronalaren proposamenak inposatzea ekiditen du eta eduki hobeak lortzeko aukera zabaltzen. Hori ezean, grebarik deitu nahi ez denean, grebari eusteko zailtasunak daudenean edo greba luzatu ezin denean, akordioetara iristeko edukiak malgutzea beste biderik ez dago. Tamalez, sarritan, LABek bide hori hartu du, CC.OO. eta UGTekin bat eginez. Horrela gertatu da Arabako metalean, Bizkaiko metalean, Bizkaiko garbikuntzan, Gipuzkoako papergintzan, arte grafikoetan, Gipuzkoako kiroldegia... Kasu horietan guztietan, LABek UGT eta CC.OO. izan ditu bidelagun, ELA eta bere estrategia eta aldarrikapenak isolatuz eta lan-baldintza kaskarragoak onartzen dituzten gehiengo alternatiboak osatuz.

391. Bestalde, ELAren ustez, LABek bere unibertso politikoarekin dituen loturak eragin zuzena du bere ekimen sindikalean. Egoera hau areagotu egin da. EH Bilduk EAJ, PSE-EE edo PSNrekin akordioak eta herri itunak sinatzeko strategiaren baitan, koalizioak akordioak itxi ahala, LAB mobilizazioak, konfrontazioa eta greba dinamika baztertu edo baldintzatzeko saiatu baita. Zentzu honetan, adierazgarria da Nafarroako sektore publikoaren egoera EAEkoaren antzekoa edo okerragoa izanik, eta LAB Nafarroako administrazio publikoko lehen sindikatua izanik, EAEko greba dinamikaren antzekorik bultzatzeari uko egin izana, baita grebak mugatu eta, zenbait kasutan, oztopatzen saiatu izana ere. Esanguratsua den moduan, EAEko Hezkuntza Itunaren bueltan EH Bilduk EAJrekin akordioa egin ondoren LABek greba dinamika bertan behera utzi nahi izatea edo Eusko Jaurlaritzarekin Aranzazuko akordioaren modukoak sinatu izana.

392. ELAren ustez, EH Bilduk konfrontazio eta alternatiba eraikitzeke estrategia lehenetsi beharrean, egoeraren erantzule direnekin adostasun eta akordio zabaletara iristeko hautua



egiteak eragina izan du LABen ekimenetan. Mahai instituzionaletara itzuli izana testuinguru honetan ulertzen dugu. EH Bilduren egungo estrategiak dikotomia bat planteatzen du: nola eutsi kontrabotere estrategiari, mugimendu bereko alderdiak konfrontazioa alde batera utzi eta akordio zabalak bilatzen dituenen?

393. LABek bere azken kongresuan bere parte-hartze instituzionalaren jarrera berrikusi eta Osalan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura itzultzea erabaki zuen, nahiz eta erakunde horien egitura eta funtzioak ez diren aldatu. ELAren ustez, erabaki horrek azken hogeitaz kontzertazio sozialaren aurka elkarrekin egindako lana bertan behera uztea dakar, sindikatuak parte-hartze instituzionaleko erakunde hutsaltasuna eta kaltea salatzen eta horietatik elkarrekin irteteko lana ezbaian jarritz.

394. Tamalez, ELA eta LAB bide ezberdinetatik goaz. Hau ez da nahiko genukeen errealitatea, baina zintzoena egoera onartzea da, fikziorik elikatu gabe. ELAk kontrabotereko eremu sozial eta sindikal autonomoa defendatzen jarraituko du.

6.2. EZKERRA BEHARREZKOA DA ERAKUNDEETAN... BETIERE MUGIMENDU SOZIAL ETA SINDIKALAREKIN ARTIKULATUTA

395. Lehenengo atalean azaldu moduan, ELA kritikoa da ezker politikoak Euskal Herrian jotzen ari diren paperarekin. Baina ezinbestekoa da mugimendu sindikalarentzat ezkerreko alderdiek instituzioetan langile-klasearen aurkako politikei aurre egitea, agenda atzerakoia konfrontatzea eta programa alternatibo bat defendatzea. Hori gabe, sindikatu eta mugimendu sozialek bakarrik, nekez alda dezakete egoera.

396. ELAk uste du politika neoliberaleri aurre egiteko erabaki irmoa ardatz hartuta eta eragile bakoitzaren autonomia errespetatuz, agenda sozial eta soberanista garatzeko artikulazio sindikal, sozial eta politikoak gaitasun handia izango lukeela Euskal Herriko egoera soziopolitikoa aldatzeko. Logika horretan kokatzen zen ELAk 2013an Sortuko zuzendaritzari luzatu zion proposamena, ezkerreko agenda eta burujabetza estrategia lantzeko aukerak arakatu asmoz. Eta gako berberei erantzuten zion 2017an LABekin batera plazaratu genuen "Aldebakarreko burujabetza prozesu sozial baten alde" adierazpenak. Bertan, "ezkerreko aliantzak sustatu eta elkarlanean aritzeko" konpromisoa jasotzen genuen, eta zehazten genuen "ezker politikoak agenda soziala lehenetsi behar duela agenda soberanistaren oinarri gisa".

397. ELAk etsipenetik egiaztatu du, ordea, ez dela hori Sortu edo EH Bilduk jorratu nahi izan duten bidea. Izan ere, ezin izan baitugu ikusi ordezkariak instituzional garrantzitsua duen ezkerreko indar politiko baten eta kontrabotereko gehiengo sindikal zabal baten arteko elkarlanaren potentzialtasun izugarria, Europa mailan benetako erreferentzia izan zitekeen saiakera.

398. Proposamen hauek ez dira posible izan eta Sortu eta EH Bilduk beste bide bat aukeratu dute. Ordutik hona, agerikoak dira ELAren eta Sorturen, EH Bilduren edo LABen artean sortu diren desadostasunak. Hala ere, ELAk berresten du sindikatuak ezkerreko alderdiek instituzioetan nagusi den agenda atzerakoia konfrontatzeko eta langileen interesak defendatuko dituen programa alternatibo bat garatzeko duen beharra eta honek gure herriko egoera soziopolitikoa aldatzeko eta langile klasearen eta herritar xumeen bizi-baldintza materialak hobetzeko duen potentzialaren ustea. Ponentzia honetan diogunaren ildotik, ELAk uste du, honek guztiak gure herriaren burujabetza prozesua nabarmen indartzeko balio izango lukeela.

399. Hau egin ahal izateko, ordea, aurrez ere esan dugun moduan, ezinbestekoa da eragile bakoitzaren autonomia errespetatzea eta alderdi politikoen eta sindikatuen eta mugimendu sozialen estrategiak eta agendak modu egokian artikulatzea.

400. ELA ez dago gustura Euskal Herrian ordezkaritza instituzionala duten ezkerreko alderdi politikoek azken urteetan hartu dituzten erabaki eta garatu dituzten estrategia nagusiekin. Hala ere, kontziente gara instituzio ezberdinetan ezkerreko politikarik egingo bada eta ELAk ponentzia honetan defendatzen dituen ildo nagusiek instituzioetan babesik izango badute, alderdi horien bidetik izango dela, nagusiki. ELAk sinetsita jarraitzen du eragile bakoitzaren autonomia errespetatzen duen agenda sozial eta soberanista garatzeko artikulazio sindikal, sozial eta politiko baten ahalmenean; eta sindikatuaren ustez, gaitasunik eta oinarri militante nahikorik badago bide hori egin nahi bada.

6.3. ALIANTZA SOZIALAK INDAR-HARREMANEAN ETA KONTRABOTEREAN IRABAZTEKO

401. Azken urteetan Euskal Herrian egin ditugun mobilizazio, aldarrikapen eta grebak eta eman diren hainbat aldaketa, ez ziren posible izango, edo oso bestelakoak izango litezke, hainbat eragile eta mugimendu sozialek egindako lanik eta beraiekin izandako elkarlanik gabe.

402. Horren adibide dira honako hauek:

- a) Beste sindikatu, eragile eta mugimendu sozialekin Eskubide Sozialen Kartan antolatuta bultzatu ditugun izaera eta eduki ezberdineko kanpaina, ekimen eta mobilizazioak.
- b) Mugimendu feministak egindako lan handia emakumeen aurkako indarkeria agerian utzi eta salatzeke, emakumeen eskubide eta ahalduntzea areagotzeko eta zaintza lanak balioan jarri, berrantolatu eta zaintza sistema publiko baten alde elkarrekin antolaturiko 2023ko azaroaren 30eko greba feminista orokorra.
- c) Pentsionisten mugimenduak pentsio murrizketen eta pentsioetako genero arrakalaren aurka eta Euskal Herrirako gutxieneko pentsioaren alde mantendu duen etenik gabeko borroka eta elkarrekin eginiko mobilizazio ugariak.
- d) Gure herrian Osasun publikoaren defentsan diharduten eskualde ezberdinetako plataformak.
- e) Azken urteetan geroz eta indar handiagoa hartzen ari den gazte mugimenduak eta, modu berezian, Mugimendu Sozialistaren baitan sortzen ari diren erakundeak, kapitalismoaren zapalkuntza anitzak borrokatu eta gazteentzat etorkizuna eraikitzeke egin dituzten antolakuntza lanak, kanpainak, ekimenak eta mobilizazioak.
- f) Euskal Herriak Kapitalari Planto, OMAL edo kapitalismoarekin kritikoak diren eta mugak jartzen saiatzen eta alternatibak plazaratzen dituzten elkarte eta plataformak.
- g) Herrien zapalkuntza eta gerraren aurkako elkarte edo plataformen salaketa eta mobilizazio lana.
- h) Gure herria euskalduntzearen alde lanean dabiltzan elkarte, eragile eta erakundeek egiten duten lana eta elkarbanatzen ditugun ekimen, kanpaina eta mobilizazioak.



- i) Etxeko langileen elkarteek buru dituzten salaketa eta aldarrikapenak eta elkarbanatu ditugun ekimen eta proposamenak.
- j) LGTBI mugimenduko kolektibo ezberdinek genero eta sexu askatasunaren aurkako erasoei emandako erantzuna eta heteropatriarkatuak inposaturiko jendarte egituratik askatzeko lana eta elkarbanaturiko esparru eta aldarrikapenak.
- k) Paperik gabekoen eta pertsona migratuen elkarteek oinarritzko eskubideen urraketa eta diskriminazioak azaleratzeko eginiko lana eta erregularizazio lortu eta Atzerriartasun Legea aldatzeko abian jarri dituzten kanpaina ekimen eta mobilizazioak.
- l) Mugimendu ekologistak kutsadura, klima aldaketa edo biodibertsitatearen aurkako eraso ezberdinei eman dien erantzuna, azpiegitura erraldoien aurka elkarbanaturiko ekintza eta mobilizazioak edo trantsizio ekosozial justu baterako Euskal Herri osoan eginiko elkarlana eta mobilizazioak, Ipar Euskal Herrian Manu Robles Fundazioa eta Bizi!-ren elkarlanaren bitartez.
- m) Euskal Herri osoan guztiontzat etxebizitza eskubidea defendatzen ari diren hainbat elkarte eta kolektiborekin batera buruturiko kanpaina, ekintza eta mobilizazioak ELA moduan, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren bidez edo Aldak parte hartuta.
- n) Esparru ezberdinetan sistema kapitalistari alternatibak sortu eta Ekonomia Sozial Solidario edota Eraldatzailearen baitan irrikatzen dugun jendarte eraikitzen ari diren talde, elkarte eta kooperatibekin harreman eta elkarlana.
- o) Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen alde, burujabetza eraiki eta independentzia bidea jorratzeko diharduten elkarte, eragile edo mugimenduekin harremana eta ekimenak.

403. ELAren iritziz, eragile, elkarte eta mugimendu hauek dira, konfrontazioko sindikalismoarekin batera, langile klasearen interesak defendatu eta Euskal Herriaren eraldaketa soziala bultzatzeko gure herrian dugun altxorrik handiena.

404. ELAk esparru hauetan guztietan, eragile hauekin guztiekin indarrak batu eta arlo ezberdinetan, nahiz herritar xumeon interesak jokoak dauden borroka orokorretan, elkarlanean aritzeko ahalegina egingo du. Indar-erlazioan irabazi, kontraboterea indartu eta gure jendarte eraldatzeko ezinbesteko bidea dela sinetsita gaude.

6.4. EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO ALIANTZAK

405. ELAren izaera internazionalista kontuan izanik, ponentzia honen lehen atalean azalduko egoerari erantzuteko eta gure herriko, frantziar eta espainiar estatuetakoko, Europako edo nazioarteko inposaketa eta arazoei erantzun eta azaldu ditugun ildoetan aldaketak eragiteko, gure herritik harago ere elkarlana eta aliantzak bultzatu behar ditugu, orain arte egin dugun bideari jarraipena emanez.

406. Nazioartean ere, sindikatu eta erakundeen autonomia, konfrontazio demokratikoa, kontraboterea, eraldaketa sozial, feminista, ekologista, antiarrazista, antifaxista eta demokratikoa edota herrien burujabetza ardatz dituzten sindikatu, elkarte, erakunde edota mugimendurekin harremanak, elkarlana eta aliantzak eraikitze apustu garbia egiten du sindikatuak. Orain arteko harremanei eutsi eta berriak lantzeko ahalegina egingo dugu.

407. Kide garen nazioarteko egituretan ponentzia honetan azaltzen dugun gure irakurketa plazaratzen jarraituko dugu, konfrontazio eta kontrabotere ereduaren beharra azalduz eta giza eskubideekiko, demokraziaren aldeko, eta herrien eskubideekiko errespetua eta gure konpromiso irmoa azpimarratuz.

408. Lehentasunezko alde biko harremana mantentzen jarraitu nahi dugu, bereziki, eredu sindikal bera duten eta estaturik gabeko nazioetako sindikatu lagunekin, urte hauetan zehar egiten aritu garen bezala. Horrela izan da eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu Galiza, Països Catalans, Quebec, Sahara eta Palestinako sindikatuarekin. Bereziki emankorra izan da Galizako CIG eta Kataluniako Intersindicalarekin espainiar Estatuaren erasoei aurre egiteko eta negoziazio kolektiborako esparru propioak bermatzeko aurrera eraman ditugun elkar-lana eta mobilizazio bateratuak. Bide horri eutsi nahi diogu aurrerantzean ere.

409. Enpresa eta sektoreetan langileen antolakuntza eta konfrontazio estrategia arrakastatsuak lantzen ari diren nazioarteko sindikatu eta erakundeekin, ere, harremanak eraiki nahi ditugu eta ezagutzak elkarbanatu antolakuntza eta konfrontaziorako gaitasuna handitu asmoz.

410. *Garapen*ara bideratzen dugun aurrekontuaren bidez, mundu osoan zehar garatzen ditugun trebakuntza sindikaleko egitasmoei, ere, irmo eutsi nahi diegu, erakunde adiskideekin elkarlanean. Proiektu hauek munduko beste eskualde batzuetako errealitate sozial, politiko eta sindikalak zuzenean ezagutzeko aukera ematen digute. Euskal Herria zeharkatzen duen kapitalaren esplotazio eta zapalkuntza sistema hasten den lekuak dira, gure herrian jarduten duten edo sarritan Euskal Herrian erroturiko enpresa edota transnazionalak ustiatzen dituzten lurralde eta jendarteak, alegia.

411. Egitura neokolonialen gaineko kontrola sustatu eta mugak jartzea du helburu, hain zuzen ere OMALein burutzen dugun lankidetzak eta "Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroa" sortzeko eskaerak.

412. Esplotazio globaleko sistema honi aurre egitea dute helburu ELA partaide den nazioarteko merkataritza akordioen aurkako aliantzak, tartean Europako Energiaren Karta Ituna, EB-Mercosur Ituna edo CETaren aurkako nazioarteko plataformak. Helburu bera dute NBEko Enpresa Transnazional eta Giza Eskubideei buruzko Itun Loteslea lortzeko ahaleginak, foro alternatiboen topaketetan parte hartzeak, Energia Demokratizazioaren aldeko Sindikatuen foroko kide izateak (TUED), nahiz Palestinako herriari laguntza bideratzeak bere aldeko sare sindikalaren bidez.

413. Bide beretik doa OMALein batera Next Generation-EU funtsen atzean gertatzen ari denaren inguruan egin dugun salaketa. ELA, Euskal Herriko, Europako eta nazioarteko beste sindikatu eta eragileekin batera engaiatua dago iraunkortasunaren eta transformazio digitalaren aitzakiapean jendartean prekaritatea eragin, kontrarreforma gogorrek inposatu, zorraren bidez estatuak diziplinatu eta diru publikoarekin ordain arazi eta kapitala korporazio handien eskuetan are gehiago kontzentratzea helburu duen estrategia hau salatu eta borrokatzeko aliantza osatuz.

414. Zorraren bidez estatuak eta jendartea menpean izatea helburu duen estrategia honi aurre egiteko berriz, urteetako harremana eta elkarlana dugu Zor Bidegabea Indargabetzeko Batzordearekin (CADTM). Beraiekin eta beste eragileekin elkarlanean, botere ekonomikoek eta kapitalak zilegi ez den zorra herrialdeak menpean izateko nola erabiltzen duten ikusarazi, salatu eta indargabetu dadin borrokatzen jarraituko dugu.

